



«Udalerrri euskaldunek lidergoa izan behar dugu; bideak irekitzea dagokigu»

Josu Labaka
Uemako lehendakaria • 9

ASTEARTEA, 2015EKO URRIAREN 6A • XIII. URTEA • 3.812. ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS

1,30 EURO

Emakume bat hil dute Erandion, eta bikotekidea atxilotu du Ertzaintzak

Hilak 39 urte zituen, eta Bilbon bizi zen • Desagertua zegoela abisu eman zuten senideek; bikotekidearen bila hasi dira ertzainak, eta Leioan atxilotu dute • Gaur eguerdian elkarretaratzeak egingo dituzte Bilbon eta Erandion • 5



LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI-PRESS

Harian 2

«Arrazoi humanitarioak» eman ditu legebiltzarrak Gogorza aska dezaten

Gaixo larri dago Aitzol Gogorza euskal preso. EH Bilduk eta EAJK galdegin dute haren askatasuna; PSEk eta PPK aurka egin dute. • 6

Merkataritza arauak bat egiteko akordioa egin dute AEBek Pazifikoa

AEB, Japonia, Australia, Mexiko eta beste zortzi herrialdek merkataritza liberalizatzeko TPP ituna itxi dute, Txina alboratuta. • 12

Nafarroako Gobernuak CCOO eta UGTri soldatak pagatu zizkiela dio ELAK

Enplegu heziketarako hitzarmen batzuk liberatuen soldatak ordaintzeko erabili zituztela salatu du. CCOOk ukatu egin du. • 13

Tantoa 23

Euskal herritarren Sky

Skyn badira bost txirindulari Euskal Herrikoak; Mikel Landa eta Beñat Intxausti, iritsi diren azkenak. Xabier Artetxe prestatzailerak goratu egin ditu. • 24

Bizigiro 38

Hiru kilometro gehiago

Usurbilgo kilometroak jaiari ezaugarri bereziak eman dizkiote aurten: iraunkortasuna, inklusibotasuna eta parekidetasuna. Pozik daude eginiko lanarekin. • 38

Iñaki Etxabe Kanpazarren hil zuten, tabernan, duela 40 urte; inoiz hilketa argitu ez, eta biktima izaera ez diete aitortu senideei —irudian, Etxaberen seme-alabak, eta Luis anaia— • Iñigo Iruin abokatuak Auzitegi Konstituzionalera jo du, «estatu terrorismo» kasu argitzat baitu auzia • 2-4



Iñaki Etxabe zenaren seme-alabak, Ainhoa, Olatz eta Aitor, eta Luis anaia, urriaren 2an, Kanpazarren. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Atzo 40 urte hil zuten Iñaki Etxabe, Kanpazarren. Kasua argitzeke dago, eta sendia ez dute inoiz biktima gisa hartu. Iruinek «estatu terrorismotzat» joa du.

Justiziaz abandonatuta

Enekoitz Esnaola Kanpazar

Iñaki Etxaberena «estatu terrorismoaren belau-naldi berriko lehen hilketa» izan zela uste du haren familiaren abokatu Iñigo Iruinek, eta, Espainiaren trabak traba, kasua argitu nahian dabil. Konstituzionalera jo berri du, babes helegitea aurkeztuta; «frogarako eskubidea urratu baitit Auzitegi Nazionalak». Dio Konstituzionalak, hala, lehen aldiz jaso duela «estatu terrorismoarekin» lotutako helegite bat. GALen biktima batzuen ere jaso du. «Doktrina ezarri beharko du», azaldu du Iruinek.

1975eko urriaren 5ean hil zuten Iñaki Etxabe Orobengoa, atzo 40 urte. Arrasatekoa zen, 39 urte zeuzkan eta Elorriorako bideko, Kanpazar gaineko Etxabe-Enea ostatuko jabea zen. Han bizi zen. Haren anaia Luisek (74 urte) detailekin gogoratzen du atentatuaren unea, hantxe baitzen: «Tabernan ez geunden lagun asko. Ni mostradorean lanean, eta baziren

dozena erdi bat bezero. Iñaki sukaldean zegoen, txuleta bat jan berria. Bezperan, Juan Jose anaiari autoa erre zioten Donibane Lohizunen, eta informazio gehiago izan nahian Paris irratia piztuanen. Gaueko hamaikak jo, eta tabernan orduantxe sartu ziren hiru pertsona, burua estalita. 'Zuen bila gatoz', esan zidaten. Biltegira joan nintzen, eta atea itxi nien. Zarata entzunda, sukaldetik atera zen Iñaki, eta aurrez aurre egin zioten tiro. Hemezortzi tiro zeuzkan».

Kontuan hartzeko datua da erasotzaileek esandako «zuen bila gatoz». Izan ere, eskuin muturrak jomugan zeukan Etxabe sendia. 1975ean bertan, maiatzaren 11n Etxabe-Enearen aurka bomba bat jarri zuten; ekainaren 28an, beste lehergailu bat jarri zuten Baionan, Iñakiren anaia Joaquinen Udalaiz jatetxean; ekainaren 30ean, beste bomba bat Donibane Lohizunen, Iñakiren anaia Juan Joseren Etxabe jatetxean; uztailaren 27an, Etxabe-Enea tirokatu egin zuten metrailetekin; eta urriaren 4an, Iñaki hil bezperan, Luisek esan be-

zala, anaia Juan Joseri autoa erre zioten Donibane Lohizunen. Espainiako polizia indarrek ETako kide zuten Joaquin eta Juan Jose Etxabe. Iñakik ez zeukan militantzia politiko jakinik.

1975eko urriaren 5ean bertan, 13:45 aldera, Kanpazartik kilometro batzuetara ETak hiru guardia zibil hil zituen; Oñatin izan zen, Arantzazurako bidean. «Gauean zerbait gertatuko zen susmoa genuen», esan du Luis Etxabek, eta ez dauka dudarik: Kanpazarkoa mendekua izan zen. «Egun hartan Guardia Zibilak inguruan errepideko kontrol ugari jarri zuten, oso zorrotzak. Gurean sartu ziren hirurek haienak izan behar zuten. Gainera, gaueko hamarrak aldera guardia zibil batzuk sartu ziren tabernan, ea berririk ba al zen galdetza. Zer zetorren jakinaren gainean egon behar zuten».

«Aurreratu egin zaizkigu»

23:00etan hilketa izan, eta Etxabe-Enean ziren pixka batera Pedro Basterretxea Arrasateko orduko alkatea, Jose Antonio Altuna alka-

teordea eta herriko erretore Gregorio. Baita segituan guardia zibilak ere, Altunak (78 urte) dioenez: «Bost minutura guardia zibileko kabo bat sartu zen tabernan, eta ozen eta argi esan zuten: 'Aurreratu egin zaizkigu. Gu [Etxabe-eta] babestera gendozen'. Haiiek egin zuten atestatua». Eco markako bala zorroak bildu zituzten.

Biharamunean egin zen Iñaki Etxaberena aldeko hileta elizkizuna, Arrasaten, San Juan Bautista elizan. Gipuzkoako agintari instituzional garrantzitsuenak joan ziren; Juan Maria Araluze diputazioko presidentea, kasurako. Adierazgarria izan zen, halaber, Marcelino Orejak urriaren 7an *El Diario Vasco*-n argitaratu zuen gutuna. Frankismoaren mugimenduaren kontseilari nazionala zen orduan, eta zioen Arantzazuko eta Kanpazarko «krimenek» zerikusia zutela. «Basakeria» salatu zuten, eta «premiatzko irtenbide politikoak eskatu». Urriaren 6an Kanpazarren izan zen Oreja, sendiari doluminak emateko. Egunkariek bi atentatuak «terro-

rismoaren» testuinguruan kokatu zituzten, baina Etxabe familiari ez zioten eskela argitaratu.

Hileta elizkizunaren ostean gorpua hilerrira zeramatela guardia zibilek metrailetekin apuntatu zituzten senideak eta. «Lotsarik ba al zuten esan zien gure aitak», azaldu du Luis Etxabek. Atentatutik hilabete pasara, etxabetarrei autopsiaren faktura bidali zieten, baina autopsiaren emaitzarik ez. Erregimenak azkar itxi nahi zuen kasua. Sendiari sekula ez zioten auzitegitik deitu. Lekukoei ere ez; adibidez, Luis Etxaberi: «Epaileek interesik ez zuten jarri». Inguruko herrietako udal agintariak ere inoiz ez zituzten deitu.

Orduko urriaren 12an gertatutakoa ere deigarria da: German Agirre Irasuégi arrasatear taxilaria hil zuten, Legution, tiroz. Altunak uste du taxilariak Kanpazarren «zeozer ikusi» izango zuela. Antonio Tejero Gasteizko Guardia Zibilaren buruak esan zuen berak hartuko zuela Agirrerren ikerketaren ardura. Kasua ez da argitu.

«Prebentzio» moduan

Informazio eta Turismo Ministerioaren Gipuzkoako Ordezkaritzak urriaren 6an prentsa ohar bat atera zuen Etxaberena hilketaz, hura industriari gisa joz eta tiro egin ziotenak «identifikatu gabeko hiruz ezezagun» izan zirela esanez. Durangoko 1. Instrukzio Epaitegiak hartu zuen kasua, eta urriaren 6ko diligentzietan «terrorismoaren prebentzio» moduan jo zuen «hilketa». Urriaren 15ean Ordenu Publikoaren Madrilgo 2. Auzitegiaren esku utzi zuen kasua, eta fiskalak oniritzia eman zion erabakiari. Geroztik ez zen jakin auzia ikertu zuten edo zer erabaki hartu zen.

1976 bukaeran, BVE Batallon Vasco Español talde armatuaren *Baldarrain* komandoak bere egin zuen Etxaberena, eta hala ageri da Estatuko Segurtasun Idazkaritzaren 1998ko urriko idatzi batean, baita Guardia Zibilaren 2012ko ekaineko batean ere. Aldiz, Espainiako Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko uztaileko ohar batek dio ez dagoela egileez «daturik», eta Poliziako Informazioaren Komisia Nagusiaren 2012ko abenduko idatzi batek dio «egile-tza ezezaguna» dela eta 2014ko apirilko txosten batean jaso zuen inork ez zuela bere gain hartu eraso. Espainiako Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzak 2002an zioen ez zela «izaera terroristako ekin-tza» izan. Terrorismoaren Biktimen Asistentzia Departamentuak 1998ko urrian «eskuin muturreko izaera armatuko taldeei» ego-

tzi zien hilketa, eta jakinarazi zuen heriotza Estatuko Segurtasun Idazkaritzaren zerrendan sartu zela 1996an, horren sorreran.

Covite eta AVT elkarteek «terrorismoaren biktimen» zerrendan daukate Iñaki Etxabe, industriari gisa jota, eta biek jaso dute hilketaren egilea «talde terrorista, eskuin muturra» izan zela. In Memoriam pro Prax blogak ere jasoa du, eta Wikipediak Frankismo amaierako terrorismoaren atalean dakar. Jaurlaritza ere jasota dago «terrorismoaren biktima» moduan. Halaber, EAEko gobernuak joan den uztailean plazaratu zuen Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak (1960-2010) txostena, eta Arrasateko Udalarri emandako alean badator Etxabe-

Hilketa baino lehen Etxabe sendiak bost eraso jaso zituen; bi, Kanpazarren. Estatuak haiek ere ez ditu frogatzat jo

Iñigo Iruin abokatuak salatu du frogarako eskubidea urratu diola Auzitegi Nazionalak, eta Konstituzionalera jo du

ren kasua. Egiletzat BVE hartu du Jaurlaritzak, 1976ko aldarrikapena dela eta; «dena den, Euskal Herria y la libertad liburuan irakur daitekeenez, 'zantzu ugari daude guardia zibilak izan ote ziren'».

Familia, kalte-ordain eske

Artean Espainiako Estatuan Terrorismoaren Biktimen Legerik ez zela egin zuen Etxabe familiak lehen aldiz kalte-ordain eskaera, Barne Ministerioan. 1997ko urriaren Espainiako Loterian izandako etekinak baliatuz, gobernuak kalte-ordainak banatzeko dekretu bat onartu zuen 1998an. Etxabetarrek aurkeztu zuten eskaera, baina Barne Ministerioak 1999ko apirilean atzera bota zuen eskaera, atentatuak «izaera terroristarik» ez zuelakoan. 1999ko urriaren Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunerako Legea onartu zuen Kongresuak, eta familiak, bide-administratibotik joz, kalte-ordaina eskatu zuen Barne Ministerioan. 2000n atzera bota zuen. «Ez zen izan ekintza terrorista».

2011koa da Terrorismoaren Biktimen Lege berria, Aitortzarako eta Babes Integrakerako izenekoa. Familiak berriro Barne Ministerioan kalte-ordaina eskatu zuen, 2012ko martxoan. 2013ko uztailean, ezezkua.

Familiaren abokatu Luis Danborenearen ezbehar baten ostean, 2013ko irailean Iñigo Iruin hartu zuten lan haietarako, eta Admi-

nistrazioarekiko auzietako helegitea aurkeztu zuen Auzitegi Nazionalan. Eskatu zuen atzera botatzeko Barne Ministerioaren erabakia, arestian aipatutako «frogak» aurkeztuz «izaera terroristako» atentatua izan zela argudiatuta. «Terrorismoaren» biktima gisa aitortzeko eskatu, eta 251.168,2 euroko kalte-ordain eskaera egin zuen. Era berean, Ferrolgo (Galizia) artxibo militarrean kasuaz legokeen txostena galdegin zuen.

2014ko maiatzean auzitegiak baztertu egin zuen Ferrolgo txostenari buruzko eskaera, kasuak «izaera juridikoa» duelakoan. Aurtengo ekainean, epai bidez, atzera bota zuen kalte-ordain eskaera. Haren arabera, ez dago datu objektiborik «terrorismo» ekintza izan zela esateko; atentatuaren

aldarrikapena urtebetera egin zen, ez berehala; eta garai hartan ezzen «ETA-ren inguruaren» kontrako taldeak zeudela esateko moduko daturik. Iruinek dio beti egoten dela aurrenekoa den kasu bat. «Gainera, garai hartan erasoak izan ziren Etxabe familiaren aurka, Hego-

aldean eta Iparraldean ere bai, eta 2011ko legeak dio ez dela zertan talde bat egon helburu terrorista duen ekintza bat egiteko». Iruinek berak 1994an Tolosan emandako hitzaldi batean bi epe bereizi zituen «estatu terrorismoaren» barruan: lehena, frankismoaren amaieran sortua, 1975 erdian hasi eta UCDren gobernuaren aroan garatua; eta bigarrena, 1983an hasi eta PSOEren gobernuaren garaian garatua. Hitzaldi berean bi «terrorismo» mota bereizi zituen: «inkontrolatua» eta «mertzenario».

Auzitegiaren «kontraesana»

Joan den irail hasieran abokatuak Auzitegi Nazionalera jo zuen berriro, hango bidea agortzeko baliogabetasun gertakaria aurkeztuz, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan oinarrituta «defentsarentzat frogarako eskubide urraketa» egon dela arrazoituz. «Ez didate utzi kasua ikertzen». Auzitegiak ez zuen aintzat hartu, eta abokatuak irailaren 23an Konstituzionalean babes helegitea aurkeztu zuen, arrazoi beragatik.

Iruinek estatuaren jarrera «salatu» du, eta nabarmendu Auzitegi Nazionalak «kontraesan» bat duela Etxabe kasuan: «2014an esan zuen 'juridikoa' dela kasua, eta sententzian dio Kanpazarko atentatu terrorista izan zela esateko frogarik ez dudala aurkeztu, ikertzen utzi ez didatenean».

Olatz, Aitor eta Ainhoa Etxabek 40 urte daramatzate aitarik gabe. Hil egin zieten, etxean bertan. Biktima moduan onartzeko jo dute Barne Ministerioa, jo Auzitegi Nazionalera. Erantzun bera beti: ezezkua.

«Berriz hiltzea da hau»

E. Esnaola Kanpazar

Maria Angeles Okina zuen emaztea Iñaki Etxabek, eta Olatz, Aitor eta Ainhoa seme-alabak. Kanpazarko ostatuan bertan bizi ziren bostak, Iñakiren anaia Luisekin batera. Beste bost anaia eta bi arreba zituen hark, eta hura zen zaharrena. 39 urte zituela hil zuten, tiroz, hantxe. Ostalaritzari lotutako familia zen etxabetarra, eta da. Kanpazarko negozioa ondo zihoan orduan—duela hilabete batzuetatik itxita dago—. Pasoko lekuan dago, Arrasate, Elorrio eta Elgeta arteko gain batean, eta, artean ez zeudenez errepide berri hauek, handia zen trafikoa. «Gurean jende asko geratzen zen bazkaltzeko eta», dio Aitor Etxabek (48 urte). «Bestela ere izaten zen jendea, ugari». Tabernan bertan 40 lagunentzako tokia zuten jateko, eta barruan, beste 70-80rentzat. Goian, berriz, hamahiru logela; normalez, ez zituzten erabiltzen. Iñaki Etxabek moztadorean egiten zuen lan.

Bi anaia iheslariak zituen, eta beste bat zinegotzi izan zen Arrasaten; Iñaki Etxabek berak ez zuen militantzia politikorik. Kartzelan egona zen, 1968an, ETAk orduko abuztuaren 2an Irunen Meliton Manzanas poliziaburua hil zuenean. Luis anaiarekin—eta abuztuaren 5ean sarekada batean atxilotu, eta Basauriko espetxean eduki zuten hilabete inguruan.

Etxabetar sendiaren aurkako «fijazioa nabarmena» zen, Luisek dioenez. Haien aurkako atentatuak dira horren «froga». 1975ean, urriaren 5ean Iñaki Etxabe hil aurretik, bost pairatu zituzten, eta haietatik Kanpazarko ostatuan bertan, bi. Gogoan ditu biak Luis Etxabek. «Tabernaren aurka bonba jarri ziguten behin, baina ez zuen txikizio handirik egin. Besteaz gehiago akordatzen naiz, tabernaren kanpoaldea metrailatu zutenekoa. Komun barruan sartu nintzen, eta gero atarian ehun bala zorro topatu nituen».

Erasoak zirela eta, bizitzera Arrasatera jaitea erabaki zuten, Olatz Etxabek (50 urte) kontatu duenez. «Ikusita zer gertatzen ari zen, familiak beldur handia zukan; nik ez, 10 urte nituelako. Era-



Tabernan bertan, iaz. Iñaki Etxabe zenaren seme-alabak Aitor, Ainhoa eta Olatz, iazko maiatzean, Kanpazarko tabernan, Gogoan Hartzeko lizean proiekturako argazki bat atera zutenean. Barra parean hil zuten Etxabe, 1975ean; Ainhoa den tokitik irten zen, sukaldetik, eta tirokatu egin zuten. Egund ostatu itxia dago. JOSEBA ZABALZA / GOGOANHARTZEKOIZENAK.BLOGSPOT.COM

bakita geneukan Kanpazar uztea eta Arrasatera jaitea bizitzera, eta han beste jatetxe bat zabaltzea. Urte hartako azaro aldera ginen joatekoak, eta ilusio handia nuen nik. Orduan goizetan gure aitak jaisten gintuen ikastolara, eta amama baten etxean bazkaltzen

tzen tabernara, eta aita lurrean ikusi nuen, odoletan». Seme-alaben artetik Olatzek du aitaren oroitzapen gehien. Aitorrek 8 urte zeuzkan, eta ez da gauza askoz akordatzen. Ainhoa (44 urte) «ezertaz ez», 4 urte zituelako.

«Ez dugu amore emango»

Espainiako Estatuak berehala itxi zuen hilketaren kasua, eta gaia hamarkadatan geldirik egon zen, harik eta duela hamabost urte pasa sendiak biktimatzen onartzeko eskaera egin zuen arte Barne Ministerioan. Ezezkua. Auzitegi Nazionalera ere jo, eta ezezkua. «Eskatu biktima gisa onartzeko eta ezetzak jasotze hau berriro hiltzea bezala da», salatu du Aitorrek. «Gainera, frogak egon arren, esatea ez dagoela halakorik, ezin dela hartu terrorismo ekintza baten moduan... Barrua mugiarazten dizute biktimen legea—eta aterata, animatzen zara eskaera egitera, eta zertarako eta berriro beste kolpe bat jasotzeko ezezkoekin».

Aitorrek dio ez dutela etsiko. «Ez dugu amore emango gu biktimatzen aitortu arte. Badakigu oso zaila dela. Eta hori baino zailagoa da hilketa bera argitzea; ezinezkoa da, estatuak ez duelako bere buruaren kontra egingo».



Erasoengatik beldurra zegoen eta Arrasatera bizitzera joateko erabakia hartu genuen. Lehenago hil zuten aita»

Olatz Etxabe

Iñaki Etxabe zenaren alaba

«Barrua mugiarazten dizute biktimen legea aterata, zertarako eta eskaera ostean beste kolpe bat jasotzeko»

Aitor Etxabe

Iñaki Etxabe zenaren semea

genuen. Arratsaldean, berriro ikastolara, eta ondoren aitarekin igotzen ginen Kanpazarrera. Asteburu osoan, han. Banuen, beraz, lagunekin—eta denbora gehiago pasatzeko gogoan. Arrasatera bizitzera jaitsi aurretik hil zuten aita».

Atzo 40 urteko gau hartan Iñaki Etxaberen emaztea eta hiru umeak ohean zeuden. 23:00etan tirokatu zuten. Esmatuta zegoen Olatz. «Ohean lo ezin hartuta nengoen, eta entzun nituen tiroak. Jaitsi nin-

Konstituzionalera jotzen ari dira kalte-ordainak ukatu dizkieten biktimak

GAL, BVE eta Triple Aren biktimei babes ukatu diete ETAko kide izan zirela edo «ETAren inguruarekin» lotura izan zutela argudiatuta

• Hori frogatuko lukeen epairik ez du behar izan Barne Ministerioak

Jokin Sagarzazu Donostia

Espainiako Auzitegi Konstituzionaleran hasi dira jasotzen GAL, Batallón Vasco Español (BVE) eta Triple A talde parapolizialen indarkeriaren biktimei babes helegiteak, Espainiako Gobernuak biktima gisa dagozkien kalte-ordainak ukatu dizkielako. Irailaren 24an haietako zortzik egin zuten eskaera, eta datozen asteetan gauza bera egingo dute beste hainbatek.

Espainiako Gobernuak, denora, 46 biktimari ukatu zizkien laguntzak iaz, denak talde parapolizialekin edota Espainiako Estatuak bultzatutako gerra zikinarekin loturiko taldeen indarkeriarenak. Pertsona horiei, ordura arte haietako batzuei gertatu ez bezala, kalte-ordainak eskuratzeko eskubidea kendu zien Barne Ministerioak, ETAko kide izan zirela edota «ETAren inguruarekin» lotura izan zutela argudiatuta. Erabaki horren aurka helegitea jarri zuten aurrena ministroan bertan, eta administrazioaren ezezkoa jaso ostean jo zuten auzitara, Espainiako Auzitegi Nazionalera. Uztailean, kasu gehienak -GALekin lotutakoak, bereziki- atzera bota zituen auzitegi horrek, Barne Ministerioaren irizpidearekin bat eginda. Biktima horietako batzuek Auzitegi Gorenean jarri dute helegitea; hori egin dute 600.000 eurotik gorako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dutenek. Besteek Auzitegi Konstituzionalera joko dute.

Konstituzionaleran aurkeztutako babes helegiteetan, biktima horien abokatuek argudiatu dute euren bezeroen oinarriko eskubideak urratu direla. Epai irmorik gabe Espainiako Gobernuak ETAko kide edo gertukotzat jotzeak errugabetasun printzipioa urratu duela, bereziki, baina baita kasu horietan ere urratu egin direla babes judiziala, prozesuen legezotasun printzipioa eta botereen banaketa.

Espainiako Gorteek 2011n onartutako Terrorismoaren Biktimei Aitortzarako Legea oinarri hartuta, duela bi urte, lau bat mila pertsonak eskatu zituzten laguntzak Espainiako Gobernuari. Ia denei onartu zituzten eskaerak, aipatu 46 horiei izan ezik.

Estatu indarkeriarekin loturiko biktimei eskubideen alde lan egiten duten taldeek salatu zuten, dirua ez ezik, biktima izaera ukatu nahi die Espainiako Gobernuak hala, baita gerra zikinarekin loturiko gertakarietan ustez izandako erantzukizunak ezkutatu ere. Auzitegi Konstituzionalaren esku ere badago, beraz, kalte-ordainerako eskubidea bermatzeaz gain, horren guztiaren aitortza egitea edo ez.

Polizien txostenak, «froga» 2011ko legearen arabera, Espainiako Gobernuak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie talde parapolizialen indarkeriaren biktimei ere. Urtebetera, PP Espainiako Gobernura iristearekin batera, ordea, legea aldatzeko prozedura

Aurrez laguntzak jaso zituzten hainbatek, baina, PP Madrilgo gobernura iristearekin batera, irizpideak aldatu zituzten

abiatu zuen -2014n sartu zen indarrean -, biktimei kalte-ordaina jasotzeko zenbait baldintza gehituta. Europako hitzarmen bat erabili zuen horretarako: Indarkeria Delituen Biktimei Kalte-ordainei Buruzko Europako Hitzarmena.


Arau horren zortzigarren artikulua arabera, kalte-ordainak murriztu edo ken daitezke biktimak edo kalte-ordainaren eskatzaileak indarkeria delituak egin baditu edo horiek egiten dituen erakunde batean parte hartzen badu. Hori egiaztatuta dagoen kasuetan, biktimei senideek ez dute kalte-ordainak jasotzen. Eta hori da, hain zuzen ere, auzi honen muinean dagoena.

Espainiako Gobernuaren erabakiaren berri izan eta gutxira, Eusko Jaurlaritzako Biktimei eta Giza Eskubideen Idazkaritzak txosten bat eskatu zion EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologia Institutuari. Ignacio Muñagorri eta Ana Isabel Perez Machio ikertzaileen arabera, Espainiako Barne Ministerioak hartutako erabakiak ez du oinarri juridikorik, konstituzionaltasun ikuspuntutik zalantzarazkoa da, eta prebikazio administratibotik ere gertu egon daiteke.

Kriminologian, adituak ez dade ados gobernuaren jarduteko moduarekin. Azpimarratu dute nazioarteko hitzarmen horren zortzigarren artikulua sakon aztertu behar dela, eta salatu dute Barne Ministerioak Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaren txostenak erabili dituela kalte-ordainak kentzeko, biktima horiek «ETAren inguruarekin nahasteko». Ikertzaileen arabera, polizia txostenek ez dute «funts juridiko nahikorik» herritar bati delitu bat leporatzeko. Gainera, gogoratu dutenez, hitzarmenaren artikulua horrek ere ezinbestekotzat jotzen du epai irmo bat egotea biktima bati diru laguntzak kentzeko.

Jaurlaritzak eskatutako ikerketan, bost kasu aztertu zituzten -izenak eman ez zituzten arren, tartean da GALEk bahitu, torturatu eta hildako Joxean Lasa edo Joxi Zabala, bietako bat-. Kasu bakar batean ez dago epai irmorik frogatuko lukeena pertsona horiek lotura dutenik ETArekin edo haren inguruarekin.

Horrekin batera, ikertzaileek azpimarratu zuten biktimei legea -beste edozein lege bezala- ezin dela atzerako eraginarekin aplikatu. 2012an, Espainiako Gobernuak bat egin zuen Europako hitzarmenarekin, eta, beraz, data hori baino lehen diru laguntzak eskatu zituzten biktimei ezin die eragin irizpide berriak.



Egiari Zor fundazioan biltzen dira estatu indarkeriaren biktima batzuk. M. V./ARP

Urtea amaitu aitzin aurkeztuko du lege berria Jaurlaritzak

Talde parapolizialen eta oro har Espainiako Estatuaren indarkeria pairatu duten biktimei ETAren biktimei ematen zaien babes juridiko eta instituzional bera eman nahi die Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, lege proposamen bat aurkeztuko du urtea amaitu aurretik. Orain arte, aurreko gobernuak landu eta 2012tik indarrean sartu zuen dekretu baten bidez ari ziren laguntzen biktima horiek -1960. eta 1978. urte artekoak soilik-, baina dekretu horren zati bat -diru laguntza batzuei dagokiena- baliogabetu egin zuen apirilean EAEko Auzitegi Nagusiak, Estatu Abokatutzaren helegite bat aintzat hartuta.

2012 amaieran, biktimei laguntzei dagokien legea aldatu, eta Europako itun hori txertatu zuen Espainiako Gobernuak. Justu, biktimei kalte-ordainak eguneratzeko epea zabaldu bezperan. Biktima horietatik gehienek ozta-ozta izan zuten epe horren berri.

Aurrez ere, 2000. urtean, kalte-ordainak eskatu zituzten gerra zikinak eraginako indarkeriarekin loturiko zenbait biktimak, baina ez gehienek; eskaera egin zutenek arazorik gabe jaso zuten zegokien ordaina; hildako bakoitzeko, hogei milioi pezeta inguru (120.000 euro inguru), erantzukizun zibil gisara. 2012an, kalte-ordainaren kopurua eguneratu zuen Espainiako Barne Ministerioak. Biktimei ordaindu beharreko laguntza handitu zuen, eta, aurrez eskatu ez zutenei alde hori eskuratzeko aukera eman zien. Aurrez ordaina jaso zutenetako askok ere egin zuten eskera.

Erandion hilik agertutako andrearen bikotekidea atxilotu du Ertzaintzak

Ustezko hiltzailearen etxean topatu dute gorpua • Euskal Herrian aurten indarkeria matxistaren ondorioz hildako hirugarren andrea da • Bilboko Udalak elkarretaratzera deitu du gaurko 13:00etarako

Jone Amonarriz - Arantxa Iraola

Leioan atxilotu zuen bart Ertzaintzak Erandion (Bizkaia) hilda agertutako emakumearen bikotekidea, hilketaren egotzita. Goizaldean aurkitu zuten Almudena Matarranzen gorpua, bikotekidearen eta haren amaren etxean, indarkeria zantzuarekin. Arrastorik utzi gabe ihes egina zen gizona larunbatz geroztik. Eta atzo arratsaldean atxilotu zuten, azkenean, Leioan. Biktimak 39 urte zituen, eta Bilbon bizi zen. Aurten Euskal Herrian genero indarkeriaren ondorioz hil den hirugarren andrazkoa da.

Emakumearen desagertapenaren inguruko salaketa jarri zuen igandean biktimaren senide batek. Ertzaintzari adierazi zion larunbat arratsaldeaz geroztik ez zutela haren berririk. Orduan hasi ziren andrazkoaren bila, eta segituan jakin zuten hildakoaren bikotekidea ibilgailu batean ihes egina zela. Bilaketa prozesu horretan aurkitu zuten emakumearen hilotza. Haren bikotekidearekin harremanetan jartzeko egindako saio guztiak antzuak izan baziren ere, arratsaldean aurkitu zuten, Leioan. Atxiloturik dago geroztik, hilketaren egilea delakoan. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arabera, gizonak ez du aurrekaririk.

Bestalde, atzo goizean, atxilotuaren ama eraman zuten hilotza aurkitu zuten etxera -bera ere hor bizi baita-, baina Ertzaintzak argitu du emakume horri ez diotela deliturik leporatu.

Gaitzespen mezu ugari

Atzo goizean, Emakundek baieztatu zuen Erandioko kasua hilketaren matxista zela, eta, ordutik, hamaika arbuio adierazpen kaleratu dituzte; bai herritarrek, bai erakundeek. «Samina eta ezin ulertua» agertu zituen Bilboko Udaleko Bozeramaleen Batzordeak. Urgentziaz bildu ziren arratsaldean, eta adierazpen bat kaleratu zuten gertatutakoa gaitzes-teko. Matarranzen hilketaren



Ustezko hiltzailearen eta haren amaren etxebizitzan topatu zuten, atzo, biktimaren gorpua, Erandion. LUIS TEJIDO / EFE

«indarkeria matxistaren adierazpiderik larriena» dela adierazi zuen, baina emakumeen aurkako jarrera eta adierazpen guztiak gaitzetsi behar direla. Elkarretaratzea egingo dute gaur 13:00etan, Bilboko udaletxearen aurrean.

Protesta deialdiekin bat egin, eta horrelako indarkeria kasuen aurrean sentitzen duten «nazka eta gaitzespena» adierazteko eskatu die Emakundek herritarrei:

AURTEN HILDAKOAK

Euskal Herrian aurten indarkeria matxistaren ondorioz hildako hirugarren emakumea da Almudena Matarranz. Hiru krimen horiez gain, martxoaren 4an, ama-alaba batzuk hilik agertu ziren Tarnosen (Okzitania). Baionako ospitaleko langilea zen ama. Astebete geroago, espetxean urkatutik agertu zen ustezko hiltzailea, alabaren bikotekide ohia.

Maria Ana Prunar. Apirilaren 2an, 29 urteko emakume bat hil zuen haren bikotekideak Gasteizen, la-bankadaz. 34 urteko gizonetakoak

«Indarkeria matxista emakumeen aurkako mehatxu tresna bat da, egun indarrean dauden genero arauak aldatu ez ditzaten». EAEko Arartekoak dei egin die «euskal erakunde guztiei eta gizarte osoari» berdintasun politikan lan egiten jarrai dezaten, eta «berdintasuneko kultura sustatzen eta balio nagusitzat genero berdintasuna hartzen duen hezkuntza eredua» bultzatzen. Eudelek eta Bizkaiko Foru Aldun-

berak hil zuela aitortu zien kalean zeuden ertzain batzuei, eta atxilo hartu zuten berehala.

Leire Rodriguez. Abuztuaren 8an, 34 urteko emakume bat hil zuen ustez haren senar ohiak Bilbon. Egunak behar izan zituzten kasua argitzeko; izan ere, gizonetakoak etxean hil zuen andrazkoa, eta, gero, hilotza topatu zuten lekura eraman zuten gorpua, ustez, beste pertsona baten laguntzaz. Auto istripua izan zela zabaldu zen hasieran. Biktimaren senar ohi bere buruaz beste egiten saiatu zen Ertzaintzak deklaratzera deitu zuen egunean.

diak ere hilketaren «irmoki» gaitzetsi dute.

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak, berriz, «amorrua, nekea eta haserre» adierazi ditu. Elkarretaratzera deitu dute gaurko: 19:30ean, Erandioko Astrabudua auzoko Josu Murruta plazan. Mugimendu feministak bihar egingo ditu gainerako protestak.

Bi atxilotu Gasteizen

Bi gizon atxilotu dituzte Gasteizen euren bikotekideak jotzea egotzita; 21 urtekoa bata, eta 26 urtekoa bestea. Aurpegian kolpe handia zuela topatu zuen Ertzaintzak bi emakumeetan lehena, larunbatean. Udaltzainei esan zien ez zuela bikotekidea salatu nahi, baina, lekukotasunak entzun ondoren, atxilo eraman zuten. Igandean izan zen bigarren eraso; lekuko batek udaltzainei ohartarazi zien bikotekideak eztabaidan aritu ondoren borrokan hasi zirela. Gizonak aurpegian jo zuela azaldu zuten emakumeak polizia. Bi emakumeak erietxean artatu behar izan zituzten.

18 urteko kartzela zigorra bikotekidearen alaba hil zuen gizonarentzat

J.A.

2013an Barakaldon (Bizkaia) bikotekidearen alaba hil zuen gizonari 18 urteko zigorra jarri diote. Buruan jasotako kolpeen ondorioz hil zen 3 urteko umea. «Azpikeriazko hilketaren» egotzi dio Bizkaiko Auzitegiak gizonetakoari, haurrak bere burua defendatzeko eta erasoari aurre egiteko aukerarik ere ez zuelako izan.

2013ko urriaren 3an bikotekidearen alaba eskolan jaso eta etxera eraman zuen gizonak. Handik ordubetera, larrialdi zerbitzuetara deitu zuen laguntza eske, esanez umea eskaileretan behera erori zela; medikuek ezin izan zuten neskatoaren bizia salbatu. Aste batzuetara, ordea, ikerketak azaleratu zuen heriotza ez zela istripuz gertatu. Perituek epaiketan berretsi dutenez, neskatoaren zauriak ez zetozen bat erorketarekin. Haien ustez, gizonak «umearen burua masailezur azpitik heldu eta hormaren aurka jo zuen, bi aldiz gutxienez».

Kalte-ordaina gurasoei

Hiltzaileak biktimaren gurasoei ordaindu beharreko kopuruak zehaztu ditu Bizkaiko Auzitegiak: haurraren amari, 105.133 euro, eta aitari, 76.460. Iragan astean herri epaimahaiak «aho batez» deklaratu zuen neskatoaren ugazaita izan zela hiltzailea; «nahi gabe» egin zuela, baina bazekiela «eraso horien emaitza zein izan zitekeen». Baieztapen horretan oinarrituta, besteak beste, epailek 18 urteko kartzela zigorra ezarri dio hiltzaileari; ekintza «zinez bortitza» izan zela adierazi du, eta zigor hori «egokia» dela.

Aitzol Gogorza preso aske uzteko eskatu du Eusko Legebiltzarrak

Gaixotasun larria duenez preso «arrazoi humanitarioengatik» libre uztea galdegin dute EH Bilduk eta EAJk • PSEk eta PPK, aurkako botoa eman, eta epailearen erabakiak errespetatzeko eskatu dute

Edure Begiristain Gasteiz

Aitzol Gogorza larriki gaixorik dagoen euskal presoak aske beharko lukeela aldarratu du Eusko Legebiltzarrak. «Arrazoi humanitarioak» aintzat hartuta egon beharko luke libre, EH Bilduk eta EAJk adostutako testuak dioenez. Errenteriako preso (Gipuzkoa) askatzea eskatzeko bat egin dute bi taldeok Giza Eskubideen Batzordean, eta preso diren pertsona guztien giza eskubideak bermatzeko eskatu diete administrazio publikoei. Halaber, gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoentzat «konponbide humanitarioak» izango dituen espetxe politika bat galdegin dute. PSEk eta PPK kontrako botoa eman diote ebazpenari.

Modu horretara, joan den maiatzean Errenteriako alkate Julen Mendozak eta euskal presoaren psikiatra Aintzane Intxaustik egindako eskaera bere egin du legebiltzarrak. Orduan, presoaren egoera larriaz ohartarazi eta haren askatasunaren aldeko ebazpen bat onartzeko galdegin zioten ganberari. EH Bilduk biharramunean bertan erregistratu zuen legez besteko proposamena. Julen Arzuaga EH Bilduko legebiltzarkideak gogoratu du euskal presoaren osasun egoera muturrekoa dela, eta aldiro ospitaleratu behar izaten dutela. Izan ere, Gogorzak gaitz larria du –nahasmen du obsesibo-kompulsiboa, sintoma psikotikoen nahastuta– eta espetxe barruan haren osasun egoerak okerrera egin du, «atzeraezin» bilakatzeraino. Bere buruaz beste egiten saiatu da maiz.

PSEren eta PPren jarrera salatu du Arzuagak legebiltzarreko saioan, gogoratuta larunbatean Errenteriako Udaleko alderdi guztiek euskal preso askatzeko galdegin zutela manifestu batean. Ebazpena aho batez onartu ez izana deitoratu du, berriz, EAJko Iñigo Iturratek, eta PSEri «ausar-

diaz» jokatzeko eskatu dio: «Giza eskubideak unibertsalak dira eta kasu guztietan defenditu behar dira». PSEko Patxi Elolak, bestalde, bere taldearen jarrera defenditu du argudiatuz alderdiaren «jarrera ofiziala» legedia eta epailearen erabakiak onartzea dela eta kontuan hartu behar dela Gogorza «ETAko kide izateagatik

PSEk dio presoaren eskubideen inguruan duen «jarrera ofiziala» legedia eta epailearen erabakiak betetzea dela

eta legea urratzeagatik» dagoela kartzelan. PPKo Carmelo Barrioren ustez, berriz, «beldurgarria» da EAJk eta EH Bilduk halako akordioetara sarritan iritea.

Askasibar, libre

Bixente Askasibar preso bilbotarra aske utzi zuten atzo, zortzi urteko espetxe zigorra osorik bete ostean. 18/98 sumarioan zigortu

zuten, *Enpresak* atalean. 74 urte dauzka eta Topaseko (Salamanca, Espainia) espetxean egon da preso. Adinagatik eta osasun arazoengatik Euskal Herriko espetxetara hurbiltzeko eskatu izan du, baina ez dizkiote eskariak kontuan hartu.

Amaiurrek, bestalde, presoaren zigorrei buruzko Europako araudia ez betetzearen arazoiez galdetu dio Espainiako Gobernuari. Koalizioak jakin nahi du zer dela eta ez dion Madrilak bidali Europako Batzordeari honek eskatutako informazioa. Izan ere, hiru garrenez eskatu dio Europako Batzordeak Espainiari 2008ko araudia betetzeko eta presoari Frantziako espetxetan betetako urteak murrizteko.

Donostiako epaitegi batek, al-diz, bertan behera utzi du Zarauzko Udalak (Gipuzkoa) 2014an Herreraren elkarteari emandako 2.500 euroko diru laguntza. Laguntza horrek udal eskumenak urratzen zituela argudiatu du epaitegiak.

Elkarbizitza lantaldea taldeekin bildu gabe aurkeztuko du PPK

Erredakzioa Gasteiz

Bakearen eta bizikidetzaren inguruko elkarrizketak geldituenetik irten daitezke Eusko Legebiltzarrean. Izan ere, azken egunotan izan dira hainbat mugimendu eta eman dira zenbait pauso. Joan den ostiralean, EAEko PPko presidente Arantza Quirogak Askatasuna eta Elkarbizitza izeneko lantalde bat osatzera deitu zituen talde guztiak, eta ontzat jo zuen EH Bilduko agintariek nabarmendu izana «bide okerrera indarkeria» dela. Hasier Arraiz EH Bilduko legebiltzarkideak bilera baterako eskua luzatu zion gero Quirogari,

«lehenbailehen elkarrizketarako bidea prestatzeko».

Atzo, bakean aurrera egiteko bestelako lantalde bat abian jarritza beharrezkotzat jo zuen Nerea Llanos PPko idazkari nagusiak ere, baina proposamena Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dela zehaztu zuen, aurretik gainerako indar politikoen batzartu gabe. PPK ez duela «batzuen eta besteen jokoetan» parte hartuko argudiatu zuen Llanosek elkarrizketak baztertzeko. Gaur bertan aurkeztuko du PPK Askatasun eta Elkarbizitzaren lantaldea sortzeko proposamena.

Halaber, Llanosek zehaztu zuen EH Bilduk egindako adie-



Gogorza aske uzteko eskatzeko egindako bilkura bat. ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

heldulekurik ba ote duten jakin nahi du Egibarrek. Horrekin lotuta, azpimarratu du «bateraezina» dela eskubide guztien defentsa egitea iraganari begirada kritikorik egin gabe.

UPDk, berriz, PPri esan dio bizikidetzaren bermatzeko ez dela behar inolako lantalderik, «legea betetzea eta Zuzenbide Estatua errespetatzea baizik».

Topaketak bakearen alde

Cultura de la Paz Fundazioak bakea eta bizikidetzaren inguruan antolatutako topaketak egiten ari dira atzotik: lehen zatia Donostian egin zuten atzo, eta segida izango dute gaur Madrilan. Jaur-laritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari Jonan Fernandez eta Giza Eskubideen zuzendari Monika Hernando parte hartzen ari dira. «Bizikidetzaren normalizazioa» sustatzeko asmoz egiten ari dira topaketak.

razpenak «hitzetatik haratago» ikusi nahi dituela eta «edukietan» islatu behar direla. Arraizen adierazpenak «norabide egokian» doazela aitortu zuen Llanosek, baina ohartarazi zion iraganaren gaitzespena ezinbestekoa dela aurrera egiteko, «historia ez delako gaur hasten».

Lantalde berria sortzeko PPren proposamena, baina, hotz hartu du EAJk. Joseba Egibar taldeko bozeramaileak susmoa dauka «itxura» besterik ez dela, eta uste du PPK «espazio jakin batean» kokatzeko duen beharrari erantzuten diola egindako proposamenak. «Hitz ederrez» haratago, batzuek eta besteek esandakoak

Erabakitzekeo eskubideaz osoko bilkura egingo du parlamentuak

EH Bilduk aurkeztutako ekinaldiarekin bat egin dute Geroa Baik, Ahal Dugu-k eta Ezkerrak • UPNk dio autodeterminazioari buruzkoa dela

Joxerra Senar Iruñea

Oraindik ez dago egun jakinik, baina urriaren amaieran edo azaroaren hasieran izatea espero da. Lehen aldiz, erabakitzekeo eskubideari buruzko osoko bilkura berezia eta monografikoa egingo du Nafarroako Parlamentuak. EH Bilduk aurkeztutako proposamenari baiezkoa eman zioten atzo Eledunen Batzordean Geroa Baik, Ahal Dugu-k eta Ezkerrak. PPK eta UPNk kontra bozkatu zuten, eta, ekinaldiarekin kritiko azaldu arren, PSN abstenitu egin zen. Arlo ekonomikoan, sozialean eta politikoan herritarrek duten erabakitzekeo eskubidea eta parte hartzea aztertuko ditu bilkurak.

Adolfo Araiz EH Bilduko bozeramaileak adierazi zuen herritarrek denbora daramatela egungo demokrazia ereduak gainditzeko eskatzen. «Parte hartzearen lege berri bat behar da, akordio programatikoa jasota dagoen bezala». EAE eta Nafarroaren arteko bat egiterik nahi al den galdetuta, Araizek zehaztu zuen Nafarroak, «subjektu politiko gisa, erabakitzekeo eskubidea» duela. «Bizkaiarekin, Gipuzkoarekin eta Arabarekin ditugun harremanei begira horrek zer dakarren planteatzeko dago oraindik», gaineratu zuen.

Geroa Baiko Koldo Martinezek esan zuen ostiralean aldetaren aldeko lau alderdiek egindako bilera batean hitzartu zutela proposamena babestea. Martinezek adierazi zuen eztabaida garrantzitsua dela, «gehiengo sozialearen aldarrikapena den heinean». Oposizioko alderdiei aurre egingez, esan zuen ez dela Nafarroaren nortasuna auzitan jartzen, lurraldearen nortasunaren gakoak «haren aniztasuna delako».

Ahal Dugu-ko Tere Saezek esan zuen erabakitzekeo eskubidea «demokratikoa» dela. Beste ekinaldi batzuen artean, herri ekinaldi legegileak eta komunikabide publikoen demokratizazioa aztertu behar direla adierazi zuen.

Aldiz, UPNko Jose Javier Esparza oso kritiko azaldu zen. Haren ustez, proposamena defenditzen dutenek «argi» hitz egin behar ko lukete eta «esan autodeterminazio eskubideari buruzko osoko bilkura» izango dela. «Nafarroa Kataluniaren bidetik joatea nahi dute», salatu zuen, eta gaineratu «erabakitzekeo eskubidearen oso gainetik» elkarbizitza dagoela.

PSNko Maria Txibite ere kritiko azaldu zen, eztabaidak «ez baitu zerikusirik kaleko jendearen kezekin». Dena den, ez diote ezezkorik eman nahi eztabaidari, eta horregatik abstenitu ziren.

Irudia • Iruñea



Esparzak zuzendutako lehen bilera

Astebete pasa darama UPNko presidente moduan, eta Jose Javier Esparzak atzo izan zuen lehen zuzendaritza bilera. Datorren urteko ezohiko kongresura begira behin-behineko presidente izendatu zuen irailaren 27an alderdiko batzarrak. Trantsizio epe horretan erabaki garrantzitsuak hartu beharko ditu UPNk, ordea: hauteskundeetan bakarrik aurkeztu edo PPrekin aliantzan. Esparzak atzo esan zuen bakarrik aurkeztuta «erabateko askatasunez» defenditu ahalko dituela bere jarrerak UPNk. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS



LEKEITIOKO UDALA

IRAGARKIA

Lekeitioko Kostaldean egin beharreko lanak itsasertza egonkortzeko proiektua eta berarekin loturiko ondasun eta eskubideen zerrenda: Behin betiko onarpena, larritasuna aitortzea eta ondasunak okupatzeko premia

Lekeitioko Udalaren 2015eko irailaren 24ko Osoko Bilkurak, erabaki hau hartu du: Lekeitioko Kostaldean egin beharreko lanak itsasertza egonkortzeko proiektua behin betiko onartu, baita ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda. Erabaki horren barmuan sartuta dago erabilera publikoaren aitortpena eta berarekin okupatzeko larritasuna eta beharrazana. Era berean, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egiten zaie, alde zuzeneko aktak egiteko.

Honen berri ematen da, guztiak jakitun geratzeko.

Lursail zbkia.	Katastro datuak	Eragindako ondasunaren ezaugarri eta erabilera	Jabearen izena	Erregistroko datuak	Afektazioa	Okupazioa (m2)	Eguna/Ordua
1	Lur eremua 001 zatia 384	Landa lurra	Aitor Arizmendiareta Irizola, Ana Pilar Arieta Bereciartua	2901 finka, 556 liburua, 164 liburukia, 92 folioa	Jabaria	302,58	Urriak 14/14:30
2	001 385	Landa lurra	Aitor Arizmendiareta Irizola, Ana Pilar Arieta Bereciartua	2901 finka, 556 liburua, 164 liburukia, 92 folioa	Jabaria	324,00	Urriak 14/14:00
3		Kalea	Lekeitioko udala		Jabaria	459,00	
4	001 398	Landa lurra	Ana Llasera Basterra	2068 finka, 512 liburua, 152 liburukia, 170 folioa	Jabaria	1.952,65	Urriak 14/13:00
5	001 399	Landa lurra	Lekeitioko Udala		Jabaria	141,24	
6	001 672	Landa lurra	Daniel, Francisco, Guillermo eta M ^o Teresa Olaortua Uribarren, Ana Isabel, Fco. Javier, Jose Ignacio, M ^o Carmen, M ^o Pilar eta Miguel Olaortua Laspra	10228 finka, 703 liburua, 213 liburukia, 123 folioa-10229 finka, 703 liburua, 213 liburukia, 127 folioa	Jabaria	381,21	Urriak 14/12:00
7	001 673	Landa lurra	Lekeitioko udala		Jabaria	732,77	
8		Hiri lurra	Lekeitioko udala	10232 finka, 703 liburua, 213 liburukia, 134 folioa-10233 finka, 703 liburua, 213 liburukia, 138 folioa	Jabaria	1.112,20	
9		Hiri lurra	Lekeitioko udala		Jabaria	210,49	
10	001 674	Landa lurra	San Juan Talako 8 Jabe Erkidegoa		Jabaria	147,36	Urriak 14/11:00
11	001 675	Landa lurra	Aboitz Sesma neba-arrebak, Angel Sesma Izagirre, Jose Sesma Urquiaga	9139 finka, 539 liburua, 159 liburukia, 133 folioa	Jabaria	323,22	Urriak 14/10:30
12		Hiri lurra	Lekeitioko udala		Jabaria	230,84	
13		Hiri lurra	Aboitz Sesma neba-arrebak, Angel Sesma Izagirre, Jose Sesma Urquiaga		Jabaria	104,62	Urriak 14/10:30
14		Kalea	Lekeitioko udala		Jabaria	755,77	
15	001 676	Landa lurra	Azpiri Arana neba-arrebak	2049 finka, 477 liburua, 143 liburukia, 64 folioa	Jabaria	718,41	Urriak 14/10:00
16	001 443	Landa lurra	Lekeitioko udala		Jabaria	212,63	

Lekeition, 2015eko urriaren 2an
Koldo Goitia Markuerkiaga, Lekeitioko Udaleko alkatea



LEMOIZKO UDALA

IRAGARKIA

2015eko urriaren 2an, 190.zk.ko "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean", argitaratu da Lemoizko Udalaren iragarki bat; iragarki hori Lemoizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren bidez udal Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioak berrikusteko udal ikasketa eta aholkularitza-lanak lizitzatzeko prozedura irekiaren deialdiari buruzkoa da. Proposamenak aurkezteko epea 2015eko azaroaren 2an amaituko da, arratsaldeko 14:00etan. Hau guztia jendaurrea azalduko da jende orok jakin dezan.

Lemoizen, 2015eko urriaren 2an. ALKATEA, Unai Andreaka Casimiro.

Erosi berria

Mauka
berria

www.euskalherriko
plaza.com



Gure online dendetako
eskaintzak

mauka.eu

Euskal Herriko kalitatezko produktuak
ekoizlearen eskutik mundura

Bidalketa gastuak, doan



ARDO ONDUA (2012)

€ **A+1** Iñiguez de Mendoza
upategiak 3 botilako kutxa

ARDO ONDUA (2012)

€ **A+1** Iñiguez de Mendoza
upategiak 6 botilako kutxa



Ezaugarriak:

Ardo mota: Ardo beltz ondua.
UZTALDIA: 2 012a, oso ontzat joa.
ARDO ONDUA 12 hilabeteen ondua, 225 litroko haritzeko barrika bordelesetan.
%90 Ameriketako haritzean eta %10 Frantziako haritzean.
%10 haritz berriko barriketean.
Mahatsa: %100 tempranilloa.
Alkohol graduak: %13,85 vol

Dasta Fitxa:

Begian: gerezi kolorea. Itxura garbi eta distiratsua, geruza ertain-gorena.
Sudurrean: garbia, ezagun ditu zur nobleen zantzuak, eta banilla- eta txigortu-aroma nabari zaio, fruitu gorri helduen eta baltsamo-antzekoen gainetik.
Ahoan: leunki sartzen da, belusezko ukituz igarotzen; fruitu gorrien tantoak sumatzen dira zur nobleetan. Amaiera atseginekoa, baltsamo baten moduko zapore-ondo luzekoa.

Eskaera egiteko:

- Urriaren 7ra arte
- www.euskalherrikoplaza.com
- BERRIALaguna bazara, deitu: 943-30 43 45 edo idatzi: harpidetza@berria.eus

Eskaintza eta planik onenak egunero



eskaintza berezia **90,00€**

POSADA EL CAMPO
SEKADURA - KANTABRIA

Kantabrian gau bat giro ezin hobean bi pertsonarentzat.

- 1. aukera. Prezioa: 90 €
- Gau bateko egonaldia, afaña eta gosaria.
- 2. aukera. Prezioa: 130 €
- 1. aukera + bigarren gau bat gosariarekin.



eskaintza berezia **29,90€**

EL MESON DE TXURDINAGA
BILBO - BIZKAIA

Menu erakargarria bi pertsonarentzat Bilbon

- Lehen platerak
Ahate mousse berezia • Ortiz hegaluzea eskabetxean tipularekin, pikillo piperrekin eta oliba olio birjinarekin • Antxoak oliba olio birjinaz prestatuak eta pikillo piperrekin.
- 6 Bigarren platerak aukeran:
• Askotariko etxeko postreak.
• Edariak: botila bat bi pertsonarentzat




eskaintza berezia **7,00€**

BEIGORRI ABENTURA PARKEA
IRUÑEA - NAFARROA

Aske sentitu zaitez basoan, zuhaitzen adarren artean ibiliz!

Esperientzia berezi bat biziko duzu Beigorri Abentura parkeko zuhaitz zirkuituetan!




eskaintza berezia **19,00€**

ILABORA FORMACIÓN S.L.
IXON - ASTURIAS

Oinarrizko argazkigintza digital ikastaroa

- Argazkigintzaren gaineko oso ezagutza apala duten pertsonentzako ikastaro egokia.
- Ikastaroaren iraupena: 10 ordu.



eskaintza berezia **13,00€**

ARRAUNING
ISLA - KANTABRIA

Traineru batean Urumean!

- Donostian plan eder batez gozatzeko aukera: Urumeako bandera irabazil!
- Jardueraren iraupena 90-120 minutukoa da eta errekan gora edo errekan behera egingo da, marearen arabera.

Eskaera egiteko:

- www.mauka.eu
- Aukeratu eskaintza eta egin erosketak

berria
mundua·euskarari·emana

«Herri euskaldunetatik hasita, adostasunerako aukerak egon daitezke»

Josu Labaka • Uemako lehendakaria

Larunbatean izendatu zuten lehendakari, eta adostasuna aipatu zuen ardatz gisa Labakak. Herri euskaldunak horretarako bide izan litezke, haren ustez. Euskararen normalizazioan «lider» izatea dagokiela dio.

Garikoitz Goikoetxea Azpeitia

Ondo ezagutzen duen erakunde bateko lehendakari da larunbatuz geroztik Josu Labaka (Azpeitia, Gipuzkoa, 1978): Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko buru. Komunikazio arduradun aritu zen aurreko agintaldian. EH Bilduko zinegotzia da Azpeitian.

Adostasuna aipatu zenuen hasierako hitzaldian, eta zoru komuna eratzea. Zertan oinarritua?

Euskaldunok erronka potoloa daukagu, Uema bera eta udalak gaintzen dituen. Lortu beharreko adostasun eta bete beharreko printzipio bat dago: bigarren mailako biztanle izateari utzi behar diogu euskaldunok. Eskubide guztien jabe izan behar dugu, beste herritar guztiak bezala. Euskarà eta hizkuntza kontuak gaintzen ditu horrek: bizikidetzak kontua da. Gaur daukagun errealitatea gaintu egin behar da. Askotan, ikusten ez den errealitatea da, mahai gainean jartzea lortzen ez den errealitatea, baina badena. Euskaldunon hizkuntza eskubideak gutxietsita daude, errespetatu gabe; bazter guztietan zailtasunak daukagu. Hor adostasun zabal bat lortzeko arazorik ez luke egon beharko. Hortik abiatuta urrats praktikoak urgentziaz egiteko bide bat ireki behar da.

Alderdien arteko liskarra ikusirik, benetako aukerarik badago euskarari buruz ados jartzeko?

Orokorrean ez dut erraza ikusten. Udalerri euskaldunetatik abiatuta egon daiteke aukera bat. Udalerri euskaldunetako mapa politikoan gauden artean egon daiteke aukera bat bide bat irekitzen hasteko. Uemak badu bokazioa lider izateko. Ueman adostasunez gauza asko egin dira, eta horri eutsi behar zaio. Egia da, hala ere, adostasunak ezin duela helburu izan, eta dinamikak frenatu. Bultza egin behar da, eta bide horretan elkarlanerako atak irekita eduki.

Hiru herrj dudan daude Ueman jarraitu edo ez. Tolosak esan du herri txikiagoentzat baliagarria dela Uema, baina ez berarentzat. Zer du Uemak herri handientzat?

Herri handiek ere asko daukate Uemarentzat: beste sendotasun bat ematen diote. Uemak zer eskaintzen du? Tresnak, jakituria, esperientzia... Behar soziolinguistikoa jakinetan dauden herri horietan hizkuntza politika aurrerakoi bat eramateko bideak. Herri handientzat ekarpen ikaragarria da hori. Gainera, herri handientzat ere egokituta dago zerbitzua.

Itxaropenik baduzu herri gehiago mankomunitatean sartzeko?

Bai. Baldintzak badaude. Gero eta gehiago gara Ueman, eta espero dugu gehiago ere izango garela.

Iparraldeko udalerriak, noizko?

Ez dakit. Harreman bideak irekitzeko ditugu. Aurreko legegintzaldian ere saiatu ginen. Uemak mankomunitate izaera du, eta zuzenean sartzeko zailtasunak

«Eskubide guztien jabe izan behar dugu euskaldunok, beste herritar guztiak bezala. Bizikidetzak kontua da»

egon daitezke bi estatuen muga horietan. Formulazio horren gainera, elkarlanerako zubiak ireki daitezke. Horretara jarriko gara.

Arnasguneen lidergoa aipatu duzu. Nolako lidergoa litzateke?

Berez badira lider: baldintza soziolinguistikoa onenak dituzte, eta herritarrak nagusiki euskaraz bizi dira. Euskarak erabilerarako plaza du. Euskararen normalizaziorako planteamenduak egin direnean, leku kolpatuenetan jarri da fokua, euskarak zailtasun gehien dituen eremuetan. Gutxietsi gabe hor egin den eta egin behar den lana, uste dugu fokua zabaldu behar dela: tokian tokiko errealitatek abiatuta urratsak egin behar dira. Udalerri euskaldunen lider-

goa aldarrikatzen dugunean, ulertzen dugu bideak ireki behar ditugula, normalizaziotik gertu gauden herriak garela, eta bideak irekitzea dagokigula, atzetik datozeinei bultza egiteko eta hortik normalizaziora iristeko.

Arnasguneei dagokienez, nolako lan ildoak jorratu behar dira?

Lehenik, udaletatik abiatzen garen, uste dugu gai hauek euskararen departamentutik atera eta erdigunean jarri behar direla. Tresnak sortuta daude, bai hirigintzan, bai arloz arlo, euskara kontuan hartzeko. Gai transbertsala izanik euskara, zentralitatean kokatu behar da. Bigarrenik, herriz herri, tokiko euskalgintzarekin eta herritarrekin bideak ireki behar dira, esaten ari garenaz jabetzeko eta herritarrak ahalmentzeko. Hasita gaude tailerrak egiten, unitate didaktikoak lantzen...


Lege aldetik trataera berezia behar dute arnasguneek?

Bai. Behar soziolinguistikoa berezia dituzten kasuan, bai. Ez da berdin Azpeitia eta Balmaseda, edo Etxarri Aranatz eta Tuter. Euskaldunen eskubideek berdina izan behar dute batean eta bestean, baina behar soziolinguistikoa ezberdinak dauden neurrian, hizkuntza politikek ere ezberdinak izan behar dute. Seguru asko, horrek behar du lege babes edo markoa desberdina izatea.

Ziklo aldaketa aipatzen da euskarari dagokionez; besteak beste, belaunaldi aldaketa. Zeu zara horren adibide. Beste pauso bat emateko abagunea badago? Badago indarrak euskalgintzan?

Giro nahasi xamar bat dago. Ez dut ikusten norabide jakin bat eta indar handiz bultzatzen ari garen tren bat. Hori da egoera. Egin beharko genuke? Noski. Beste kontu bat da hori egiteko nola asmatzen dugun elementuak josten.

Carlos Urkijorekin izan dituzue arazoak, euskarazko aktak harira. Behar bezala erantzun zaio?



GOTZON ARANBURU / ARGAZKI PRESS

Gure ondoan egon diren eragileek ahal izan duten neurrian babestu gaituzte. Baina, seguru asko, erasoaren tamainak beste neurri bateko erantzuna beharko luke. Ez zait horrenbeste gustatzen Urkijori buruz hitz egitea. Estatuak daukan arazoa da hemengo errealitatea ez duela ikusten, ez duela onartzen edo ez duela ikusi nahi. Badaude udalerri euskaldun batzuk nagusiki euskaraz bizi direnak. Hori ukatu

egiten du: gure beharrak eta existentzia bera. Beti erdaldunen eskubideen defentsan dago, euskaldunok bigarren mailako egoeran gauden honetan. Epaitegitako zurrumbiltoa ez da ona, ez Uemarentzat, ez udalarentzat, ez euskararentzat. Hortik ateratzeko apustua egin behar da. Apustu bateratua izan behar du. Udal lege berriaren bidez-eta lege babes bat artikulatu behar da. Ezin da etengabe zalantzan egon.

ALOKAGAI

PASAI DONIBANE: Plazan bertan dagoen etxea. Alokagai eta salgai. 590 €

AMARA: Morlans: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650 €

ORIO: Hondartzan. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Garaje itxia. 800 €

SALGAI

LASARTE: 65 m². 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Garajea. Trastelekua. 139.500 €

AMARA: Azkena. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 207.000 €

AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Garajea nahi izanez gero. 156.000 €

AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 215.000 €

AMARA: Antxo Jakituna. Atikoa. 85 m². 3 logela, sukalde handia, egongela, 2 bainugela. Terraza. Oso polita. 395.000 €

AMARA: 85 m². 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 270.000 €

EGIA: Baztan. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 140.000 €

ANTIGUO: Apartamentu polita. Igogailua. Berritua. Igogailua. 180.000 €

PARTE ZAHARRA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 217.000 €

LARRATXO: Igogailua. 2 logela, sukaldea-egongela, bainugela. Bista politak. 135.000 €

INTXAURRONGO: 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kalera. 150.000 €

INTXAURRONGO: Bere sarrera propioarekin. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 115.000 €

MARTUTENE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Trenaren inguruan. 106.000 €

PASAI DONIBANE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Bistak. 150.000 €

LEZO: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Bista polita. 120.000 €

USURBIL: Duplex berria. Oso polita. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza handia. 199.000 €

ERRETERIA: Gaztaño auzoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 99.000 €

www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Parasitoen aurkako bi ikerketa saritu ditu Medikuntzako Nobel sariak

Campbellek, Omurak eta Tuk saria partekatuko dute, elefantiasiari, onkozerkosiari eta malariari aurre egiteko sendabideak lantzeagatik

Jon Rejado

Parasitoek eragindako gaixotasunak «mundu osoko osasun arazotzat» jo ditu Nobel sariak ematen dituen erakundeak, Suediako Karolinska institutuak. Eremu horretan egindako bi ikerketa saritu ditu aurten Medikuntzako sailak, malariaren eta zizareek sortutako gaitzen sendabideak «goitik behera» aldatzeagatik. «Kalkulaezina da aurkikuntza horiek osasuna hobetzen eta sufrimendua apaltzen izan duten eragina».

William C. Campbell irlandarra eta Satoshi Omura japoniarra saritu dituzte elefantiasiari eta ibaietako itsutasunari aurre egiteko sendabidea lantzeagatik. *Avermectina* izeneko droga antzeman zuen Omurak, ezaugarri bereziko bakterio zepa zehatz batzuk ikertuta. Gai horrek mikroorganismo kaltegarriari aurre egiteko gaitasuna zuen, eta Campbellek haren eraginkortasuna ikertu zuen, baita findu ere, pertsonengan erabiltzeko.



Sariak aurkezteko prentsaurrekoa, atzo, Stockholmen. FREDRIK SANDBERG / EFE

Medikuntzako Nobel saria jaso duen beste ikerketa Youyou Tu ikertzaile txinatarrak abiarazi zuen, 1970eko hamarkadan. Malariaren aurka «oso eraginkorra» den artemisina drogaren erabilera abiarazi zuen Tuk, urteetan haren lorpena isilean mantendu zen arren. *Artemisia annua* izeneko landarearen osagai aktiboa esku-

ratu zuen Tuk, antzinako literatura aztertuta. Karolinska institutuaren arabera, Afrikara mugatuta, urtero 100.000 pertsona onik ateratzen dira malariatik botika horri esker.

Medikuntzako Nobel saria 1901ean banatzen hasi zirenetik Youyou Tu da esparri horretako aitortza jaso duen 11. emakumea.

Hirugarren iheslari kurduak jakinarazi du nazioarteko babes eskatuko duela

DONOSTIA • Iragan astean Hernanira (Gipuzkoa) hozkailu-kamioi batean iritsi ziren hiru iheslari kurduetatik ospitaleratuta jarraitzen zuenak senda-agiria jaso zuen atzo. Hark ere nazioarteko babes eskatuko du, erabiliko duen forma argi ez duen arren: nazioarteko babes subsidiarioa edo asiloa. Beste bi iheslariak lehenaren alde egin zuten.

Osakidetzako langileak kontratatzean «iruzurrak» daudela salatzen du ELAk

BILBO • ELAk aldi baterako laneko enpresen jarrera izatea leporatu dio Osakidetzari, baita lan eskubideei «muzin» egitea ere. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2013ko Fiskalizazio Txostena baliatu du sindikatuak salaketa horiek egiteko. Besteak beste, langile finkoen 616 kontratuetatik 105etan izendapenaren prozedura ez zuten behar bezala dokumentatu, ELAk nabarmendutakoaren arabera.



Emakumeen Mundu Martxa, atzo, Bilbon. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Emakumeen Mundu Martxa Lisboarako bideari ekin dio, Bilbo agurtuta

BILBO • Igandean agur esan zion Euskal Herriari Emakumeen Mundu Martxako karabanak. Eguerditik arratsaldera arte hainbat jardura egin zituzten Bilbon, Lisboarako bidean jarraitu aurretik. Ordea, Portugalera heldu aurretik Galiziatik pasatuko da karabana feminista.

Hilberriak



Tio Tomas

Elorrio, 1929-2015

*Eskerrik asko, tio,
beti dotore eta irribarretsu*

Zure ilobak

Eskelak

(0034)943 30 40 30

eskelak@bidera.eu



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Ibai Maruri Bilbao Bilbo

Azaroaren 30etik aurrera klima aldaketari buruzko goi bilera egingo dute Parisen, NBE Nazio Batuen Erakundeak antolatuta. Euskal Herrian izango du oihartzunik. Urriaren 24an Alternatiben Herria bihurtuko dira Bilbo-ko Areatza eta Zazpikaleak. Parisen ingurumenari buruz sortu nahi duten eztabaidari ekarpena egingo diote. Baina proposatu nahi den alternatiba zabalagoa izango da: naturaz gain, bestelako ardatz batzuk izango ditu Bilbon erakutsi eta eztabaidatu nahi duten gizarte ereduak. Funtsean, «pertsonei lehentasuna ematea» proposatuko dute.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna sinatu zuten eragileek bultzatutako egitasmoa da Alternatiben Herria. Bizitza burujabea eskubide osoz du leloa. «Krisia hasi zenetik gizarte eragileek protesta egin dute, manifestazioak eta grebak egin dira. Baina uste dugu badela garaia nahi ez dugun eredu horri alternatiba bat proposatzeko», azaldu du Arantza Santestebanek –komunikazio arduradunetako bat da–.

Alternatiben Herriak, bada, bost oinarri izango ditu: natura; eredu ekonomikoa; demokrazia, parte hartzea eta burujabetza; bizitzaren iraunkortasuna; aniztasuna; eta ondare komuna. Horietako bakoitzaren inguruan auzo edo eremu bat sortuko dute Bilbon. Auzo bakoitzak nortasuna eta egitaraua izango ditu. «Bada, kigu Euskal Herrian eremu sozial, ekonomiko eta kulturean badirela hamaika pertsona eta eragile alternatibak eraikitzen. Horiek guztiak bildu eta plazara atera nahi ditugu».

Dagoeneko 117 eragilek egin dute bat egitasmoarekin. Beste batzuk berehala batuko dira zerrindara. Eta oraindik badago horretarako aukera. Ia bezperara arte nahi duenak atxikimendua agertu eta parte hartu ahal izateko izena eman ahalko du. Esparruak oso zabalak direnez, antolatzaileak ahalegindu dira ekarpen guztiak orden baten barruan ipintzen. Garagardo ekologikoaren ekoizleak ipini ditu adibide modura. «Oso zabaldua daude Euskal Herrian. Pila bat dira. Guk harremanetan jarri ditugu eta euren antolatu dute garagardo azoka». Ez da izango bakarra. Auzoen karpez gain, beste horrenbeste azoka ere egongo baitira.

Baina dena ez da izango eztabaida, hausnarketa, aurkezpen eta hitzaldi. Musikak, animazioak eta bestelako ekintza ludikoek ere

Oinarrian pertsona duen gizarte ereduak proposatuko dute Bilbon

Eskubide Sozialen Gutunaren batzarrak Alternatiben Herria egitasmoa aurkeztu du • Gogoeta eta jaia uztartuko ditu • Urriaren 24an izango da

beteko dute egitaraua. Txosnak ere ipiniko dituzte.

Proiektua finantzatzeko diru bilketan dabilta, Goteo plataforman. Dagoeneko 10.000 euro lortu dituzte. Informazio guztia eta egitaraua Alternatibenherria.eus atarian jarri dituzte eskura.

ZATOZ EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA

0€
/HIL

2016 ARTE

Kontratatu urriaren 15a baino lehen, webgunean, saltokietan edo 1717an.

Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero, hileko 50,9 €-an soilik (BEZA barne)

euskaltel

Pazifikoak badu bere TTIP


Merkataritza liberalizatzeko akordioa egin dute AEBek, Japoniak eta beste hamar herrialdek • Azken bi hamarkadetako itun handiena da • Herrialde bakoitzeko parlamentuen oniritzia beharko du orain

Ivan Santamaria

Globalizazioari bultzada berri bat emango dion akordioa hitzartu dute AEBek, Japoniak eta beste hamar herrialdek. TPP Trans Pacific Partnership (Lankidetzeta Trans Pazifikoa) izeneko itunak 800 milioi biztanle dituen eremuko arau komertzialak bateratuko ditu. Akordio komertzial klasiko-erri jarraituko die, tarifak eta bidesariak murriztuta edo kenduta; baina zabalagoa ere bada, inbertsioei, zerbitzuei, ingurumenari edo enpleguari buruzko jokaleku komuna sortzea aurreikusten baitu.

AEBek merkataritzaren alorrean bultzatu duten estrategiaren lehen garaipen handia da. Munduko Merkataritza Erakundea sortu zenetik, 1994. urtean, porrot egin dute liberalizazio saio guztiek. Negoziazio globalak zokoratuta, bi akordio handi bilatu ditu Barack Obama presidentearen administrazioak. Pazifikokoan bat, orain lortu duena. Bestea Europako Batasunarekin, oraindik ere negoziazio fasean dagoena.

Edukiari berari baino gehiago, TPPren balio estrategikoari erreparatu zaio orain arte. Txinak eremu geografiko horretan duen itzal gero eta handiagoari mugak



TPP akordioa negoziatu duten herrialdeetako ordezkariak, akordioaren berri ematen, atzo. ERIK S. LESSER / EFE

jartzeko bitartekotzat jo izan da. Horretarako AEBak eta Japonia —munduko lehen eta hirugarren ekonomia handienak— gai izan dira lehen aldiz historian elkarri lotzeko itun komertzial baten bidez. Gorabidean bizkor dabilzian Asiako ekonomiekin harremanak indartuko dituzte —Vietnam edo Malaysia—, eta Txinak Hego Amerikan izan zezakeen garapena tratatuko dute.

Bost urte iraun dute negoziazioek. Urriaren 2rako akordio bat lortzea zen negoziatzaileen helburua. Asteburu osoa bilduta pasatu dute Atlantian (AEB), eta atzo iragarri zuten ados jarri direla. 30 atal izango ditu akordioak, baina denbora pixka bat pasatuko da osorik argitaratu arte. Azken egunotan AEBetako botika berriek izan beharreko patente babesa izan da eztabaidagai. Hamabi urte

irautea nahi zuten AEBek, eta bost Australiak eta Zeelanda Berriak. Zortzi izango dira, azkenean.

Orain, tramitazioa

Akordioa lortzea prozesuaren baldintza ezinbestekoa zen, baina ez bakarria. Orain, herrialde bakoitzeko gobernuburuen sinadura eta herrialde bakoitzeko parlamentuaren oniritzia jaso behar du. Ez da bide erraza espero, toki

gehienetan akordioaren kontrako oposizio sendoa eraiki baita, ituna sekretupean negoziatu eta multinazional handien mesederako baino ez dela uste duena.

Ingurumenean, osasunean edo enpleguan kaltegarria izango den salaketa errefusatu zuen atzo Obamak. Ituna onartzeko prozedura azkarra du gobernua —ezin zaio zuzenketarik jarri—, baina herritarrek eta Kongresuak ituna goitik behera aztertzeko «hilabeteak» izango dituztela azaldu du.

Akordioaren eragin kaltegarriak ukatu ditu Obamak, eta edukia aztertzeko «hilabeteak» daudela argudiatu du

Herrialdeen babesa lortzeko prozesu gogorra espero da, baina AEBeko negoziatzaileek eskuak libre dituzte EBekin negoziatzen ari diren TTIP akordioaren eztabaida azkartzeko. Negoziazioak fase aurreratuan sartuko dira laster, eta gai korapilatsuenak ez dira aztertu ere egin. Esaterako, Europako Batzordeak inbertitzaileen eta gobernuaren arteko desadostasunak epaitzeko proposatu duen eredu berria. TPP onartu izanak aldekoen presioa areagotuko du TTIPen prozesua azkartze aldera.

TPP AKORDIOA

Bost urtez aritu dira negoziatzen TPP Trans Pacific Partnership (Lankidetzeta Trans Pazifikoa) izeneko akordioa. Hauek dira itunaren gako nagusiak.

Zer da akordioa? Merkataritza liberalizatzeko akordio zabala da. Horren barruan merkataritza trukeari ezarritako tarifak eta bidesariak murriztu edo kenduko dira.

Era berean, esparru askotako araudiak bateratzeko urratsa egingo dute. Esan liteke ekonomia globalizatuaren arauak eguneratzeko ahalegin handiena dela.

Nortzuk negoziatu dute? Hamabi herrialdek sinatu dute akordioa. AEB, Japonia, Malaysia, Vietnam, Singapur, Brunei, Australia, Zeelanda Berria, Mexiko, Txile eta Peru.

Nolako eragina izango du? Hamabi herrialde horiek 800 milioi laguneko merkatu erraldoia osatzen dute. Hots, Europako Batasuna baino %60 handiagoa. Munduko ekonomiaren %40 ordezkatzen dute akordioa sinatu duten herrialdeen artean.

Nor falta da? Sinatzaile zerrenda ikusita, erantzuna garbi dago: Txina. Askoren ustez, Txinak Asian duen itzalari muga jartzeko bitartekoa da hitzarmena.

Zergatik da garrantzitsua? Munduko Merkataritza Erakundea sortzeko akordioak sinatu zirenetik, 1994. urtean, liberalizazioan sartzeko saioek huts egin dute. Hauxe da ordudunik lortu den akordio esanguratsua. Lehen aldia da, gainera, AEBek eta Japoniak elkarrekin lotzen dituen akordio komertziala sinatu dutela.

Noiz sartuko da indarrean? Ha-

mabi herrialdeetako ordezkariak itxi dute akordioa, baina, indarrean sartu ahal izateko, herrialde bakoitzeko parlamentuak oniritzia eman behar dio. Ondo bidean, heldu den urterako jar liteke indarrean.

Araozko espero dira onartzeko? Herrialde askotan oposizioa du akordioak. AEBetan, esaterako, Obama presidentek alderdi demokratikoen zuzentzaileak gaitzatu beharko ditu. Alderdi errepublikanoan Donald Trump presidentegaiak akordio «txarra» dela esan du. Kanadan bozak dauka aurki, eta, irabazten badu, oposizio alderdi nagusiak esan du ez duela babestuko gobernu kontserbadoreak «isilpean» sinatu duena. Bi adibide dira, baina ia herrialde guztietan daude aurkako mugimendu politiko eta sozialak.

Zer kritikatu zaio akordioari? Abiapuntua bera dago zalantzan.

Negoziazioen edukia sekretua izan da, eta baliteke oraindik hila-bete bat pasatzea benetako testua aurkeztu arte. Oro har, akordioa multinazional handien mesederako eta langile nahiz laborarien kalterako izango dela salatu dute kritikariek. Hezkuntzan, osasunean, ingurumenean edo zerbitzu publikoen kalitate eta babes arloan murrizketak susmatzen dituzte.

Zer gertatzen da auzitegi pribatuekin? Europa AEBekin negoziatzen ari den TTIP akordioan bezala, polemikarik handiena piztu duen kontua auzitegi pribatuak dira inbertitzaileen eta gobernuaren arteko gatazka juridikoak epaitzeko. TPP akordioak organo horiek egotea ahalbideratuko du, zenbait egokitzapenekin. Hori bai, Australiaren presioaren ondorioz, tabako industria itunetik kanpo geratu da. Hots, tabako industriak ezingo du

akordioan babesa bilatu herrialde bat salatzen, osasunaren alde egindako politikak direla eta.

Zer gertatuko da lan eskubideekin? Hasieran, herrialde guztiek ILO Lanaren Munduko Erakundearen oinarriak bete beharko dituzte. Horrek aldatuta handiak eragingo lituzke Vietnam, Brunei edo Malaysiako egoeran — gutxieneko soldata ezarri beharko lukete, esaterako—, baina sindikatuak ezkor dira itunaren ezarpen praktikoarekin.

Ondorioak ditu Europarentzat? Akordioak ez du ondorio zuzenik Europarentzat, baina argudioak ematen dizkie AEBekin negoziatzen ari den TTIP itun komertziala sinatzearen alde presioa egiten ari diren gobernu eta eragileei. TPPk auzitegi pribatuak eratzea jasotzen du, Bruselak azkenaldian errefusatu duen eredu.

ELA: «Nafarroako Gobernuak UGT eta CCOOko liberatuei pagatu die»

CCOOk ukatu egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez soldatak ordaindu dituela

Amaitz Lasarte

ELAk salatu duenez, aurreko legegintzaldian UGT eta CCOO sindikatuetakoz zenbait liberatuek Nafarroako Gobernuak aurrekontutik jasotzen zuten soldata: «Ustez enplegu heziketara bideratutako zenbait hitzarmen UGTk eta CCOOk beren liberatu sindikalei ordaintzeko erabili dira zuzenean». ELAko Iñaki Zabaleta eta Mitxel Lakuntzaren arabera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez ordaintzen zieten, «sindikatu batenak diren berezko lanak egiteagatik». CCOOk erantzun du «faltsua» dela ELAren salaketa, eta berehalako zuzenketa egiteko eskatu dio.

ELAk azaldu duenez, Nafarroa-

ko Enplegu Zerbitzuko hitzarmenak baliatzen zituzten ordainketak egiteko. Berez, formakuntza eta berdintasuna bultzatzea da erakunde horren helburua, baina ELAk salatu du iaz sinatu zituzten lau hitzarmenetan (945.000 euro guztira) UGTren eta CCOOren liberatu batzuen soldatak ordaintzeko diru partidak daudela, batzuen kasuan soldata osoak ordaintzerainokoak, gainera.

CCOOk ukatu egin du bere liberatu batzuek Nafarroako aurrekontuetatik kobratu izan dutela. Programa horietarako kontratatutako pertsonak soslai teknikoak dute sindikatuaren esanetan. Gaineratu du hitzarmen guztiak gardenak direla.

Duela egun batzuk ELAk jaki-

tera eman zuen Nafarroako Gobernuak 24 hitzarmen adostu zituela zuzenean CEN patronalarekin, UGTrekin eta CCOOrekin (9,5 milioi euro guztira). Bada, horietako lau hitzarmen eskuratu ahal izan ditu sindikatuak. Jaki-



«CCOOk eta UGTk nafar guztien diruarekin egiten dute batzuek gure baliabideekin egiten duguna».

Mitxel Lakuntza
Nafarroako ELAko koordinatzailea

narazi du zenbait liberatu sindikalen zerrendak ageri direla akordio horietan, eta egiaztatu du Nafarroako aurrekontuetatik ordaintzen zirela. «UGTko eta CCOOko egiturazko karguak agertzen dira zerrendan, eta federazio batzuetako idazkari nagusiak eta horien zuzendaritzako kideak ere badaude», salatu du Zabaletak.

Arduradunak, tartean

Sindikatuaren arabera, auzian ziprztindutako artean daude CCOOko zerbitzuetako, industriako eta kimika arloko federazioetako arduradunak, nekazari-tzako elikagaien arloko zein Sakanako arduradunak. «Neurri txikiagoan» azken bi horiek.

UGTren kasuan, berriz, merkataritza, ostalaritza eta nekazaritza-ko elikagaien arloetako zenbait arduradun leudeke Nafarroako Gobernuaren eskutik soldata jaso dutenen artean, ELAren arabera.

Zabaletaren esanetan, gobernuak sindikatuarekin egindako hitzarmen horiek «ez dute zentzurik», sindikatu baten berezko lanak egiteagatik ordaintzen baitie. Esate baterako, azaldu du langileei enplegu kalitatearen inguruko aholkularitza emateagatik edo hitzarmen kolektiboetan berdintasun klausulak bultzatzeagatik ordaintzen zirela. «Beste batzuek gure baliabideekin eta gure afiliatuen diruarekin egiten duguna eurek nafar guztien diruarekin egiten dute».

Lakuntzak esan du «eskandalagarria» dela Nafarroako Gobernuak UGTri eta CCOOri zuzenean ordaindu izana. Gaineratu du ordaintzea horien helburua sindikatu horiek isilaraztea dela, «sindikalgintza otzanagoa egin dezaten», eta bide batez, ELAren eta LABen sindikalgintza «aldarrikatzaileagoari» aurre egitea.

LAB ez da Adegirekin bilduko, Gibelalderen adierazpenak direla eta

A.L.

LAB eta patronala are gehiago urrundu ditu Pello Gibelalde Adegiko presidentek joan den ostiralean egindako agerraldiak. LABeko idazkari nagusi Ainhoa Etxaideren ustez, «onartezinak» dira gazteen «gose faltaz» esandakoak. Hori dela eta, Gibelalderen dimisioa eskatu du. Halaber, jakinarazi du bertan behera utzi dutela datozen egunetan Adegirekin lan hitzarmenen inguruan egitekoa zuten bilera. «Hitz horiek erakusten dute Gipuzkoako patronalak azken urteen izandako jarrera». Etziko elkarretaratzeko bat antolatu dute Adegiren egoitzaren aurrean, Ernai gazte antolakundearekin batera.

Confebaski ere bidali dio mezua LABek. Roberto Larrañaga Confebaskeko presidente berria sindikatuarekin bilera erronda egiten ari da aste honetan. CCOOrekin bildu zen atzo, ELArekin bilduko da gaur eta LABekin etzi da biltzekoa. Sindikatuak, ordea, patronalari ohartarazi dio Gibelal-

deren berbak gaitzetsi ezean, ez dela joango etziko bilerara.

Adierazpenok gaitzesteko, EH Bilduk ebazpen proposamen bat aurkeztuko du Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Honela dio lehen puntuak: «Gibelalderen hitzak bidegabeak eta iraingarriak dira. Gazteek gure gizarteari egiten dioten ekarpena gutxiesten dute, beraien esfortzua mespretxatzen, eta ez du kontuan hartzen pairatzen duten lan eta ekonomia prekaritatea».

Gibelaldekin ekintzailtzaz hitz egiterakoan gazteak kritikatu zituen: «Gure seme-alabak ondoegi bizi dira, ez dute goserik ahalegin handiak egiteko». Gipuzkoan per capita errenta 33.000 euro dela gogoratu ondoren, gazteek esan zuen Txinara edo Indiara ez dutela joan nahi, besteak beste. «Gure enplegua munduan dago. Alemanian egotea ez da etxetik kanpo egotea hegazkinak egonda. Etxean aitatxo eta amatxorekin goxo egotea, ezkontzea eta Donostian etxea erostea ezinezkoa izango da».

Kaiku

***%100**
HORIXE DA KAIKU BENECOL HARTUTA KOLESTEROLA JAISTEN DUTEN PERTSONEN KOPURUA. EGIAZTATUTA GERATU DA KOLESTEROL ALTUKO LANGILEEN ARTEAN ONAITKO ENPRESA TALDE BATEK EGINDAKO IKERKETAN.

KAIKU BENECOL, BEGI BISTAKO EMAITZAK
www.kaikubenecol.com

Kolesterola murriztu nahi dutenentzat soilik. Ez da egokia haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeentzat eta 5 urtetik beherako haurrentzat. Sendagairen bat hartzen baduzu, galdetu sendagileari. Dieta osasungarria egin, fruta eta barazki ugari jan. Ez da egokia behi esnearen proteinari alergia diotenentzat. Egunero 1,5 - 3 gramo estanol hartuta. Ez hartu 3 gramo estanol baino gehiago. Kaiku Benecol Zero 31 kcal baino ez ditu botiltako bakoitzeko (1=eguneko dosia). Ikerketa honen arabera: Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresan egindako ikerketa landare-estanoiek lan-eremuan kolesterola murrizteko duten eraginkortasunari buruz.

Siriako 41 talde matxinok Errusiaren aurkako aliantza bat eskatu dute

Ekialde Hurbileko herrialdeei eskatu diete Moskuren eta Teheranen aurka elkartzeko • Sinatzaileen artean, Fronte Islamikoa muturreko koalizio islamista sunita osatzen dutenak dira talde handienak

Mikel Rodriguez

Errusiak Siriako Gobernuaren aldeko esku hartze militarra hasi eta bortz egunera, 41 talde matxinok agiri bat argitaratu dute, Ekialde Hurbileko herrialdeei laguntza eskatzeko. «Errealitate berriak eskatzen du eremuko herrialdeek, bereziki aliatuek, aliantza bat osatzeko pausoak bizkortu ditzatela Errusiaren eta Iranen aliantzari aurre egiteko, Siria okupatzen ari baitira», adierazi dute Interneten hedatutako agirian. Talde armatu horiek diote «okupazioak irtenbide politiko bat lortzeko bidea itxi» duela. Ahrar al-Xam muturreko talde islamista sunita da sinatzaileen artean talde nagusia. AEBek berriz ere Errusiari leporatu diote «oposizio moderatuari» erasotzea.

Agiria sinatu duten talde matxinoek negoziazioa erabat baztertu dute, eta Errusiari leporatu diote horren erantzukizuna. «Ezin da bitartekari inpartzial bat izan, gatazkaren parte bihurtu baita». Sinatzaileen artean Ahrar al-Xamekin batera Fronte Islamikoa muturreko koalizio islamista sunita osatzen duten taldeak daude -Islamaren Armada eta Ansar al-Xam, adibidez-, eta FSA Siriako Armada Askearen izenpean borrokatzen diren hainbat brigada. Fronte Islamikoa ideologia salafista duten taldeek osatzen dute nagusiki -islam sunitaren interpretazio integrista bat ezarri nahi du salafismoak-. Al-Qaeda lotutako Al-Nusra Fronteak ez du agiria sinatu, eta ezta ere, noski, El Estatu Islamikoak. Al-Nusra Frontea zenbait talderekin elkarlanean borrokatzen da Siriako armadaren aurka; Elri dagokionez, badira ia bi urte talde horiekin harreran gatazkatsua duela.

Nahiz eta matxinoen dei horri egindako erantzun zuzena ez izan, haiei laguntzeko adierazpen bat egin dute Saudi Arabiako 53 ordezkari erlijioso sunitak. Siriako egoera konparatu dute sobietarrek Afganistan inbaditu zutenekoarekin (1979-1989), eta or-

duan bezala herrialde sunitei eskatu diete matxinoei laguntzeko, eta norbanakoei, berriz, gerra santura joateko. Baxar al-Assad Siriako presidentek guztiz kontrako iritzia agertu du, logikoki. «Errusiaren, Siriaren, Iraken eta Iranen aliantzak irabazi beharra du [...]. Bertzela, Ekialde Hurbil osoa suntsituko da, ez soilik bi estatu», adierazi zion herenegun Irango telebista publikoari.

«Oposizio moderatua»

AEBek eta NATOk, ordea, Errusiari eskatu diote esku hartzea bertan behera uztea. «Oposizio moderatuaren aurka ekintza militarrek eginda, gerra zibila areagotu du», Ash Carter AEBetako Defentsa idazkariaren ustez. Robert Fisk Erresuma Batuko *The Independent* egunkariaren Ekial-

de Hurbilerako berriemaile beterranoak, baina, artikuluko batean gogor kritikatu du AEBek Errusiaren erasoak salatzen hartu duten jarrera. Fisken arabera, Siriako talde armatuen artean ez dago «moderaturik». Kazetariak dioenez, AEBetako agintariek eta hedabide handiek Errusiak erasoak hasi ondoren berreskuratu dute «oposizio moderatu» kontzeptua. Horren adibidetzat paratu du David Petraeus CIAko buruzagi ohiak eta Irakeko inbasioan AEBen indar militarren buru izandakoak Senatuko atzerri gaien batzordeari duela gutxi erran ziola Sirian ez zegoela talde armatu «moderaturik».

Irailaren erdialdean zenbait ordezkari militarrek agerraldiak egin zituzten batzorde horretan, Siriako strategiari buruz infor-

matzeko. Lloyd Austin jeneralak bertan erran zuen AEBek entrenatutako matxinoetatik «bakar batzuk» baino ez zeudela Sirian.

Errusian, berriz, Vladimir Komoiedov almirante eta parlamentuko atzerri gaietarako batzordeko kideak adierazi du «litekeena» dela Ukrainan matxino errusiazaleen alde borrokan ari diren «boluntario» errusiarrak orain Siriako armadari laguntzera joatea. Interfax agentziari egin dizkio adierazpen horiek Ramzan Kadirov Txetxeniako Errepublikaren buruzagiak, Vladimir Putin Errusiako presidenteari eskaini ondoren Siriara borrokalari txetxeniarrak bidaltzea. Mikhail Bogdanov Errusiako Atzerri ministroordeak atzo errepikatu zuen ez dutela soldadurik bidaltzeko asmorik lurreko borrokarako.

Errusiako Defentsa Ministerioak adierazi zuen atzo hamar eraso egin zituztela Elren aurka, Homs eta Alepo probintzietan. Duela hiru egun Errusiako hegazkin bat Turkiako aire eremuan sartu zela eta sortutako liskar diplomatikoari dagokionez, Igor Konaxenkov bozeramaileak polemika amaitu nahi izan du, eta esan du hegazkina «eguraldi txarraren ondorioz» sartu zela Turkian.

Bomba-autoa Iraken

Elren aurkako bertze fronte nagusian, Iraken, gutxienez 50 lagun hil zituzten atzo ekialdeko Al-Khales hirian, bomba-auto batekin. Mendebaldeko Al-Anbar probintzian, berriz, Al Bu Nimr tribu sunitako ordezkariak salatu dute Elk tribu horretako 70 lagun exekutatu zituela herenegun.

Irudia • Siria



Erromatarren arkua lehertu du El-k Palmira hirian

El Estatu Islamikoak bertze monumentu historiko garrantzitsu bat txikitu du Palmira hirian: erromatarrek duela 2.000 urte inguru eraikitako garaipen arkua. Maamun Abdelkarim Siriako Antzinateko gaien eta Museoen zuzendariak uste du «eritmo honetan hiru edo lau hilabetetan» Palmirako monumentuak desagerraraziko dituela Elk. «Jada ez da suntsitzen ari erranahi erlijioso bat duten monumentuak, eraikuntza zibilak baizik», adierazi dio Espainiako Efe agentziari. Argazkian, garaipen arkua 2010ean, gerra hasi aitzinetik. YOUSSEF BADAWI/EFE



Betleemgo Aida errefuxiatu kanpalekuko gazteak, armadari harrika aurre egiten, atzo. ABED AL HASLHAMOUN / EFE

Zurrunbilotik atera ezinik

Israelgo armadak 12 urteko haur palestinar bat hil du tiroz, eta liskar gogorak jazo dira
• Zigor neurriak agindu ditu Netanyahu, juduen aurkako erasoei erantzuteko

Adrian Garcia

Palestinar giroa gaiztotuz joan da egunetik egunera, eta tentsioa goia jotzeko bidean da; atzo 12 urteko haur bat hil zuen Israelgo armadak Betleem inguruan jazotako istiluetan. Lurralde okupatuetako segurtasuna buruhauste bat bilakatu da Tel Aviventzat. Joan den astean bi erasotan bina israeldar hil zituzten Nablusen eta Jerusalem, eta Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak are neurri errepresiboagoak agindu ditu. Intifada berri baten atarikitzat jo dute askok amaigabea dirudien indarkeria zurrunbiloa. Edonola ere, zalantza gutxi daude Palestinako gatazka beste fase batean sartu denik; Mahmud Abbas PAN Palestinako Aginte Nazionalako presidentek joan den astean NBen ohartarazi zuen Osloko bake akordioek ez dituztela palestinarrenak.

Israelgo armadaren eta palestinarren arteko liskarrak ohikoak

izan dira egunotan. Lurralde okupatuetan harriekin eta molotov koktekin aurre egin diete armadari gazte palestinarrek. Soldaduek, ordea, tiro eginda erantzun dute. Betleemgo Aida errefuxiatu kanpalekuan istiluak izan ziren atzo, eta 12 urteko ume bat hil zuen armadak. Maan agentziaren arabera, bularrean tiro bat zuela eraman zuten erietxera. Postu militar bat erre dute ondoren manifestariak.

Israelgo armadak, halere, ez du umearen hilketa baieztatu: «Segurtasun indarrek masak sakanatzeko metodoak erabili dituzte, baina erasoaldiak jarraitu du, eta tiro egin dugu istiluen sustatzaileak zeuden tokira», esan du armadako bozeramaileak.

Herenegun gauean beste nerabe palestinar bat hil zuen armadak tiroz, Tulkarem hirian, Zisjordia ipar-ekialdean, gazte talde batek postu militar bati eraso egin ondoren.

Ilargi Gorriaren datuen arabe-

ra, liskarren ondorioz ia 500 palestinar artatu dituzte igandetik. Horieta 155ek bala zauriak zituzten. Besteak negar gasaren ondorioz intoxikatuta zeuden. Ilargi Gorriak larrialdia ezarri du Gazan, Zisjordanian eta Jerusalem, erakundeko langileek sufritutako erasoengatik. Jerusalem ondoko Abu Disen, esaterako, armadak ambulanzia bati eraso dio. Nablus inguruan, berriz, kolono talde batek galarazi egin die zaurituei oinarrizko laguntza ematea.

Muturreko juduak

Armadak ez ezik, muturreko judu nazionalista taldeek ere parte hartu dute palestinarren aurkako jazarpenean. Lekukoek salatu dute armadaren babespean egin dituztela erasoak kolonoen taldeek.

Israelgo Poliziak Jerusalemgo alde zaharrera 48 orduz sartzea debekatu die palestinarrei. Izan ere, Meskiten Zelaigunea tentsio gune nagusia izan da, musulma-

nentzako zein juduentzako gurtza lekua baita. Indarkeria zurrunbiloa askatu duten lehen liskarrak hor hasi ziren orain dela hiru bat aste.

Larunbatean segurtasun indarrek palestinar bat hil zuten Jerusalem Ekialdean, hark ustez bi judu hil ostean. Jihad Islamikoak bere gain hartu du eraso. Herenegun, berriz, beste palestinar bat

hil zuen Poliziak tiroz, judu bati labanaz eraso ziolakoan.

Gaza ere bete-bete jo du indarkeriak. Suziri bat jaurti dute zerrendatik, eta armadak lurraldea bonbardatzen erantzun du. Iaz Israelgo erasoaldia bukatu zuenetik, gutxienez hamasei alditan hautsi dute su-etena.

Segurtasun kabinetea

Israeldarren hilketek Tel Aviv haserrearazi dute, eta palestinarren aurkako jazarpena areagotuko du. Netanyahu segurtasun kabinetearekin bildu da egunotan, neurri errepresiboak aztertzeko. Gobernuak erasoen egileen etxek suntsitu eta liskarretan nahasturikoen atxiloketa administratiiboak –kargurik aurkeztu gabeko atxiloaldiak– areagotu ditu. Halaber, Jerusalemgo alde zaharrerako sarrera debekatuko die. Horrez gain, Israelgo Poliziak jakinarazi du bost lagun atxilotu dituela, Nablusen hildako bi kolonoekin lotura dutelakoan.

Gobernu koalizioa osatzen duten eskuin muturreko alderdiek Netanyahu estutu dute. Atzo armadako goi kargudunekin bilduta zegoela hainbat lagunek protesta egin zuten lehen ministroaren bulego aurrean, gobernuak erasoei irmo erantzun ez diolakoan. Haatik, hizkera oldarkorra erabili du Netanyahu: «Palestinako terrorismoa hil arte borrokatuko gara». Bada operazio militar zabal bat abiatzea proposatu duen ministroarik, Bigarren Intifadaren erdian egin bezala, 2002an. «Defentsarako ezkutua operazio berri bat egon daiteke», ohartarazi du Israel Katz Garraio eta Zerbitsu Sekretuen ministroak.

Bake prozesua kale itsuan sartuta, bi aldeetan muturreko jorak ari dira gailentzen, eta zaila izango da gatazkaren aurreko mailara itzultzea. Abbas ez da gai izan palestinar guztiak haren lidergoaren bueltan elkartzeko, eta eskuin muturrak harrapatuta dauka Netanyahu.



ERROTA
HORTZ KLINIKA

ZURE AHO OSASUNAREN
ZAINZAILEAK

Julian Apraiz, 1
01012 GASTEIZ
Tel.: 945 21 33 90
errotadental@euskalnet.net

LAN ESKAINTZA

Edizio-laguntzaileak behar ditugu testuliburugintzan aritzeko; gehienbat, irakasle-entzako materialak sortu edota egokitzeko: gidoi didaktikoak, programazioak, material osagarriak...

Interesatuok bidali curriculumak helbide honetara:

zubia@santillana.com
ZUBIA argitaletxea

NBE sortu eta 70 urtera, inoiz baino ageriagoa da egitura anakronikoa dela; II. Mundu Gerraren amaieran sortu zen plataforma, eta erronka berriei egin behar die aurre. Aldaketa sakonak egin ezean, zilegitasuna du jokoan.

Munduko plaza zahar gelditu da

Kristina Berasain

Auschwitz en ostean ba ote zitekeen poesia idatzi galdetu zuen Theodor Adornok. Alemaniako filosofo judu hark zalantza horretan islatu zuen munduko kontzientziak astindu zituen gerra. Alemania naziarren 39 kontzentrazio esparruetan mila pertsona hiltzen zituzten egunean. Inoizko gatazka armatu handienak inoizko sarraski latzena eragin zuen. Laztura. Bigarren Mundu Gerra beste inoiz gertatu behar ez zen izugarrikeria zen. Eta gatazka armatua amaitu eta 52 egunera, artean gerraren bonba hotsak isildu ez zirela, konpromiso hori hartu zuten aliatuek. NBE Nazio Batuen Erakundearen zeregin nagusia ezarrita zegoen: gerrak eragozteak. 1946. urteko urriaren 24a zen.

Gerrak, genozidioak, giza eskubideen urraketak eta gizateriaren kontrako bidegabekeriak amaituko zituen itxaropenez, egitura bat sortu zuten nazioarteko agintariak, baina, 70 urteren buruan, munduaren panorama ikusita, agerian da erakundearen eraginkortasuna, gerrak eta gatazkek eragozteko garaian behintzat, eskasa dela, bere zilegitasuna ere zalantzan jartzeraino.

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik mundua zeharo aldatu da, eta garai eta erronka berrietara egokitu beharra dauka aldaketa sakonak eginez. Munduko gatazkek izaera berria daukate, al-


daketak etengabekoak dira, eta mehatxu ezezagunak ere sortu dira, baina erakundearen egiturak, ordea, bere hartan dirau.

NBEk berak badaki egitura zaharrituta daukala eta erronka berriei aurre egiteko erreforma sakonak egin behar dituela. Kofi Annanek 1997an idazkari nagusiaren kargua hartu zuenean, erakundea erreformatzeko beharra nabarmendu zuen jada. Annanek berak aitortu zuen bere lana «munduko lanik zailena» zela, besteak beste, «herrialde guztien plaza» gobernatu behar zuelako diplomaziaren bidez.

Eta argi dago munduko plaza gobernatzea nekeza dela. Ban Ki-moonen agintaldia amaitzean dagoela, egitura zaharrean sustraituta dago oraindik NBE. Erakundeak 70. Batzar Nagusia egin berri du. Eta Mogens Lykketoft NBEko Batzar Nagusiko presidentek hitz hauekin eman zion amaiera aurtengo saioari: «Historikoak izan diren bederatzi egunen amaieran gaude, eta egun hauek eztabaiden sakontasunak agerian utzi du erakunde honen erronka itzela dela». Oholtza berean munduko 150 estatu eta gobernuburu aritu dira astebetez, eta, zerbaitetan bat badatoz, erakundea erreformatzeko beharrezan datoz. Erreforma «ezinbestekoa» dela esan dute agintariak.

Beto eskubidea

Erakundearen sorreratik dagoen botere banaketa oraindik ere indarrean egotea da kritika zorrotzenak eragiten dituen auzia; «pribilegio arkaikoa» iritzi diote



Haider Al-Abadi Irakeko lehen ministroa, gaur astebate, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusian, New Yorken. JASON SZENES / EFE

horri adituek. Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrek soilik daukate beto eskubidea, erakundea sortu zenean aliatuak ziren herrialdeek, hain zuzen ere. Eta aski da bost estatu horietako baten batek betoa ezartzea giltzari izan daitekeen ebazpen bat bertan behera geratzeko.

Segurtasun Kontseiluko kideek 270 aldiz baliatu dute beto eskubidea urte hauetan guztietan. Errusiak eta AEBek dute errekorra: 128 beto jarri ditu Errusiak, eta 89 AEBek.

Urteotan dozenaka adibide aurki daitezke, baina gatazkaren batean argi ikusten bada beto eskubideak nola baldintzatu dezakeen estatu baten etorkizuna, palestinarrei galdetzea baino ez dago. Bi estatuen sorrera onartzea aspaldi hartutako erabakia bada ere, egungo *statu quo*-ak agerian uzten du munduko plazan erabakitzen diren neurrien eraginkortasunik eza.


Segurtasun Kontseiluak 1947. urteko azaroaren 29an onartu zuen 181 ebazpena, bi estatuen sorreraren baldintzak jasotzen zituena. AEBek alde egin zuten orduko hartan, baina gerora 25 alditan baino gehiagotan baliatu dute beto eskubidea palestinarren kontrako erasoak gaitzestea saihesteko. Palestina «estatu behatzaile» gisa onartzearen kontra ere egin zuten (2012).

Segurtasun Kontseiluak baino ez dauka eskubide osoko estatu kide berriak onartzea. Eta NBE bezain zaharra den gatazka bere hartan da beto eskubideak direla eta. Egitura horretan hartzen diren erabakiak ez dira bete beharrekoak, eta haren porrotaren metafora ankerrena izan daiteke Palestina.

Banek berak adierazi du egitura hori «ahalik eta azkarren» erreformatu behar dela: «Organo hori gardenagoa eta demokratikoagoa egin behar dugu». Eta egia da gero eta gehiago direla beto eskubidea ezabatzearen alde egiten duten ahotsak eta aldarrikapen hori bere egiten duten estatuak. Erabaki hori irmoa izan bitartean, betoa mugatzea eskatu dute 73 estatuak, gizateriaren kontrako krimenak ardatz dituzten ebazpenetan beto eskubidea baliatzea debekatzeko. Mexikok eta Frantziak sustatutako ekinaldi horrek, honezkerok, 73 herrialderen babesa lortu du. Claudia Ruiz Massieu Mexikoko Atzerri ministroak esan du genozidioa, gerra krimenak edo gizateriaren kontrako krimenak daudenean betoa baliatzea ez dela bateragarria egungo printzipioekin.

NBE-REN EGITURA


Sorrera
1945eko urriak 24
San Frantzisko (AEB)
Nazio Batuen Karta 51 herrialdek sinatu zuten



Aurrekontua 40.000 milioi urtean (AEBek %30 jartzen dute)		
Langileak 41.000	Egoitza nagusia New York	Bulegoak munduan 1.200
Agentzia eta programak 31 (Unicef, UNHCR, Unesco, NDF, Munduko Bankua, Osasunaren Mundu Erakundea, Elikagaien Mundu Programa...)		
Bake misioak 16	Kasko urdinak 106.245 (40.000 gehiago agindu ditu)	

Segurtasun Kontseilua

Bederatzi estaturen botoa behar da erabaki bat hartzeko, baldin eta beto eskubidea duten herrialdeek ez duten eskubide hori baliatzen (sorreratik 270 aldiz baliatu dute beto eskubidea).



Batzar Nagusia

193 kide

Estatu bat, boto bat

Estatu behatzaileak

Vatikanoa, Palestina Askatzeko Erakundea eta Maltako ordena

Idazkaritza Nagusia

2006-2016 ● Ban Ki-moon
1997-2006 ● Kofi Annan
1992-1996 ● Butros Gali
1982-1991 ● Javier Perez Cuellar
1972-1981 ● Kurt Waldheim
1961-1971 ● U Thant
1953-1961 ● Dag Hammarskjöld
1946-1952 ● Trygve Lie

Nazioarteko Justizia Auzitegia

NBEko organo judiziala. Hagan dauka egoitza (Herbehereak).

Kontseilu ekonomiko eta soziala

Gai sozialak, ekonomikoak eta ingurumenarekin lotutakoak lantzen ditu.

NBERen erreforma aldarrikatzen duten adituek «egitura eraginkorrago, gardenago, zilegiago eta azkarrago» baten alde egiten dute. Baita demokratikoagoaren alde ere.

Garai kritikoak

Herrialde bat, boto bat formula oraindik ere indarrean dago Batzar Nagusian -193 estatu daude ordezkaturak hor-. Estatu bakoitzak boto bat dauka, handia izan edo txikia izan. Eta osaera hori justua ote den ere zalantzan jartzen dute, batez ere, herrialde jendetsuenek, pertsonak baino gehiago estatuak ordezkatzeko di-tuela salatuta. Alemania, Japonia, Brasil, Hegoafrika, Nigeria eta Indiak eserleku finko bat ere aldarrikatzeari ekin zioten aspaldian.

Demokratikoki dituen hutsune eta gabeziez gain, erabakiak hartzeko eta larrialdietan erantzuteko motegia dela ere leporatzen diote NEBri. Agerian da mastodonte burokratikoek ez dutela balio egungo krisiei aurre egiteko; hortaz, prozedurazko aldaketa sakonak ere aldarrikatzen dituzte. Banek berak aitortu du bake misioek «arinagoak eta azkarragoak» izan behar dutela.

Bere zazpi hamarkadako ibilbidetan garai kritiko ugari izan ditu erakundeak, baina larrienetakoa 2003an etorri zen. Iraken okupazioak erakundearen errotuta zegoen krisia areagotu baino ez zuen egin. Kofi Annan Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi izandakoak ozen ohartarazi zuen

Aski da kide iraunkorretako batek beto eskubidea ezartzea giltzari den ebazpen bat bertan behera geratzeko

Egitura «eraginkorrago, gardenago, zilegiago, demokratikoago eta azkarrago bat» eskatzen dute adituek

orduan erakundea «bidegurutzean» zela. Irakeko inbasioa «alde bakarrek» izan zela salatu, eta «norberak bere aldetik erabilitako legerik gabeko indarra ugaltzea eragozteko erreforma» agindu zuen Annanek. «Segurtasun Kontseiluaren egitura ez da bere sorreratik aldatu, eta seriooki berritzeko ordua da. Egitura anakronikoa du, sortu zeneko errealitate geopolitikoa islatzen baitu, eta ez gaur egungoa; trabatuta dago».

Washingtonen Iraken «gerra prebentiboa» abiatzeko bere kasa hartutako erabakiak hutsak harrotu zituen. Eta erakundearen izaera bera auzitan jarri

zuen nazioarteak eraso hasi eta zazpi hilabete geroago erakundeak okupazioa babestu zuenean; Segurtasun Kontseiluaren 1511 ebazpena erakundearen «suizidioa» izan zela adierazi zuten adituek. Anne-Marie Slaughter Princeton Unibertsitateko irakasleak erakundearen «hutsaltasuna eta eraginkortasunik eza» salatu zuen orduan.

Annanek *annus horribilis* izan zela aitortu zuen, urte beltza, eta adituz osatutako talde bat eratu zuen hausnarketa egin eta erronka berriei aurre egiteko eta egoera geopolitiko berrira moldatzeko gaitasuna izango lukeen egitura bat sortzeko. Txosten horrek hainbat proposamen zehatz jasotzen zituen, baina eztabaida hura antzua izan da orain arte, ez baita aldaketarik egin.

Kontraesanak, sorreratik

Ruanda eta Srebrenicako genozidioak eragozteko nahikoa ez zuela egin. Hori da nazioarteko erakundeak atzetik duen beste mamu bat. Eta baita sorreratik oinarrian dituen kontraesanen artean handiena ere, zeren kasko urdinek, bakea bermatzeko bada ere, araudiaren arabera ezin baitute armarik erabili beren buruak defendatzeko ez bada -arma arinak dituzte-. Kongoko Errepublikako Demokratikoko gertaerak ere mugarri bat ezarri zuten. 2010eko udan, 300dik gora lagun bortxatu zituzten miliziek kasko urdinak zeuden lekutik 32 kilometro eskasera. NBE biktimak

zenbatzera eta «huts» egin zuela aitortzera mugatu zen orduan ere.

Beste garai kritikoa kasko urdinek hainbat herrialdetan izandako jokoerak ekarri zuen. Kongon eta Liberian emakumeekin sexu gehiegikeriak egin zituztela jakin zen. Tartean,

hamabi urte inguruko neskatoak prostituitzera behartzen zituztela diruaren edo giza laguntzaren truke. Annan bera «suminduta eta lotsatuta» agertu zen.

Ekintza sinbolikoetatik haratago, haren zeregina lausoa dela agerian da, orain arteko konpromiso asko hitzetan geratu baitira urteotan, nazioarteko zuzenbidea, bakea, segurtasuna, garapen ekonomikoa eta soziala, eta giza eskubideen errespetua bermatu beharko litzuzkeen erakundearen etorkizuna kolokan jartzeraino. Egia da, hala ere, existituko ez balitz asmatu beharko litzatekeen erakundea dela; azken batean, munduko plaza bat behar da.

Kunduz «erabat kontrolpean» daukala jakinarazi du Afganistango Gobernuak

KABUL • Estatu Islamikoak Kunduz eskuratu eta astebetara, hiria berriro «erabat kontrolpean» daukala jakinarazi zuen atzo Afganistango Defentsa Ministerioak. AEBek larunbat goizaldean MSF Mugarik Gabeko Medikuen ospitale bat bonbardatu eta 22 langile eta zauritu hil ostean, bestalde, AEBei erasoaren bertsioa aldiro aldatzea eta Kabuli hura justifikatzeagatik «gerra krimena aitortzea» leporatu die MSFk.

Akordio nuklearra onartzeko prozedura bideratu du Irango Parlamentuak

TEHERAN • Iranek eta 5+1 Taldeak hitzartutako akordio nuklearra onartu edo ez, hurrengo hamar egunetan egin beharko du bozketa Irango Parlamentuak. Igandean onartu zuen Nazio Segurtasunerako Batzordeak akordioan jasotako Ekintza Bateratuaren Plan Integrala onartu edo ez bozkatzeko prozedura. Parlamentuak onartzeko gero, Nazio Segurtasunerako Kontseilu Gorenak berretsi beharko du akordioa.

20

EURITEAK OKZITANIAN ERAGINDAKO HILAK

Okzitania, Frantziako Itsas Alpeak departamenduan, azken 25 urteetako euri jasarik handiena izan zuten larunbat gauetik igande goizaldera. Metro koadroko 195 litro bota zituen Kosta Urduinean ordu gutxian, eta uholdeek hogei hildako eragin zituzten. Alerta laranja soilik eman zuten.

Ibilgailu blindatu batetik arrastaka ibili du Turkiako Poliziak kurdu baten gorpua

SIRNAK • Haci Lokman Birlik 24 urteko kurdua Turkiako operazio berezietako unitateek hil zuten larunbatean Sirnak hirian, eta haren gorpua Poliziaren ibilgailu blindatu batek arrastaka ibili zuen gero. Tiroz zauritu ondoren, errematatu egin zutela salatu dute lekukoek. Turkiako Barne Ministerioak ikerketa hasi du, gertakariaren argazkiei buruz.

Ezker joerako legebiltzarra baina eskuineko gobernuazateko bidean da Portugal

Passos Coelho gobernu osatzeko aginduko dio gaur presidentek, eskuinak gehiengoa galdu arren • PSk Ezohiko Kongresua egingo du

Xabin Makazaga

Pedro Passos Coelho izan da Europar troikaren erreskatea jasan eta Bruselak agindutako doitze politikak ezarri ondoren hauteskundeak irabaztea lortu duen lehenengo agintaria. PaF Portugal Aurrera koalizioak –PSD alderdi sozialdemokrata kontserbadoreak eta CDS kristau-demokratak osatua– 800.000 boto eta hogeitaka eserleku galdu ditu, gehiengo osoarekin batera; baina gobernu gidatzen jarraituko duela ziurtzat jotzen da. Ezkerreko indarrak nagusi izan arren Portugalgo Legebiltzarrean, oso zaila baitute bat etortzea. Zentro-eskuineko gobernuak agintean jarraitu arren, ordea, noiz arte iraungo duen ez dago batere argi. Gobernu bat osatzeko ez, baina etorkizun hurbilean aukerakoa baita ezkerreko indarrak ados jarzea kontserbadoreak agintetik botatzeko.


Passos Coelho gutxiengoan gobernatzeko prest agertu da, eta babesa PS Alderdi Sozialistan bilatuko duela jakinarazi du. Antonio Costa buruzagi sozialistak, berriz, porrota onartu –Europako hauteskundeak irabazi zituen PSk iaz– eta ez duela «gehiengo negatibo bat» osatuko jakinarazi zuen hauteskunde gauean. Gaur bilduko da PSren Zuzendaritza Batzordea, eta Costak alderdiaren Ezohiko Kongresura deituko du. Dimisioa emango duela ukatu egin du, baina dagoeneko bi alderdikide kargurako lehiazteko prest agertu dira. Kritikoek duela urtebete PSko buruzagitza hartzean ezarritako bi helburuak huts egitea leporatzen diote: alderdia batzea eta gehiengo osoa eskuratzea bozetan.

BE Ezkerreko Blokeak –Syriza eta Podemosekin ahaidetua– eta CDU koalizioak –Alderdi Komunistak eta Berdeek osatua– eskaini diote Passos Coelho agintetik kentzeko aukera Costari, eta PSk «gobernu osatzeko modua» baduela esan dute; baina trukean PSk onartu ezinako langa jarrita.

PORTUGALGO PARLAMENTUA

2015

%100 zenbatuta



ITURRIA: PORTUGALGO HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA



Passos Coelho eta Paulo Portas. EFE

Duela lau urteko hauteskundeekin alderatuta, PaF izan da behera egin duen indar bakarra, baina Passos Coelho da Portugalgo hauteskundeetako irabazlea. Eta PS, botoak eta diputatuak irabazi arren, galtzaile nabarmena izan da, ez duelako gobernuaren aldatzea lortu. Aritmetikak ematen du ezkerreko gobernu baterako; jardun politikoa, ez.

Doitze politikak malgutzearen aldekoa baina Europako Batasunaren eskakizunak betetzearen aldekoa izaki, Ezkerreko Blokeak eta Alderdi Komunistak egin nahi duten politikaren kontra dago PS. Ezkerreko Blokeak –inoizko emaitza onenak lortu eta hirugarren indarra da 19 diputaturekin– jarrera zertxobait apaldu du, eta

murritzetak baztertzeko eta kaleratze adiskidetsua bertan behera uzteko eskatu dio Costari. «Gugatik bada, eskuineko koalizioak ez du gobernu osatuko», esan du BEko buruzagi Catarina Martinsek.

Alderdi Komunistak, berriz, Portugalgo euroguneetik ateratzeko erreferendum bat nahi du, eta «eskuinaren politikak» babestea leporatzen dio Costari. PSk gobernu osatzeko aukera baduela esatearekin bat, «politika alternatibo, aberkoi eta ezkerreko batean oinarrituko ez den akordio-rik» ez dutela behar nabarmendu du Jeronimo de Sousa buruzagi komunistak.

Gaur jasoko du mandatua

Passos Coelho gaur hartuko du Belemen Portugalgo presidente Anibal Cavaco Silvaren, eta gobernu osatzen saiatzeko aginduko dio. «Indar bozkatuena gobernu osatzeko prest dagoela» jakinaraziko diola aurreratu du Passos Coelho. Eta, CDS-PP koaliziokideko buruzagi Paulo Portasekin bildu ostean, PSrekin harremanetan jarriko dela aurreratu du.

PSD eta PSD alderdi kontserbadoreak gutxiengoan gobernu osatu nahian eta PS barne krisia gaintzeko ahaleginean, egonkortasun handirik ez dute utzi Portugalgo hauteskundeak. Absentzioak, gainera, orain arteko marka guztiak hautsi ditu. %43.

BERRIAren eskutik

EUSKARA JENDEA

GURE HISTORIAREN HIZKUNTZA
GURE HIZKUNTZAREN HISTORIA

Euskara eta bere herriaren historia buruzko dibulgazio lana. 2013an argitaratutako Euskara Jendea egitasmoak, Xabierrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua du abisupuntu. Ikur-antzezko esparruan zegoen hutsunea berretzeko helburuarekin sortua da, eta BERRIAk eskura jartzen ditu orain.

Dokumental sorta - 6 DVD

1. HISTORIAREN ATARIAN (47)
2. ERROMAKO INPERIOAN (47)
3. ANIZTASUNAREN BIDEAN (47)
4. MUGETAN GAINDI (47)
5. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (47)
6. MUNDUA OSATZEN (59)

36€

BERRIAlaguntzako eskaintza berezia:

31€

Egin eskaria eta etxera bidaliko dizugu: 943-30 43 45

BERRIAlaguna bazara, webgunean ere eska dezakezu: Berria.eus/kioskoa (promozioa atalean) zure kodia erabiliz.

IBAIZABAL
ZENBAT GARA
berria



opariak

PARTE HARTZEKO, deitu: IGANDETIK ASTEARTERA **943-30 43 47** edo www.berria.eus/kioskoa
SARIDUNAK **ostegunean** argitaratuko dira.

01 SAIAZ HOTELA
Bi lagunentzako gaua eta gosaria



San Roke, 25 · Getaria
Tel.: 943-14 03 45
www.saiazgetaria.com

02 IÑAUSTI JATETXEA
Bi lagunentzako dastatze menua


Zuatzu kalea, 4 · Donostia
Tel.: 943-31 39 33
info@iñauti.com

03 ERRIOGUARDA ENEA JATETXEA
Bi lagunentzako menu berezia


Kale Nagusia, 25 · Hernani
Tel.: 943-3302 91 · www.erioguardaenea.com

04 MANDIOA TABERNA
Bi lagunentzako bazkaria edo afaria


Zerain
Tel.: 943-80 17 05

05 BIEZKO BASERRIA

Nekazaritza turismoko etxea

Bi lagunentzako gaua eta gosaria


Olazabal, 3
Axpe · Atxondo
Tel.: 635-75 61 32
www.biezko.com

06 ETXEAUNDI JATETXEA
Bi lagunentzako menu berezia


Torreauzo, 9 · Oñati
Tel.: 943-78 19 56
www.etxeaundi.com

07 LOIZU JATETXEA
Bi lagunentzako menu berezia


San Nikolas, 13 · Auritz
Orreaga eta Irati oihanaren ondoan.
Tel.: 948-76 00 08

08 ALBAOLA Itsas Kultur Faktoria
Bost lagunentzako bina sarrera



Ondartxo ibilbidea, 1 · Pasai San Pedro
Tel.: 943-39 24 26
www.albaola.com/eu

09 OTEIZA MUSEOA
Bost lagunentzako bina sarrera


Altzuza
Tel.: 948-33 20 74
www.museoteiza.org

10 SORGINEN MUSEOA
Bost lagunentzako bina sarrera


Zugarramurdi

11 ARDOAREN MUSEOA
Bost lagunentzako bina sarrera


Erriberri

12 FLORIDA GURIDI ZINEMAK
Bost lagunentzako bina sarrera


Gasteiz


sarrerak

 PARTE HARTZEKO, www.berria.eus

 Edo deitu harpidetza sailera **urriaren 6an**, asteartea. (Deitzeko ordutegia: 9:30-11:00 Telefonoa: 943-30 43 45) · SARIDUNAK **ostegunean** argitaratuko dira.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

Final-zortzirenak


Bi lagunentzako bina sarrera

Amaia antzokia
ARRASATE
Urriak 10, larunbata
17:30

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

Final-zortzirenak


Bi lagunentzako bina sarrera

Bastero kulturgunea
ANDOAIN
Urriak 11, igandea
17:30

Hirurogeita hamar urteko gizon bati utzi ahal diot esan dezala oraingo gazteek ez dugula goserik igaro eta horregatik doala mundua doan moduan eta horregatik gaudela gazteok gurason etxean goxo, lanik egin nahi gabe, baldin eta bakarrik baldin solas pribatu batean bada (esaterako, taberna zulo batean), entzuleria urri, as-

pertu eta eztabaidatzeko gogo gutxiko baten aurrean; delako gizona eskolagabea bada (nire aitona bezala) edota nire aitona bera bada.

Zorionez nire aitona ez zuen inoiz horrelakorik esanen, berak gosea



JIRA
Angel Erro

edo, Gipuzkoako Enpresarien Elkartearen buruak ulertzeko moduan esanda, enpredore grina pairatu bazuen ere, bere jaioterritik alde eginez. Horrek ez zion lanik ez izatearen errua norbanakoan jarraraziko.

Demagun Gipuzkoako ekintzagintza (hitza gaztelaniaz esan du Gibelalde eta euskaraz bezain etsigarria da) bultzatzeko, gazteei benetakoa gosea pasaraziko bazitzaien, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak babestutako gosete luze eta akuilagarria, gazte asko erbestera eramane lukeena, zaudete seguru harrerako herrialdean hirurogeita hamar urteko gizon ongi eskolatu batek gazte horiek salatuko lituzkeela, ez baitatoz lanera, etorkin alferrontziak, «gure kontura» ongi bizitzera baizik. Ez bage-neki.

Estralurtarrak

Utz ditzagun bakean estralurtarrak! Ez gaitzen haiekin kontaktuan jartzan saia!», bota zuen Stephen Hawkings-ek 2010ean, dramaren artea bere eginez, eta izua ilustratzeko, mundu osoak ulertzeko moduko adibide lazgarria erantsiz, atzetik: «Bisitan etorriko balitzaizkigu, katastrofearen aurrean geundeke, gizateriaren

hondamendiaren atarian, indiarrak Kristobal Kolon Amerikara heldu zeneko hartan bezala». Eta astrofisikari entzutetsuenetako baten hausnarketa trinkoa baino gehiago, *Munduen Gerra* sonatu hura emulatzeko gogoaren antza hartu nion bere azalpenari, beti espaziozko zulo beltzak ikertzen aritu beharrak gogaitu eta arnasbidea ezjakinoi adarra joaz bilatu nahi izan balu bezala, bihurri horrek.



BIRA
Garbine Ubeda

Duela bost urte *martzianoak* al bait urrunen behar zituenak lehentasunen artean ditu orain. Juri Milner fisikari eta enpresaria lagun zuela, Breakthrough Listen fundazioa aurkeztu zuen aurtengo uztailearen hondarrean, geure zerutik haragoko inteligentzia seinaleak arakatu, eta aurkituz gero, gizateria zer den irudikatzen laguntzeko mezuak igortzeko helburuz.

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada, zioen burutsuenari ere aplika dakioken lelo ezagunak... Eta batez ere, tartean 92 milioi euroko aurrekontua patrikaratzeko aukera dagoenean, noski.

Gure alfabeto ez-osoan osatze aldera

Josu Delgado Rozas
Filosofia irakaslea

Ahatetxo itsusiaren orroa karrankari samarra da; ingurukoak izutzen ditu txorrotxioka aritzen den bakoitzean, ez baita hura haiek bezalakoa. Denek baztertzen eta gutxiesten dute gure ahate-txoa. Horren zantarra izaki, ahate-txoa bera izutuko da bere burua uretan ikusita halako batean. Egoera tamalgarri horrek iraungo du, harik eta ahate-txoa konturatu arte beltzarga dela eta ez ahatea, lehen uste bezala.

Euskara hizkuntza oso izatetik –denarako hizkuntza izatetik– hizkuntza ez-oso izatera behartua izan da, itsusi, motz, elbarri, zauritu, gaixo, eskale izatera derrigortua ez izaterako bidean; *dena eza, dena gabezia eta dena mingarria besamotzaren besoa bezala* poetaren hitzetan. Hortik heldu dira gure gaitz guztiak, sintomatologia zabala agertzen dutenak: hizkuntzaren kalitate gero eta eskasagoa, transmisioaren haustura, prestigiorik eza, batuaren eta euskalkien arteko osagarritasun bihurria, ezagutzaren hazkunde eta erabilaren moteltzea batera izatea, sormenaren eta senaren galera, adierazkortasunaren herdoiltzea, etorri berriak eta aspaldi etorriak euskalduntzearen balantze gazi-gozoa, erantzukizuna gure baitan bilatzea, euskal kulturaren kontsumo apala, egundoko ahalegin eten-gabea eta neurri bereko ezintasun jarraitua, besteak beste.

Sakon errotu dira guregan ohiko leloak: txikia dela euskara, ez duela kanpora joateko balio, besteen beharra duela osatzeko, zaila dela, izugarritzko abantaila dela elebidunak izatea, geure zilborrari begira egoteak pobretu egiten gaituela. Agerikoa beharko lukeena, berriz, zeinen estaliko bihurtu duten (hizkuntza-) boterearen ideien laborategian: hizkuntzak ez dira izatez indartsuak edo ahulak, baliotsuak edo baliogabeak, unibertsalak edo lokalak, modernoak edo antigoelekoak. Ezintasunaren arrazoia ez da intrintsekoa, kanpoan dago: botere-erlazioek hanpatzen dituzte batzuk eta gutxitzen besteak; ez du inporta hizkuntza hori zein den edo zenbatek hitz egiten duen. Euskararen estatus motza ez da gutxiengo baten hizkuntza izatearen ondorio. Gutxiengoaren kontzeptua oso erlatiboa da, baina ez da estatusarekiko koerlati-

boa. Islandieraz 320.000 lagun mintzo dira; ketxueraz, berriz, 10 milioi. Gustura hartuko lituzke ketxuerak islandieraren hiztun-kopuru urria eta haren osasuna bermatzen duen estatusa.

Euskarak, ketxueraren antzera, ez du inongo lurralderik beretzat gaur egun. Beste bi hizkuntza dotorekin partekatutako beharra dauka guztiz urratu dioten oihal zati bakarra, hori bera ere ukatzen ez badio uniformetasunaren negu gorrian. Luze daramagu autoestimua hankaren zolaren azpian dugula, eta horren arabera da gure jokabidea. Ahate-txoaren jokabide triste da gurea.

Baserrria izan omen zen euskararen gotorleku sasoi ilunenean. Ez zuen uste hainbat argitu PSEko buruzagi oso ezagun batek baserri zaharrak bota, eta kallean, etxebizitzak berriak eraiki behar zirela adierazi zuenean. Politikari sozialista ez zen, noski, hirigintzari buruz ari; bere irrika berdintzailea plazaratzen ari zen, asimilatzea bereizgarriak deuseztatzea baita. Euskararen arnasguneak –hondarrak, Odriozolaren esanetan– ez dituzte maite unionismoaren arkitektoek.

70eko hamarkadan Yrizarrek honako hau idatzi zuen: «*las muchachas de Iturnen aborrecen el euskera*». Gaur egun, Qaren lilurak ordezkatu du orduko egoera: euskararen alde egiten dugu alderdi sinbolikoan –aldarrikapenak egin, kamisetak jantzi...?– baina alderdi funtzionalean gaztelania elikatzen dugu haren neurri zarrizko balio-hierarkia baten arabera. Konplexu modu berria Qz idazten da, zailagoa da antzematen finagoa baita, gutxiesten eragilea hobeto moztortzen du, eta gutxiagotua lehen bezain eragile aktibo bihurtzen du. Gure-

Politikak hizkuntza berria behar du euskararen elikagaia adosteko. Eta hizkuntzak politika berria behar du zer elikatua egongo bada. Bien bitartean, menu bera euskararentzat, Madrilgo suetan luzaroan apailatzen aritu diren menua: Koldo Izagirrek erakutsi bezala, artsenikoz ondutako jaki pozoitsua

an, erdaraz ongi jakitea ez da aski; ezin bestekoa da euskararen arrasto guztiak ezabatzea –fonologikoak, morfosintaktikoak...–, eta hori, askotan, eskolatik bertatik ere bultzatzen da. Irlandako gaeltachtetan gaelikoa ito zen antzera, gure arnasguneetan gero eta oxigeno gutxiago dago euskararentzat.

Como los burros de Larrabezua, horrela hitz egiten omen genuen maisu gaztelau baten baitan, baldin eta buruaren mugimendu hutsez baietza edo ezetza adierazten bagenuen. Txikitako Santutxu hartan, baserriak eta zelaiak desagertu ziren hamabost urteren buruan: kiratsa zuhaitzaren orde eta so-loen tokian solairuak. Izanaz gain, mahats herriak izena ere galdu zuen porlan herri bilakatuta.

Larrabezua, guk ez jakin arren, ondo ondoan genuen: gaztelaniaz nekez egiten zuen ikaskide berri bat eta Txurdinagako azken baserriarrak ziren hangoak, Larrabezuako unibertso hautsi-koak; eszentrikoak, anormalak, indarrez ezarritako normaltasun zaharberrian. Gerora, Larrabetzu birtortzeko asmo sendo kolektiboa etorri zen. Orduetik hona, Administrazio berriak eskolaren esparrua jorratu izan du. Emaizta jakina da: euskararen eza-gutzak goiti egiteak ez du erabilera esanguratsurik ekarri –ezagutza hutsak, besterik ezean, ez dakar hiztunak behar duen adierazkortasuna, komunikazio-erosotasuna–. Euskara hizkuntza akademiko bihurtu zaigu erdaldundutako tokietan; ezagutza hori, noski, pasiboa da, latin ihartuaren antzera.

Demokrazia zerri askara botatzeko talenturik ez dugu, nonbait. Eta politikak hizkuntza berria behar du euskararen elikagaia adosteko. Eta hizkuntzak politika berria behar du zer elikatua egongo bada. Bien bitartean, Baztango erara edo Santutxuko erara, Oiarzun-gora edo Irungora, menu bera euskararentzat, Madrilgo suetan luzaroan apailatzen aritu diren menua: Koldo Izagirrek erakutsi bezala, artsenikoz ondutako jaki pozoitsua.

Museotako gaelikoa edo latin antzu bat ikusten ditugu etxeko ispiluan, hilotzak eta bizi nahia aurrez aurre. Auzoan, berriz, Kataluniako jendartea *llengua, cultura, pais* amets ederrak esnatu du. Katalanaren –eta kalitatearen– Krairistek Qaren morrontzatik askatzea eta geure alfabeto erdigunean jartzea esan nahi du. Ahalduntzea, behingoz. Gauzak aldrebes ikustea, Arestik zioen bezala. Getarian sagua ikusi beharrean, balea ikustea. Ispilura begiratzea eta arranoa ikustea.

De Rerum Natura

@zaldieroa



HIZPIDEAK

Inporta duena

Mikel P. Ansa @peruarenaansa

Igandean Bilbora heldu zen Emakumeen Mundu Martxa, azkeneko ekitaldiak eta adierazpenak egin, eta Portugalera bidea hartu zuen ostera. Ordu horietan berorietan, Erandioko etxe batean hilda zegoen 39 urteko emakume bat. Larunbatz geroztik haren arrastorik ez, eta desagertpe-

naren berri emana zuten senideek. Gorpua atzo aurkitu zuten, eta emakumearen bikotekidea atxilotu zuten ertzainek arratsean.

Emakumeen Mundu Martxa igandean heldu zen Bilbora, eta gogora ekarri zuen uda honetan Gasteizen feministen eta blusen artean izandako liskarra. Bortxakeria erabiltzea egotzi zieten blusek emakume taldeei. Elkarretaratze bat ere egin zuten. Eta soka luzea ekarri dute gertakari haiek, emakume taldeen eta feministen artean ere eztabaida bizia sortuz: zer-nolako ekintzak diren zilegi eta baliagarri feminismoarentzat, eta zer-nolakoak ez. Emakumeen Mundu Martxa ekitaldia egiten ari zen ordu horietan berorietan, eztabaidak eztabaida, 39 urteko emakume bat hilda zegoen Erandion.

Feminismoak indarra eta haren diskurtsoak hedapena handitu ahal, haren kontrako eta haren barneko tentsioak ere agertzen hasi dira; begien bistakoa da. Baina inporta duena bereizten ere jakin behar da, ordu horietan berorietan Erandion hila zegoelako andre bat. Eta urteak dagoeneko hiru andrazko daramatza bizkarrean hilik. Hiru gehiago. Gizarteak erronka larri eta astunegia du bizkar gainean, eta egiaz inporta duenari serio eusteko garaia da.



Andre bat hilda aurkitu dute Erandion. LUIS TEJIDO / EFE

Triska

Ttak-ttak, katea aldatu, eta tertulia bat te-
lebistan politikari profesionalekin; edo politikari profesionalak bezain alienatuak dauden kazetari batzuekin zen, ez dut gogoan. Edo agian irratian izan zen, ez naiz ondo akordatzten. Edo legebiltzarreko eztabaidaren



HITZ BESTE
Anjel Lertxundi

batean, auskalo. Total, berdin samar dio: elkarri hitza kentzen ari ziren, horrek du munta; triska batean (triskatik dator triskantza) eta elkarrekin oso haserre. Kolore desberdinetako politikari (edo kazetari) profesional askok ohi duen gisa: zakur-
zaunkak beste zakur baten zaunka estali nahian bezala: «Nik ez dut zure jarduna eten; zuk orain ez eten nirea! Utzi hizketan, jode». Ez kortesiarik, ezta adimen zantzu handirik ere. Eta lotsaren arrastoa, etxean utzita.

Gero etortzen omen da deigarriena: tertulia (edo Parlamentuko debatea) bukatutakoan, mutur joka hastekotan zeudenak elkarrekin joaten omen dira tragotxo batzuk jotzera. Ez omen dute triskarik izaten.

emakume (ederrak ere bai, jakina) konkistatuko dituztela. Hango bazterretan hiru txakur txikiren truke lan la-tza egin ostean bertako zutabe bilakatzaren direnean, «zerebroen» itzulerarako programa indarberritu (sosak jarrita) eta Euskal Herrira ekarriko ditugu berriz. Gosea pasatzera ekarriko ditugu ekintzaile bilaka ditzaten euren buruak, jakina baita goserik ez ean ekintzaileta gauerdiko ahuntzaren ez-tularen antzeko dela. «Eta honetan bizitzen gera sortuz ta sortuz gure auke-rak, atsedunik hartu gabe (bis), lana eginaz goaz aurrera kate horretan de-nok batera gogorki loturik gaude» (baita, ordurako, gure ez hain gazteen azukre koxkor ederrak ere).

Gibela, gaubeila eta goibela zein antzekoak diren pentsatu duzue inoiz?

Gibelak alde

Iparragirre bizirik balego, bere kantuaren esaldia aldatu behar-ko luke. Izan ere, Pello Gibelalde Adegiko lehendakariak esan duenaren arabera (edo aditu diodanaren arabera) bihotzak, dagoeneko, ez dio gazteari esango «zoaz Euskal Herrira»; atzerrian, emakume eta gizon ederrak aurkituko dituelako eta bihotzak hara eramango duelako. Ez dakit seme-alabarik ote duen Gibelalde eta lehengoan bota zituenak bere etxekoei botatako errieta ote ziren, baina ni honzekero nahastuta nago. Batetik, pertsona helburu da, eta pentsatzen dut «persona» adieraren barruan ere gaz-



LARREPETIT
Goizalde Landabaso

teak egongo direla. Gurean hazten eta hezten diren gazteak ez dira galdu behar, diote, beraiengan inbertitutako dirutza ezin da galdu. Eta gero, berriz, Gibelalde irteten da gazteek mahai-gainea jantzi eta oparoa dutenez alfertu egin direla esatera (beharbada txarto ulertu nion). Joxean Sagastizabalek *Gerturik daukagu odola* eleberri hartan euskaldunak mundua euskalduntzeko bere banpirotasuna zerabilen; orain, ordea, gure gazteek mundua konkistatzeko (eta euskalduntzeko, bidenabar) euren bihotza izango dute lanabes. Hain dira ederrak gure gazteak mundu zabal horretan aurkituko dituzten gizon eta

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Petxarroman
Edizio arduraduna:
Idurre Lazkano
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea:
Bidera publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.eus
Posta elektronikoa:
berria@berria.eus
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 06/10/2015
Exemplaire: 3.812
Editeur: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.eus

Ordezkaritzak
Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzio faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa: araba@berria.eus.
Bizkaia: Urribarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzio faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa: lapurdi@berria.eus.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.

berria

Esaldiak

Inuzentea, inuzentekeriak esaten dituen da». Badakit hau ez dena Forrest Gump-pek hitzez hitz esandakoa, baina kasurako eta irudi ezin gardenagoa ematen digulako, uste dut balekoa dela. Eta zergatik burutazio hau? Bada, egunotako beste esaldi xeble bat ekarri dit gogora: plater bat plater bat da eta baso bat, basoa; *trending topic*-a esaldi erridikuluaren artean. Politikan gauzak okertzen zaizkigunean eta aterabiderik ez dagoenean, hobe isilik egotea zeren horrelakoak botatzea ez da ideia ona izaten. Halere, batzuek ez dute eskarmenturik hartzen. Eta ez dakit mendekua edo izorratze-agatik besterik ez bada ere, Rajoy presidentea oraingoan, eta ohi-koa duen plasmaren bidezko komunikazioan, Gabonak emango dizkigula esateko agertu zaigu. Opariei begira, Erregentakoa-goa ikusten dut Mariano; gurean ostera Olentzero ikazkina arduratzen da horretaz, beraz... he-

mendik ezer esperoan, zalantza izpirik ere ez. Ovidiok zioen tantak ez duela harria indarraren indarrez zultzen, baizik eta irmotasunez. Horrela jokatu dutela ziurtatu digute katalanek. Gehiengo handi batek beteko du parlamentu berria eta independentziaren alde egin beharreko guztiak egiten saiatu direla ziurtatu digute. Errespetuz, pausoz pauso, baina legeak eta hauteskundeek emandako ordezkariaren zilegitasunez, galdu dutenen hausnarketa interesatu eta tranpatitik at, euren nazioa nazio izan dadin ahalegin-duko dira. Hasiko dute bidea eta nik adi-adi jarraituko ditut ematen dituzten pausoak, seguru bainago hemen ere laster batean ekingo diogula geureari; une ezin egokiagoa oraindik gelditzen zaizkigun harri-koxkorak behin betirako bidetik ateratzea lortuko bagenu. Bitartean, Espainiako lider politikoek aurreratzen dizkiguten helburu eta asmoen arras-



ARKUPEAN
Amaia Espinosa

Hasiko dute bidea (Katahunan) eta nik adi-adi jarraituko ditut, seguru bainago hemen ere laster batean ekingo diogula geureari; une ezin egokiagoa oraindik gelditzen zaizkigun harri-koxkorak behin betirako bidetik ateratzea lortuko bagenu

toek egindako bidea desegitera eraman gaitzake. Zuhur ibiltzea daukagu beraz, eta atzerantz, indarra hartzeko besterik ez dugula egingo argi utzi.

Gandhik norbanako erantzukizuna azaltzeko hauze utzi zigun: «Munduan ikusi nahi duzun aldaketa zugandik hasi beharko duzu». Joan den astean ETAK azken atxiloketen abaguneaz baliatuz, berba egin du eta bere konpromisoak mantendu eta gaitasuna nahikoa duela hauek betetzeko esan digu. Ez dakit zer pentsatu; hitza beteko duela eta desagertuko dela? Kapaz dela aurrera jarraitzeko? Zerbait esan beharra zekala bizirik dagoela nabarmentzeko? Lau urtez eta oraindik hau! Euskal gizartea, bakoitzak bere erritmoan, bakearen aldeko ahaleginetan tinko ari den bitartean, ETA, kristalezko kanpian dagoen txoriak lez, gero eta aire pozoi-tsuagoa arnastuz, nabarmen suntsitzen. Bizkortu beharko lukete eta gelditzen zaien oxigeno apu-

rrarekin eragindako mina aitortu eta behin betirako joan. Aske izateko arimak ere libre behar du izan eta.

Defentsarako babes nahikoa denean, ez da ezpata erabili behar esan zuen F. De Vitoriak Afganistanetik negarra; kalte kolateralak omen. Estatu Batuek eragindako kalteek izen ezberdinak dituzte, abizena aldiz, bat eta bera elkartasuna. Gertatutakoa ezintasunak min ematen duen horietakoa izan da. Abisatuta ei zeuden bonbardaketa hiltzailea burutu zutenak; ospitalea zela, gizarte zibilak erabiltzen zuela, ume, ama eta zenbait mediku eta erizain boluntarioak zeudela; alferrik! Lehenengo ezpata eta gero babes, hau ere kolaterala antza.

Baten batek gay dela esaten badi, nor naiz ni kritikatzeko? Esan zuen Frantzisko Aita Santuak 2013an, eta berarekin batu zen lehen transexualari: Jakina zarela Jaungoikoaren semea! Familiaren sinodoari hasiera ematen zaion egun berean, ordea, Vatikanoko apaiz batek homosexuala dela plazaratu ondoren, kuriak berehalako kargugabetzea erabakitzen du. Asisko Frantzisko; erruki zakiguz.

ZUZENDARIARI

'The flowers'

Espainiako Zinema Akademiak euskara hitsezko *Loreak* filma bidaliko du Hollywoodera, *made in Spain* kalitateko produktuaren erakusgarri. Zorionak Jon, Joxe Mari eta parte hartu duzuen guzti-guztiei. Ondoren, fiabardura batzuk. Euskaldunok dugun ondare preziatuenetako bat memoria historikoa da. Horregatik, aurreko artikuluko batean, ea euskaraz kultura espainola egin zitekeen galdetzen nion neure buruari.

Historian zehar Espainiako gobernuak eraso, debeku eta hizkuntza genozidioa bortizki erabili ondoren, zertara datoz laztantxo hauek? Katalanen hizkuntzari egiten zizkieten ferekak eraso bihurtu direnean, zergatik guri igurtziak? Espainiatik jarrera aldaketa badator, baliatu dezagun. Hala ere, etorkizuna planifikatzerakoan ez ahaztu memoria historikoa.

Beñi Agirre. Euskara irakaslea.

Ez dut ezer ulertzen

Urrun ez den egun bateko goiz batean egunkaria hartu, eta hara zein bi

albiste topatu nituen, bata bestearen atzetik.

Lehenengoan, EAeko Lehendakari Jaunak (hitz larriez hasita, noski, larria baita kontua) Estatu espainolak errespetatuko dituen (?) eta bozkatuak izango diren erakunde akordioak lortzeko helburua aipatzen zuen, *Euskadi* nazio gisa aitortua izan dadin (?).

Bigarrenean, Madrilgo legebiltzarreko Amaiurreko diputatu batek «babes sendo bat» (?) eskatzen zuen datozen hauteskundeetan, erabakitze eskubidea eta «euskal gatazka politikoren irtenbidea» Madrilen «exijitzeko» (?).

Baina, besteak beste, Ibarretxe plana eta Kataluniako kontuaren adibideak ikusita.... inork pentsa al dezake *Euskadi* eta Espainiar Estatua maila berean jarriko dituen akordio bat lortzea eta gauzatzea posible dela? Inork pentsa al dezake Madrilen 5, 6, 7 edo 8 eserleku lortuz gero Estatu espainolari ezer «exijitu» dakiokenik? Zergatik saltzen dizkigute noragabeko bideak, esperientziak argi eta garbi erakusten duenez? Ni izango al naiz gure herrian hau irakurtzean zur eta lur geratzen den zoro-bakarra?

Barkaidazue, lagunok, baina ez dut ezer ulertzen. Eta zuek?


Iñigo Larramendi. Gasteiz.



«Gauzak aldatzen ari dira. Pertsona adinez heldua izatea ez da jada arazoa. Aukera bat da gauzak aldatzeko, eta berrituz joateko»

Angel Toña

Eusko Jauriaritzaren sailburua Enplegu eta Gizarte Gaietarako



ERREPIDEAN ATXILOTUAK

Iruñeko Udaltzaingoak zazpi pertsona atxilotu zituen pasa den astean alkoholak eraginda gidatzeagatik, gida baimenik gabe autoa gidatzeagatik edo gida baimena erretiratuta izanda autoa gidatzeagatik. Beste 27 gidarik alkoholaren tasa pasata zuten, baina ez delituztat hartzeko adina.

TWITTERREN MOKOKA

●●● «Beltzez jarri dugu gure perfileko argazkia Erandion izandako erailketa matxista salatzen. Aski da! #MatxismoakHiltzenGaitu!»

Euskal Herria Bildu (@ehbildubizkaia)

●●● «Nazkatuta gaude! Bihar eta etzi kalera! #MatxismoakHiltzenGaitu»

EH Emakumeen Martxa (@emakumemartxa)

●●● «Beste emakume bat eraila!! Bihar Erandion eta etzi hiriburuetan kalera! #MatxismoakHiltzenGaitu eta nazkatuak gaude!»

Nagorgorita (@nagorgorita)

●●● «Mugimendu feministak deituriko elkarretaratzeetara atxikitzen gara!»

#MatxismoakHiltzenGaitu @emakumemartxa»

Gazte Abertzaleak (@gazte)

●●● «Bihar eta etzi kalera!»

#MatxismoakHiltzenGaitu»

Sortu Bilbo (@sortubilbo)

●● Aski da! #MatxismoakHiltzenGaitu @emakumemartxa»

LAB Metro Bilbao

(@Labmetrobilbao)

Tanttoa

Errugbia Ingalaterraren porrot historikoa Munduko Kopan • 26

Mendi duatloia Julen Larruzea, euskal zirkuituko txapelduna • 28

Futbola Robert Lewandowskiren gol betekada • 30



Euskal izaerak erakarrita

Mikel Landa eta Beñat Intxausti fitxatuta, 2016an bost euskal txirrindulari elkartuko dira Skyren egitura indartsuan • 24



MIKEL LANDA

Jaioterria. Murgia (Araba).
Jaioteguna. 1989ko abenduaren 13a.
Altuera. 1,73 metro.
Pisua. 60 kilo.
ibilbidea. Orbea (2009-2010), Euskaltel-Euskadi (2011-2013), eta Astana (2014tik).
Lorpen garrantzitsuenak. Burgosko Itzuliko etapa bat (2011); Trentinoko Giroko etapa bat (2014); Euskal Herriko Itzuliko etapa bat (2015); Giroan bi etapa eta hirugarren postua (2015); eta Vueltako etapa bat (2015).

BEÑAT INTXAUSTI

Jaioterria. Muxika (Bizkaia).
Jaioteguna. 1986ko martxoaren 20a.
Altuera. 1,75 metro.
Pisua. 61 kilo.
ibilbidea. Nicolas Mateos (2007), Saunier Duval, Scott, Fuji (2008-2009), Euskaltel (2010), eta Movistar (2011tik).
Lorpen garrantzitsuenak. Asturiasko Itzulian etapa bat (2010); Asturiasko Itzulia (2012); Giroko etapa bat eta 8. postua (2013); Pekingo Itzulia eta etapa bat (2013); Giroko etapa bat (2015); eta Dauphinen laugarren postua.

XABIER ZANDIO


Jaioterria. Iruñea.
Jaioteguna. 1977ko martxoaren 17a.
Altuera. 1,84 metro.
Pisua. 73 kilo.
ibilbidea. iBanesto.com (2001-2003), Illes Balears, Caisse d'Epargne (2004-2010) eta Sky (2011tik).
Lorpen garrantzitsuenak. Mendateetako klasikoa (2005) eta Burgosko Itzulia (2008).

DAVID LOPEZ

Jaioterria. Barakaldo (Bizkaia).
Jaioteguna. 1981eko maiatzaren 13a.
Altuera. 1,79 metro.
Pisua. 67 kilo.
ibilbidea. Cafes Baque (2003-2004), Euskaltel-Euskadi (2005-2006), Caisse d'Epargne, Movistar (2007-2012) eta Sky (2013tik).
Lorpen garrantzitsuenak. Alemaniako Itzuliko (2007), Espainiako Vueltako (2010) eta Eneco Tourreko (2013) etapa bana.

MIKEL NIEVE

Jaioterria. Leitza (Nafarroa).
Jaioteguna. 1984ko maiatzaren 26a.
Altuera. 1,73 metro.
Pisua. 62 kilo.
ibilbidea. Orbea-Oreka (2008), Euskaltel-Euskadi (2009-2013), eta Sky (2014tik).
Lorpen garrantzitsuenak. Vueltan etapa bat eta 10. postua (2010); Giroan etapa bat eta 10. postua (2011); Vueltan 10. postua (2011); Giroan 10. postua (2012); Tourrean 12. postua (2013); Dauphinen etapa bat (2014); eta Vueltan 8. postua (2015).



Mikel Landa eta Beñat Intxausti fitxatuta, hurrengo urtean Euskal Herriko bost txirrindulari elkartuko dira Skyren egiturari. Xabier Artetxe taldeko prestatzaileak ukatu egin du espresuki euskal merkatura begira ibili direla, baina goratu egin du euskal txirrindularien berezko gaia.

Izaera ez da kasualitatea

Unai Zubeldia

Kasualitatea da». Xabier Artetxek (Larabetzu, Bizkaia, 1978) badaki zeri buruz ari den hizketan. «Ez dut uste Sky ezkutuko arrazoiren batengatik ibili denik euskal merkaturan bila. Txirrindulari onak dira biak». Mikel Landa eta Beñat Intxaustiri buruz hizketan ari da bizkaitarra. Xabi Zandio, David Lopez eta Mikel Nieve iritsi ziren lehenengo

Skyra, 2011n, 2013an eta 2014an, hurrenez hurren; eta Landak eta Intxaustik eurekin bat egingo du te 2016an. Euskal kutsu argia hartzen ari da Chris Froome buru duen taldea. Bost euskal txirrindularien ondoan jarri beharrekoak direlako Artetxe bera, prestatzaile lanetan, eta Iñigo Sarriegi beasaindarra, mediku lanetan —ondo bidean, beste fitxaketa bat ere egingo du, laster, taldeak—.

Banaka-banaka aztertzen hasita, Artetxek gogoan dauka «Rigoberto Uranekin batera» iritsi zela Zandio taldera. «Kolonia-

rrari babes pixka bat emateko helburuarekin». David Lopez fitxatu zuten gero. «2012 amaieran Caisse d'Epargnetik kanpo gelditu zelako». Nievek bat egin zuen gero bikoarekin. «Euskaltel-Euskadiren aroa amaitu ondoren», 2013an. Eta Landak eta Intxaustik osatuko dute bostekoa. Zer lortu nahi du, ordea, Skyk bi txirrindulari horiekin? «Etorkizunean itzuli handi bat irabazteko hautagaia da Landa». 2016an Giroa izango da bere erronka, eta, talde aldatuta, murgiarrek heldutasunean «koska bat gora» egin de-

zakeela uste du larrabetzuarrak. «Taldekideak bete-betea ariko dira bere alde lanean».

Landaren ondoan, Skyko prestatzaileak goratu egin du Intxaustiren kalitatea ere. «Beti egon izan da onenen artean, bai astebeteko itzulietan eta bai World Tourreko sailkapenean». Astebeteko itzuli horietan «onena» emateko eskatuko dio Skyk. «Podiumean sartzeko edo irabazteko borrokan egotea»; lehiakorra izatea. Eta taldeburuaren alde lan egin behar du itzuli handietan. «Taldeburu argiak daude Skyn, eta

Intxausti mugatuago egongo da bere emaitzen alde apustu egiteko. Babesean joan ahal izango du, agian, baina ez da izango taldeburua». Chris Froome, Geraint Thomas, Mikel Landa, Leopold Koenig... Horiek guztiak zerrendatu ditu Artetxek Skyko taldeburu gisa. «Hori bai, oso txirrindulari gutxi dira gai Intxaustik mendateetan gora egiten duen lana egiteko».

Deigarria da egoera, Dave Brailsfordek, taldeko managerrak, oso gertutik zaindu dituelako Izagirre anaiak ere. «Baina



kintza oso onik ez daukagulako. Baina, hala ere, oso-oso pozik daude Euskal Herriko txirrindulariekin». Kasualitateari izaera gehituta, beraz, Skyk Iruñean sortu du taldearen hiru guneetako bat. «Zandio, David Lopez eta Nievez gain, Euskal Herrian bizi dira Henao lehengusuak –Sergio Luis eta Sebastian– eta Vasil Kirienka ere». Eta egitura hori egonkortze aldera fitxatu zituen Skyk Artetxe eta Sarriegi. «Gurekin komunikazioa zuzenagoa eta erosoagoa delako». Horregatik eman zioten bizkaitarrari multzo horren prestaketaren ardura.



«Itzuli bat irabazteko hautagaia da Landa, eta gutxi dira gai Intxaustik mendateetan egiten duen lana egiteko»

«Beste hainbat euskal txirrindularientzat lagungarri izatea espero dugu Skyn jorratzen ari garen bidea»

Xabier Artetxe
Skyko prestatzaile fisikoa

Larrabetzuarrak argitu du taldeak «Monako-Niza inguruan» daukala bigarren egitura. «Txirrindulari asko bizi dira han, eta taldeak etxe bat ere badauka han». Eta Manchesterreko gunea da hirugarrena, taldearen berezkoa. Prestatzaileak azaldu du «kalitatearen izenean» Skyk garrantzi handia ematen diola «gertutasunari, komunikazioari eta eguneroko lanari». Eta bide baten ondorio dira, beraz, Skyren azken bi fitxaketak.

Taldeak egituraren herena Iruñean kokatu izana «ona» da bertako euskal langileentzat ere, noski. «Bai, bai; ez dugu ukatuko. Etxeko zenbat eta txirrindulari gehiago eduki, orduan eta erosoago lan egiteko aukera izaten da, eta, nahi edo ez, ezinbestekoago bihurtzen da norberaren lana ere». Artetxeren kontratuan ez da ageri epemugarik. «Eurek ez dute sinesten urte kopuru zehatzetan. Gauzak ondo eginez gero, epe luzerako nahi izaten dute jendea, baina ikusiko dugu». Pasio handiarekin ari da lanean. «Eta Euskal Herriko txirrindularientzat eta langileentzat ere ona da merkatua zabaltzea eta kanpora begiratzea, kanpoan dezente begiratzen diotelako Euskal Herrian

txirrindularitzaren alde lanean ari garenok egiten dugunari».

«Landa eta Intxausti fitxatu edo ez pentsatzen hasi zirenean, beste hainbat izen ere edukiko zituzten zerrendan», hasi du hausnarketa bizkaitarrak. «Baina itzuli handi bat irabazteko eta lan handia egiteko hautagaiak izateaz gain, ondo inguratuta egongo dira biak. Harreman ona daukate Nieve, Zandio eta David Lopezekin. Ezagutzen dute jendea, babestuta sentituko dira, eta horrek lagundu egingo die egokitzen».

Nazioarteko atea, irekita

Caja Ruralen eta Movistarren zailduta, «nazioarteko atea» irekitzeko erronka zeukan Artetxek. Onartu du eskaintza jaso zuenean «beldur pixka bat» sentitu zuela hasieran. «Baina ezinezkoa zen ezetz esatea». Larrabetzuarrak beti eduki izan du buruan atzerri joatea. «Nola lan egiten duten bertatik bertara ikusteko». Kirol zientzietako oinarria barneratuta dauka aspalditik. «Eta azkenaldian herrialde anglosaxoietan egin dute ikerketa gehien txirrindularitzaren fisiologiaren inguruan; australiarrek, ingelesek, estatubatuarrek». Txirrindularitza, kultura aniztasuna eta kirol zientziaren harrobia. «Denak bat egin zuen Skyk eskaintza egin zidanean». Eta aurrera egin zuen. «Beti dagoelako denbora pauso bat atzera emateko».

Skyrena Euskal Herrira ekartzeko «proiektu ederra» litzatekeela uste du Artetxek. «Azken sei urteotan hiru aldiz irabazi dute Frantziako Tourra, eta garrantzitsua da hori. Baina azkenaldian federatuen kopurua maila harri-garrira iritsi da, eta hori saltzen dute eurek». Talde profesionala «aitzakia» da txirrindularitzaren inguruan giro berezia sortzeko. «Gero eta jende gehiago ibiltzen da bizikletan, jendeak bere sentitzen du kirol hau, irudi ona dauka... Denak elkarren ondoan daude, sinergiak bilatzen dituzte, eta lotura handia daukate euren artean».

Eusky, Skytel... Euskal zaleak jolasean hasi dira, jada, Skyn elkartu diren Euskal Herriko bost txirrindulariekin. Iruñean egitura sendotuta, ate txiki bat irekitzen ari zaie euskal txirrindulariei. Izatez, ez da irtenbidea euskal txirrindularitzarentzat, egitura eta oinarri sendoagoak behar direlako garai batean Euskaltel-Euskadi izan zen hartara gerturatzeko. «Baina Skyn jorratzen ari garen bidea beste hainbat euskal txirrindularientzat lagungarri izatea espero dugu».



Sagan, Basso, Contador eta Nibali, atzo, Giroaren aurkezpenean. D.D.Z./EFE

Hiru erlojupeko eta mendian amaituko diren lau etapa, 2016ko Giroan

Orekatua da ibilbidea, 61 kilometro pilatuko dituzten arren bakarkako lanean, horietatik 10,8 Alpe di Siusiko kronoigoeran, 15. etapan

U. Zubeldia

Jakina zena jakinarazi zuten atzo Giroko antolatzaileek. Gordean eduki nahi izaten dute beti, baina bospasei egun lehenago webgunean bertan agertu eta desagertu zen 2016ko Giroko ibilbidea. Ezuste handirik ez zen izan, atzo, Milanen –Ivan Bassok erretiroa hartuko duela jakinarazi zuen aurkezpenean–: hiru erlojupeko izango ditu hurrengo urteko ibilbideak, hiru saiotan banatuta –61 kilometro denera–; eta bost etapa amaituko dira mendatean. Maiatzaren 6an hasiko da, Apeldoornen, Herbehereetan, eta maiatzaren 29an amaituko da, Turinen.

9,8 kilometroko bakarkako erlojupekoarekin hasiko da itzulia, eta, haize kontuak gorabehera, esprinterentzat aproposak izango dira lehen asteko amaiera gehienak. Roccarason (6. etapa), Sestolan (10. etapa), Andalon (16. etapa), Risoulén (19. etapa) eta Sant'Anna di Vinadion (20. etapa) amaituko dira mendiko etapak. Azken biak dira bereziki gogor-gogorak. Hori bai, 14.a ere erabakigarria izango da, Alpagon hasi eta Corvaran amaituko dena. 210 kilometro edukiko ditu, eta sei mendate igo beharko dituzte.

Aurretik, ordea, alde handiak sortuko dira 9. etapan, 40,4 kilometro erlojupeko gogorrean. Oso gorabeheratsua da ibilbidea. 15. etapan aurre egin beharko diote bakarkako azken lanari, Alpe di Siusira arteko 10,8 kilometroko kronoigoerari. Maiatzaren 6tik 29ra, hiru atseden egun izango ditu lasterketak.

Movistar eta Valverde

Herenegun amaitu zen World Tour denboraldia, Lombardiako Giroarekin. Vincenzo Nibalik (Astana) maisuki atera zuen Vueltako arantza –kanporatu egin zuten orduan, taldeko autoari helitzeagatik–, eta etxean irabaziz amaitu zuen sasoi. 21 segundo atera zizkion Dani Morenori (Katusha), eta 32 Thibaut Pinoti (FDJ). Mikel Nieve (Sky) izan zen euskaldunik onena, seigarren.

Alejandro Valverdek (Movistar) irabazi du World Tourra, laugarrenez –Pro Tourra 2006an eta 2008an, eta World Tourra iaz eta aurtén–. Taldeka, berriz, Movistar izan da indartsuena, hirugarren urtez jarraian. Ion Izagirre (Movistar) izan da euskaldunik onena, 30. postuan; 34. amaitu du Mikel Landak (Astana), eta 44. Mikel Nievek (Sky).

Movistarrekin kontratua berritu zuten biek. Egitura horretan dago Jonathan Castroviejo ere». Txirrindularitzaren aro moderno honetan, horiek guztiak Skyrentzat «txirrindulari interesgarriak» direla aitortu du Artetxek. «Eta atzetik iristen ari dira Omar Fraile bera, Peio Bilbao, Imanol Estevez, Alex Aranburu... Horiek ere, ziurrenik, Skyren zaintzapean egongo dira berandu baino lehen». Artetxeren hitzetan, «ezer berririk sortu ezean», Euskal Herrian ez dago aukerarik aurrera egiteko. «Eta, gaur egun, ezinbestekoa da atzerri joatea».

Ingelesarekin, betiko ezina

«Kasualitateari» beste koxka bat estututa, ordea, «euskal txirrindularien izaera» hartu du hizketa gai larrabetzuarrak. «Langileak gara, den-dena ematen dugu taldearen alde, ez dugu arazorik sortzen...». Artetxeren hitzetan, gehienetan komunikazioan izaten dituzte arazo handienak. «Egungo hezkuntza ereduarekin, zoritxarrez, ingelesaren ja-



Ingalaterrako selekzioko jokalariek, lur jota, Australiaren aurkako partidaren amaieran. FACUNDO ARRIZABALAGA / EFE

Txapelketaren antolatzailea izaki, Ingalaterrako selekzioa faboritoetako bat zen Munduko Kopa irabazteko. Ligaxkako hiru partida jokatu, ordea, sailkatzeko aukerarik gabe geratu da jada.

Herrialde oso bat lur jota

Eneritz Zabaleta

Iragan larunbateko panorama beltza zen oso Londresko Twickenham estadioan. Australiaren aurka galdu eta gero (33-13), Ingalaterra Munduko Kopan aurrera egiteko aukerarik gabe gelditu zen. Uharte osoan, tragedia nazionala izan zen etxeko taldearen kanporatzea. Ingalaterrak bere lurretan antolatutako lehiaketa irabaztea zuen amets, baina hasi eta berehala esan behar izan du agur.

Aste bat lehenago Galesen aurka galdu eta gero (25-28), Australiaren aurkako partidaren atariko mobilizazio nazionala izan zen. Garaipena behar zuten ingelesak Munduko Kopako final-laurdenetarako sailkatzeko aukerari eusteko. Arrosaren hamabosteko-ak, baina, ez zuen lortu bere Munduko Kopan bizirik jarraitzea.

Ingalaterra ez da izanen, beraz, etxean Munduko Kopa irabazten duen bigarren selekzioa -Hegoafrikak etxean jokatu eta ekitaldia irabazi zuen, 1995ean-. Okerrogo, lehen selekzioa izanen da berak antolatzen duen Munduko Kopatik lehen itzulian kanpoan gelditzen. Ingelesen porrota herri oso baten porrota bihurtu da.

«Erabat jota nago». «Lotsa izugarria da. Nire biziko unerik okerrrena da». «Traizio egin diegu zaleei». Hurrenez hurren, Jonny Wilkinson irekitzaile ohi eta 2003ko Munduko Txapelaldun ingelesarenak, Simon Robshaw oraingo kapitainarenak eta Stuart Lancaster hautatzailearenak dira hitzak. Nazio oso batek jasotako kolpea laburbiltzen dute.

Horrelakoetan ohikoa izaten den bezala, kritika ugari jaso ditu taldeak. Kazetariak, hautatzaile eta jokalariek, beste kiroletako izarrak... anitzek egin du Ingalaterraren porrotaren analisisa. Faktore anitz dira kontuan hartzekoak. Beroan bero, ez da aise Ingalaterraren porrota azaltzeko arrazoiak ematea.

Batzuek taldearen prestakuntza falta azpimarratu dute: «Burririk gabeko lapinak ziruditen jokalariek», esan du Iain Balshaw Miarritzeko eta Ingalaterrako selekzioko gibeletako ohiak. Lesio batzuek ere ez dute lagundu. Billy Vunipola eta Courtney Lawes falta izana bereziki nabaritu da.

Lancasterren hautu batzuk ere kritikatuak izan dira. Besteak beste, Sam Burgess 13ko errugbiko izar ohi hautatzea leporatu diote; George Forden ordezkari Owen Farrellen alde egitea


ere bai. Baina, bereziki, zelaian oldarkor aritu bai baina zelaitik kanpo diziplina arazoak dituzten jokalariek kanpoan uztea egotzi zioten. «Hartley, Care, Tuilagi eta halako jokalariek beste nortasun bat emanen zioten taldeari», azpimarratu du Lawrence Dallaglio hirugarren lerro ohi ospetsuak.

Lancaster, arriskuan

Porrotak lehen biktima bat egin dezake: Lancaster. Larunbatean, dimisioa emanen zuenez galdetuta, ez zuen erantzun nahi izan: «Ez da horretarako garaia». Haren buru eske dabil jende anitz. Baina 2020ra arte kontratua du federazioarekin. Dimisiorik ezean, garesti aterako zaio Lancaster kanporatzea federazioari. Oraingoz, deus ez dago argi. Lancasterrak postuan segitzea ere posible da. 2007an, final-laurdenetan galdu ondok, Graham Henryk Zeelanda Berriaren buru jarraitu zuen, eta txapelaldun izan zen gero 2011n. Grahamen kasuan inspiratuz, baliteke federazioak oraindik Lancasterrari konfiantza ematea. Baina jende askok haren burua galdetzen du, eta ikusi beharko da presio horri nola erantzunen dion federazioak. Gauza bat, bederen, argi dago: hurrengo asteetan aldaketa anitz izanen dira selekzioan.

Iñigo Martinezek min hartu du ezker aldakan

FUTBOLA • Zoritxarreko eguna izan zen larunbata Iñigo Martinezentzat. Batetik, hark egindako bi huts larriek Reala kondenuatu zuten Malagan (Espainia). Bestetik, neurketa horretan bertan min hartu zuen ezker aldakan. Beraz, ez da ariko aste honetan Espainiako selekzioarekin.



Ander Vilariño, podiumean. BERRIA

Ander Vilariño: «Asko sufritu dut titulu hau lortzeko»

AUTOMOBILISMOA • Ander Vilariño hirugarrenez irabazi zuen herenegun Europako Nascar txapelketa, Zolderren (Belgika). «Oso pozik nago, urte oso gogorra izan baita. Asko sufritu dut titulu hau lortzeko», aitortu zuen. Tituluari esker, Vilariño berriz ariko da AEBetako Nascar proba batean.

Final-zortzirenak ostiralean hasiko dira, Tolosan

PILOTA • Ostiralean ekingo zaie lau t'erdiko final-zortzirenei. Olaetxea eta Artola ariko dira, Tolosan (20:00); larunbatean, berriz, Xala eta Ezkurdia, Miarritzen (18:00), eta Retegi Bi eta Jaurarena, Bartzelona (17:00); azkenik, igandean, Aritz Lasa eta Altuna, Lekunberrin (17:00).

Iker Vicente, Nafarroako txapelaldun

AIZKORA • Iker Vicente 18 urteko otsagabiarrek ezustea eman zuen herenegun maila nagusiko Nafarroako txapela irabazita. Minutu eta erditik gorako aldea atera zion Floren Nazabali. Horrek, berriz, uko egin dio Euskal Herriko finalari, lesionatuta baitago. Jon Rekondok ordezkatu du.


Bizkaik Tomas Lopezi egotzi dio Flefielden kontratua prestatzea

J. Senar Iruñea

Osasuna auzian, Fermin Otamendi epaileak lau inputatu deitu zituen atzo deklaratzera, baina bakarrak baino ez zuen hitz egin, Angel Bizkai Osasunako gerente ohiak. Beste hirurek -Txuma Peralta zuzendari ohiak, Juan Pascual presidenteorde ohiak eta Miguel Artxanko presidente ohiak-nahiago izan zuten isilik geratu. Bizkairen deklarazioak bi ordu iraun zuen, eta epailearen, fiskalaren eta beste 21 inputatuen abokatuei erantzun behar izan zien. Bizkaik deklarazioan esan zuen Portugalgo Madeira uhartean egoitza duen Flefield sozietatearekin hitzartutako kontratua Tomas Lopez finantza zuzendari ohiak prestatu zuela. Hain justu ere, Lopezek gaur deklaratu du epaitegian, Luis Ibero kudeaketa taldeko zuzendariarekin eta Diego Makirriain Osasuna fundazio-ko buru ohiarekin batera.

Irailaren amaieran, Otamendi epaileak beste hilabetez luzatu zuen sekretupeko sumarioa. Bere aginduz polizia egindako ikerketan agerturiko zantzen inguruan argibideak nahi ditu. Adibidez, ikertzaileen susmoen arabera, Flefielden kontratu hori partidak erosteko diru mugimenduak ezkutatzeko erabili zen egiazki. Kontratuak iazko abuztuko data du, eta ordurako Osasunako kudeaketa batzordea zegoen. Kontuak ikuskatu zituen sozietateak arrazoitu gabeko diru mugimenduez azalpenak eskatzerakoan sortu zela uste dute polizia. Teorian, kirol aholkularitza eskaini zion Osasunari Flefieldek, baina mezu elektronikoetan ez da ageri horren inguruko aipamen bakar bat.

Gainera, Bizkaik aipatu zuen Betisi egindako 400.000 euroko ordainketan Xavi Torres jokalaria ere inplikatu zegoela. Aurretik, Jordi Figueras, Antonio Amaya eta Jorge Molina aipatu zituen, eta hirurak inputatuta daude egun. Gainera, Bizkaik esan zuen Juan-txo Elia atezain ohiaren kontratua Flefield sozietatearen izena agertzen dela. Antza, Osasunak 2010ean 60.000 euro eta 120 euroko bi faktura ditu Flefieldekin, eta argitu beharko da zertarako erabili zen diru hori.



Paisaia ikusgarriak ikus daitezke Raneroko haitzetatik. ASIER ARANZABAL

Raneroko haitzak Bizkaiaren mendebaldeko muturrean ageri dira, Kantabriarekin muga eginez. Mendigune karstikoa paregabea osatzen dute, Euskal Herrian bakana, mendiaren barrua hutsa delako. Europako barrunbe handiena ere bada.

Raneroren gainak eta barruak

Asier Aranzabal


Karrantza Harana Bizkaiaren mendebaldeko muturrean dago, Enkarterriko eskualdean, hain zuzen ere. Bazter bakarti honetara etortzea bide bihurria da, komunikazio bideak ez baitira batere onak. Ondorioz, gaur egun oraindik antzinako bizimodua da nagusi eskualdean, abeltzaintza batik bat; horrek paisaia ia ukigabe mantentzen lagundu du. Horregatik da gaur egun parke naturala Karrantza Haranaren iparraldean Jorrios, Aramañon eta Pico del Carlista mendi tontorrek osatzen duten mendilerroa.

Raneroko haitzak parke naturalaren mendebaldeko muturrean ageri dira, Kantabriarekin muga eginez. Mendigune karstikoa paregabea osatzen dute, Euskal Herriko beste horrenbestek bezala. Ranero, ordea, bakana da, mendiaren barrua hutsa delako.

Espeleologoek lehen mailako paradisia da, Karlistaren Troka Europako barrunberik handiena baita; alegia, hiru futbol zelai bezain handia. Pozalaguako kobak ere mendiaren beste hutsune bat osatzen du; aurrekoaren ondoan txikia, ordea.

Pico del Carlista (721 metro)

Pozalaguako haitzuloaren sarbidean hasiko dugu ibilaldia, erai-kinarean ertzean bidezidor estu eta pikoan gora, GR123 Bizkaiko bira ibilbidearen marka zuri eta gorri jarraikiz. Harrobiko hormaren gainetik amen batean helduko gara Valsecako lepora belar eta harri artean, 200 metroko desnibela gaindituz. Gezi gurutzak Pico del Carlistar joateko norabidea aldatu behar dela adierazten digu. Oraingoan, marka zuri horiei jarraikiz, hegoaldera okertu behar da, erliebe karstikoa barrera, gandor zorrotz, sakonune eta zulo irregularren artean hanka bat eta bestea non jarri ondo kalkulatu. Markak ez dira oso



Desnibela 300 m
Zailtasuna ★★★★★
Luzera 3,2 km
Denbora Ordubate eta 30 minutu

agerikoak, baina arreta mantenduz gero ez da zaila bidea asmatzea. Bai, ordea, behe lainoa dagoen egunetan. Horregatik, behe lainoan ibilbidea ez egitea gomendatzen da. Hirurehun bat metroren buruan mendebalerantz dolinek osaturiko harantxo belartsuagoa agertzen zaigu. He-

mendik aurrera marka zuri hori berriztuak ageri dira mendebalerantz, Kantabriako Gibaja herrirantz gidari. Guk, berriz, iparralderantz biratu behar dugu tontorra inguratuz. Urrutitik ikus daitezkeen cairn batek gidatuko gaitu mendiaren gailurreraino. Ikuspegia sekulakoa da: hegoal-

dean, Karrantza Harana; haren atzean, Ordunte mendilerroa. Kantauri itsasoa atzeko aldean, baita Santoñako herria. Mendebalderantz, Kantabriako Sierra de Hornijo osoa, eta, haren atzean, Lunada mendateko gailurrak, egitura esferikoa duen eraikin militarrik nabarmenduta. Ekialderantz, Gorbeia eta Anboto ere ikusta daitezke.

Karlistaren Troka

Mendiaren barrunberako sarbidea gailurretik ehun bat metro baino ez dago iparralderantz mugituz. Paisaia karstikoa hiru metroko arraildurak 350 metroko jauzia du Karlistaren Troka lezean barrena. Horregatik, espeleologo adituak baino ezin dira bertan sartu. Kondairaren arabera, karlista batek bere burua bertara bota zuen, liberalengandik ihesi.

Ondoren, tarte batean egindako bidea desegingo dugu aurrez aipaturiko dolinek osaturiko harantxoraino, eta hego-hegomendebalde norabideari eutsiko diogu aurrean ageri zaigun tontorretantz, harik eta El Miron begiratokira heldu arte. Ikuspegia zirraragarria da: aurrez aurre Karrantzako ibaiak Raneroko eta Mazoko haitzen artean zabaldu-tako haitzebaki bertikala.

Pozalaguako haitzuloa

Bide beretik, Valsecako lepora itzuliko gara, eta handik ibilaldia- ren abiapuntura, ibilaldia mendiaren barruan bukatzeko, alegia, Pozalaguako haitzuloaren barruan. Asteburu, zubi eta jaiegutetan, 45 minutuan gidaturiko bisitaldia eskaintzen dute hainbat aldiz egunean. Estalaktita-estalagmita multzo desberdinak ikus daitezke, eta baita oso bitxiak diren milaka estalaktita eszentriko txiki ere, grabitate indarraren eraginari ihes eginez, beherantz izan ezik edozein norabidetan hasiak. Zorte handikoak izanez gero, desagertzear dagoen ferra-saguzar txikia ere ikus dezakegu, urtean zenbait aldiz etortzen baita Enkarterriko mendigune karstikoetako haitzuloetara.

BUZOIA

Mendi lasterketak

Abxondo (Bizkaia). VIII. Anboto Kilometro Bertikala, larunbatean, 14:00etan. 3,8 kilometro (+1.092 metro). www.anbotokb.com.

Arrankudiaga (Bizkaia). IV. Arrankudiaga-Zollo lasterketa, igandean, 11:30etan. 10,7 kilometro (+503

metro). www.arrankudiagakokrosa.blogspot.com.es.

Mendi martrax

Bakio (Bizkaia). Bizkaia Kopako mendi martra, igandean, 08:30etan eta 09:45etan. Bi ibilbide izango ditu: 21,08 kilometrokoa eta 10,04 kilometrokoa. Informazioa: www.bizkaiakopatrail.com.
Irañeta, Olo eta Unanu (Nafa-

roa). Euskal Herriko erdigune geografikora mendi martra, igandean, 09:30etan, hiru lekutatik. Informazioa: www.independentistak.eus.

Makea (Lapurdi). Makea Oinez mendi ibilaldia, igandean, 08:00etan. Hiru ibilbide izango ditu: 39 kilometrokoa, 27 kilometrokoa eta 16 kilometrokoa. www.makeaoinez.blogspot.com.

Mendiko bizikleta martrax

Bakio (Bizkaia). Bizkaia Kopako lasterketa, igandean, 09:00etan. 21 kilometro. www.bizkaiakopatrail.com.

Legutio (Araba). X. Martxa, larunbatean, 09:30etan. 35,6 kilometroko ibilbidea izango du. Informazioa: www.legutio.eus.

Oñati (Gipuzkoa). Iban Altuberen Oroimenezko V. Martxa, igande-

an, 09:00etan. Bi ibilbide izango ditu: 30 kilometrokoa eta 36 kilometrokoa. www.markelirizar.com.

Mendi duatloiak

Lizarrar (Nafarroa). Euskal Herriko Zirkuituko proba, igandean, 11:00etan. 4,230 kilometro korrika, 16,21 kilometro mendiko bizikleta-rekin eta 2,400 kilometro korrika. www.mendiduatioia.com.

«Duatloien zirkuitua itzela da, kirolari eta antolatzaileei esker»

Julen Larruzea Loroño • Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuituko txapelduna

Atletismoko pistetatik mendi bideetara pasatu zen, tartanetik lurrera eta lokatzetara. Korrika ez ezik, mendiko bizikletan ere hasi zen. Ondo. Nagusi da Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuituan.

Unai Ugartemendia

Eskarmentu handiko kirolaria da Julen Larruzea (Larrabetzu, 1982). Kirol eta diziplina askotatik igarotakoa da, nahiz eta oraindik gaztea izan. Bizikleta eta korrikarako oinetakoak izan ohi ditu bidelagun gehienetan, eta azken urteetan biak uzartzeko aukera izan du, mendi duatloietan. Egun, Euskal Herriko Mendi Duatloiko Zirkuituko txapelduna da. Gauzak okertzen ez badira behintzat, aurten ere irabaziko du, orain arte jokaturako bost probak poltsikoratu baititu bizkaitarrak; azkena, joan den larunbatean Arriaranen (Beasain).

Betidanik izan zara kirolaria. Baina zein izan dira orain artean joratu dituzun kirolak?


Hamabi urterekin hasi nintzen atletismoan eta; batez ere, korrika egiten pasatu ditut urte gehienak. 25 urterekin duatloien batean parte hartu, eta, hortik aurrera, beti eduki dut bizikleta bat etxean. Triatloiren bat ere prestatu izan dut eta, aurten, urtarriletik maiatzera bitartean, mendi bizikletako probak prestatzen ibili naiz, arrakasta gutxiarekin. 33 urte beteko ditut hilabete honetan, eta jadanik probatzen ibiltzeko aukerak agortu ditut. Badakit zertan gozatzen dudan eta zertan naizen ona, eta horiei ekin nahi diet.

Zein kiroleetatik zatoz?

Atletismotik nator. Asko zor diot atletismoari. Kirol horrek moldatu nau, bai barrutik bai kanpotik, gaur egun naizen gizontxo izateko.

Nolatan hasi zinen mendi duatloietan?

Atletismoko probekin erreta, mendi lasterketetan parte hartzen hasi nintzen, buru eta presaketa gutxiarekin. Horrela, hilabete gutxira lepoko lesio bat agertu zen, eta urte pare bat nahiko geldirik igaro nituen. Bizikletan ibiltzeko gomendatu zidaten. Fisikoki berriro indartsu bueltatu



eta duatloietan parte hartzen hasi nintzen. Urte haietan nahiko galduta ibili nintzen. Pistako atletismoak asko erretzen du, eta, erreta nengoela, ez nekien zein bide aukeratu. Gaur egun nola joan zaidan ikusita, uste dut ondo aukeratu nuela.

Entrenatzailerik baduzu?

Nire kirol bizitzan bi entrenatzaile handi izan ditut, ez bakarrik kirolerako, eguneroko bizitzarako ere prestatu nautenak. Askok zor diet. Une honetan, nik neuk egiten dut nire prestakuntza plana. Urte pare batez prestatzaile ikasketak egin ditut eta, printzipioz, neure buruarekin probatu nahi dut. Emaiza onak lortuz gero, aurrerantzean jendea prestatzeko asmoz.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Ja egunero aritzen naiz. Denboraldiaren eta urte sasoiaren arabera prestateta ezberdina izaten da. Batez ere bizikletan, korrikan eta gimnasioan indarra lantzen aritzen naiz.

Non ibiltzen zara gusturago, korrika ala bizikletan?

Bietan. Korrika kilometro asko egiten dituzunean, bizikleta gogoz hartzen duzu, eta alderantziz. Bi kirol prestatu beharrak alde on hori dauka, ez zarela batean erretzen. Bat aukeratu beharko banu, korrika da benetan gogokoena dudana.

Esfortzu handia al dakar bi kirol ezberdin entrenatu beharrak?

Ez. Biak gogoko izanda, askotan deskonektatzeko aukera ematen dizu. Adibidez, korrikako entrenamendu espezifiko asko egiten ditudanean, bizikletan ibiltzen naizen egunean gogotsu ekiten diot. Kirol bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta horrek monotoniatik kanpo mantentzen nau.

Zein dira ezberdintasun handienak triatloiekin alderatuz?

Nagusia, duatloietan ez dagoela igeriketako sektorerik. Mendi duatloietan, triatloietan bezala,

lasterketa hiru sektorez osatuta dago, baina korrikarekin hasi, bizikletarekin jarraitu eta azkenean berriro korrikarekin bukatzen da. Ikuskizun aldetik, igeriketako sektoreak beti kolorea ematen dio probari, itsasoaren hurbiltasunak edo laku baten edertasunak oso lasterketa erakargarria egiten du, bai ikusteko bai parte hartzeko. Duatloiak kolore ilunagoa dauka, mendian izaten da, udazken-negu sasoiaren. Hori bai, duatloiak askoz ere gogorragoak izaten dira, giherentzat batez ere.

Azken urteetan zirkuituan lehen postuetan ibili diren kirolari asko (Jon Ergin, Unai Yus, Amaia Lukin...) jada ez dira duatloietan ibiltzen. Zein iruditzen zaizu dela arrazoia?

Bueno, bakoitzak bere arrazoiak ditu: Ergin mendi bizikletan dabil buru-belarri; Lukinek umea izan du, eta Yus Kanaria uharteetara joan da lanera. Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren barruan (EHMDZ) oso parte hartzaile gutxi egin dituzte bost aldiak; ni, zorionez, horietako bat naiz. Iaz zirkuitua irabazi nuen, eta nik beti pentsatu izan dut lehen aldiz irabaztea baino gehiago bigarren irabaztea dela gauza handia eta zaila. Behin irabazita, bigarren izatea ez du baliorik; askotan kirolarioi hori gertatzen zaigu, eta jarraitu beharrean beste norabide bat hartzen dugu. Agian hori gertatu zaie askori: EHMDZk fisikoki indartsu egotera derrigortzen zaitu, eta, askorentzat, urteak goraka doaz. Erorketen kontua ere azpimarratzekoa da, urte guztietan baten batek zirkuitua nahi baino lehen alde batera utzi behar izan du. Aurten ere, zoritxarrez, jada kirolari garrantzitsu pare batek utzi behar izan dute lehia.

Zein iritzi duzu Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituari buruz?

Bost hitzetan esango dizut: munduko mendi duatloi zirkuiturik onena. Esan al dizut Bilbon sortua naizela? Kar-kar. Ez, egia esan zirkuitua itzela da, bai parte hartzaileen kopuruagatik eta mailagatik, bai antolakuntza aldetik, baita parajeen edertasunarengatik ere.

Aurtengoan nabaria da emakumeen falta lasterketetan. Zein iritzi duzu?

Zoritxarrez, emakumeen partaidetza ez da inoiz oso nabaria izan EHMDZn. Lokatzetan ibiltzeak ez ditu askorik erakartzen, ezta zirkuituen gogortasunak edo bizikletan jaisteko behar den teknikak ere. Nahiz eta azken urteotan zirkuituak parte hartzaile guz-

Duatloietan egindako lagunik onena? EHMDZ familia.

Bost urte hauetan, udazkenean, astebururo elkartu garen kirolari, emazte, seme-alaba, antolatzaile... taldea.

Kirolari bat? Kenenisa Bekele.

Lasterketa bat? Bilboko lehen gau maratoia.

Errepideko bizikleta ala mendikoa? Mendikoa.

Entrenatzeko leku bat? San Martingo Harria, Belagua.

Gustura egingo zenukeen lasterketa bat? New Yorkeko maratoia.

Abesti bat? Ramonesen edozein.

Bizitzeko leku bat? Nire bikotekidearekin aske eta bakean bizitzeko aukera ematen didan munduko edozein txoko.

tientzako egokitu, exijentzia handikoak dira oraindik ere, eta horrek asko mugatzen du emakumeen parte hartzea.

Parte hartzaileen kopuruak ere beherantz egin du azken urteekin alderatuz. Zein izan daiteke arrazoia?

Aurten, orokorrean, emakume eta gizon gutxiago gabilta. Zirkuituak hamabost proba ditu, eta askok parte hartzea atzeratu egin dute; zirkuituko bigarren zatia dute helburu. Ea emakumezko eta gizonezko gehiago animatzen diren hemendik zirkuitu bukarara.



Emakumeen partaidetza ez da oso nabarmena. Lokatzak, gogortasunak eta jaitsierek ez dituzte erakartzen»

«Diru saritan lortzen dudanarekin, ahal den neurrian nire egunerokoan aurrera jarraitzeko aukera daukat»

Horrez gain, gero eta lasterketa gehiago daude astebururo. Euskal Herrian kirolari asko daude, baina askotan aukeratzen ibili behar dugu, batera edo bestera joan, edo zirkuitu hau edo beste hura prestatu.

Zer falta zaio mendiko duatloien munduari? Eta zer du sobera?

Aurten, historian lehen aldiz, duatloi krosetako Europako Txapelketa jokatu da, datorren urriaren 10n Castron (Kantabria, Espainia). Txapelketa nagusi ofizial bat falta zitzaion, eta hori aurten lortuko da. Sobera, ba ez dakit zer esan. Hemen sobera dagoena alde batera uzten dute urteek eta mendiek.

Nola ikusten duzu duatloien etorkizuna?

Euskal Herrian, mendikoei dago kienez, proba berriak gehitzen ari zaizkio zirkuituari, eta hori seinale ona da. Zirkuituko proba kopurua handituz joan da urtez urte, eta aurten hamabost probaz osaturiko zirkuitu dotorea osatu dute.

Errepideko duatloietan, orain dela 5-8 urteko boom horrek ez du segidarik izan. Proba aldetik, Euskal Herrian behintzat, kopurua eta kalitatea jaitsiz joan da. Lehen, jendeak triatloira jauzi egin baino lehen, duatloiak erabiltzen zituen proba konbinatu munduarekin lehen harremana izateko. Orain ez, orain jarraian triatloietara joaten dira, duatloien mundua ezagutu gabe. Triatloiak indar handia dauka, eta nik beti pentsatu izan dut duatloia triatloia anaia txikia izatera zigortua dagoela bizi guttirako.

Azken urteetan aurrean ikusi zaitugu eta lasterketa asko irabazi dituzu. Zerk bultzatzen zaitu oraindik aurrean ibiltzen segitzera?

Gustuko dut astebururo nire taldeko zein zirkuituan ibiltzen den jendearekin elkartzea. Nahiz eta batzuetan pixka bat erreta sentitu, barneko motibazioak bizirik segitzen du oraindik. Horrez gain, nire eguneroko lanaldia ez da nahikoa nire bizitza aurrera ateratzeko, eta asteburuetan diru saritan lortzen dudanarekin, ahal den neurrian nire egunerokoan aurrera jarraitzeko aukera daukat. Aurten horrela egitea erabaki dut, eta ez dakit kirol jardura bat horrela antolatzea oso etikoa den; baina momentu honetan hori da nire egoera, eta ez daukat beste aukerarik.

Zein aholku emango zenieke mendi duatloien munduan hasi nahi dutenei?

Pausoa eman dezatela! Aurten, lasterketa nagusiaren aurretik, proba herriko bat egiten ari dira zirkuituko zenbait herritan. Mendi duatloietan hasi edo ez erabat argi ez badaukate, proba dezatela proba herrikoian. Behin hasierako beldur hori kenduta, seguru nago hurrengo asteburuan proba nagusian emango dutela izena. Giroa sana eta herrikoia da, hemen guztiontzako lekua dago eta maila guztietako kirolariak errespetuz hartzen dira. Aldatz gogorra zein jaitsiera latza izan, beti bizikleta eskuan hartzeko aukera dago, ez dezatela horregatik beldurrik izan.

Mendi martxa erdigunera

Euskal Herriko erdigune geografikora mendi martxa antolatu dute igandean hainbat mendi taldek eta Independentistak sareak

U. Ugartemendia

Ez da ohiko mendi martxa izango. Igandean abiatuko da, 09:00etan, Euskal Herriko erdigune geografikora, hiru herritatik: Ollo, Irañeta eta Unanu (Nafarroa). Helmuga berriz, bakarra. Andia mendilerroan dagoena, eta Beriain mendi tontorretik gertu dago erdigune geografikoa. Ekitaldia egingo dute bertan 11:30ean.

Kontua ez da oraingoa. Aurretik askotan egin izan bazen ere, 2011n egin zen azken aldiz mendi martxa. Orduan izan zuen arrakasta kontuan izanda, aurten berreskuratzeko asmoa izan dute antolatzaileek: Irurtzungo Iratxo mendi taldeak, Sakanako mendizaleek, Lekunberriko Tunturre mendi taldeak eta Independentistak sareak.

Urtero antolatu nahi dute: «Aurrerantzean urtero egiteko erronka hartu dugu antolatzaileok. Datozen urteetan Euskal He-

rriko mendi taldeen egutegietan mendi martxa hau sartzen saiatuko gara, data finko batekin».

Euskal Herriko erdigune geografikoa 2004n finkatu zuen Felix Isasak. Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuta egin zuen azterlanaren emaitza izan zen. Andia mendilerroan dago, Beriain mendi tontorretik nahiko hurbil. Olibesario sakonune edo saroian, 1.236 metroko altueran. Mendi martxa antolatu nahi izan dute, «ekintzarik naturalena» iruditzen zaielako.

Ez da mendi martxa soila izango. Aldarrikapenerako eguna ere izango da. «Erdigunea bada, zerbaiten erdigunea da: euskal lurraldeen erdigunea, Euskal Herriaren erdigunea», diote. Mendi martxa «lurraldetasunaren martxa» eta «lurraldetasun eguna» bihurtu nahi dute. Egun guztiko jaia izango da igandekoa, eta nahi duenak bazkaltzen gelditzeko aukera izango du Irurtzunen.



“25 urtean baserritarrekin eta arrantzaleekin lanean, Lurreko eta Itsasoko produkturik onena lortu nahian, betiere eta sakrifizio handiz. Produktu horiek oinarri harturik, plater tradiziozkoak egiten ditugu, modernotasun kutsukoak”.

ARATZ
asador - errelegia

EGUNEKO MENUA
Aratz jatetxean, asteleheneetik ostiralera, eguneko menua. Goi mailako platerak, modu onean: 11,70 €.

ERRESERBAK
943-21 92 04

HELBIDEA
Igara bidea, 15
20018 DONOSTIA
Gipuzkoa
info@restaurantearatz.com



Aitor Manterola

Futboleak jokatu duen edonork daki zein zaila den gola sartzea. Bat egitea kosta egiten da. Atera kontuak zer izan behar duen partida berean bost sartzea; egin kontu zer izan behar duen hamabi gol sartzea lau partidatan, hamabi eguneko tartean. Gertatu berri da hau guztia, eta horren berri ez dakien bati kontatuz gero, gezurretan aritzea leporatuko dio besteari.

Zenbaki dantza zirraragarri horren atzean Robert Lewandowski dago. Ez dira lau jokalariren datuak uztartuta edota elkarren ondoan jarriak. Ez, ez, aurrelari poloniarrek bere kontura eta bakarririk egindakoak dira. Harrigarria. Marka. Historikoa. Benetan gertatua. Ez da asmakizuna edo futbolari buruzko ipuin bat.

Herenegun osatu zuen dozena. Bayern Munich eta Borussia Dortmund aurrez aurre, Alemaniako bi talde indartsuenak. 5-1 astindu zuen Pep Guardiolen taldeak Thomas Tuchelena. Bostetik bi sartu zituen Lewandowskik. Gutxi ere ematen du, ikusirik nola dabilen azkenaldian.

Igandetik atzera hamabi egun kontatu, eta orduantxe hasi zuen gol festa poloniarrek. Marka handiaren barruan geratuko den beste marka handi bat izan zen. Mugarria. Bost gol sartu zizkion Wolfsburgi, Bundesligako partidat. 90 minutu pasatxoan bost sartzea lan ia ezinezkoa bada ere, zer ote da bederatzi minuturen tartean sartzea bostak? Bada, horixe egin zuen. Harri eta zur utzi zuen futbol mundua, Sergio Aguerok joan zen larunbatean egin bezala. Manchester Cityko aurrelari argentinarrek bost gol sartu zizkion hogeit hamar minutu eskasetan Newcastleleri.

Lewandowski ez zen bete lortu handi horrekin, eta handik gutxira, hurrengo partidat, beste bi golen ekarpena egin zion taldeari, eta osatzen ari den markari. Mainz zigortu zuen orduan. Zazpi gol bi partidat. Kopuru bikaina. Baina poloniar hori ezin bete. Txapeladunen Ligan, aurreko astean, beste hiru sartu zizkion Dinamo Zagrebi. Zenbaki biribila osatu zuen horrela: hamar gol hiru partidat. Herenegungoak biribildu baino ez ditu egin zenbakiok. Hamabi gol, hamabi egun, lau partidat. Eta datorriola hurrengo partidat eta aurkaria. Lewandowski golegilea baita, noski. Ez da beteko berehalakoan.

Hamabi egun hauetako zenbakiak harrigarriak izanik ere, Le-



Robert Lewandowski Golegilea, noski

Aurrelari poloniarrek marka handia egin du oso tarte txikian Bayern Munichekin: hamabi gol sartu ditu lau partidat, hamabi eguneko tartean. Wolfsburgi bost sartu zizkion bederatzi minutuan.

wandowskiren ibilbidean arakatu gero, ez da dozena egun haue-tako kontua.

Znicz Pruszkow taldean ekin zion profesioaletako bideari. 2006-07ko denboraldian, Hirugarren Mailatik Bigarregora igo zen, eta aurrelariak hamabost gol sartu zituen; Ligako golegilerik onena izan zen. Hurrengo denboraldian, 21 sartzeko gai izan zen talde apal horretan, eta Bigarren Mailako golegile nagusia izan zen.

Halako zenbakiekin azkar bereganatu zuen talde handi baten arre-ta. Poloniako klub historikotako bat da Lech Poznan, eta hura fitxatu zuen 2008ko udan. Bi sasoi osatu zituen Poznanen: 81 partidat jokatu zituen, eta 41 sartu. Alemaniako taldeak gainean zituen ordurako, eta 2010eko udan Borussia Dortmundek fitxatu zuen, 4,5 milioi euroren truke.

Lau denboraldi osatu zituen Dortmunden, eta ez zuen hutsik

egin atearen aurrean. Horixe daki egiten ondoen, eta berezko senak berarekin jarrailu zuen Alemaniaren ere. 184 partidat jokatu zituen, eta 103 gol sartu. Beste jauzi bat emateko ordua heldu zitzaion, eta Bayern Munichek fitxatu zuen 2014ko neguan, hurrengo sasoiari jokatzeko. Bigarren denboraldia ari da osatzen Munichen, eta zenbakiak, beste behin, ikaragarri onak dira: 60 partidat jokatu ditu, eta 41 gol sartu.

Orain arteko bere ibilbide guttikoak begiratu eta ziplo ez erortzea ez da lan erraza. 402 partidat 228 gol sartu ditu. Horiei gehitu behar zaizkie selekzioarekin dituenak. 70 aldiz jokatu du, eta 29 gol sartu ditu.

Sporting Gijonen ezezkoa

27 urte baino ez ditu Lewandowskik, eta zenbaki harrigarri horiek biribilduz eta handituz joateko denbora eta partidat izango ditu. Halako erraztasuna duenez golak sartzeko, auskalo noraino helduko den. Baina iristen den lekura iristen dela, garbi dago sekulakoa izango direla Poloniako aurrelariaren datuak.

Hasieratik ziren onak zenbakiak, baina hasiera hartan, denak ez zituen konkistatu. Lech Poznanek fitxatu zuen udan, oraindik Poloniako Liga nagusian debuta egin gabea zenean, Sporting Gijonek eduki zuen aukera Lewan-

NORTASUN AGIRIA

Izen-abizenak. Robert Lewandowski.

Jaioterria. Varsovia.

Jaioteguna. 1988ko abuztuaren 21a.

Altuera. 1,84 metro.

Pisua. 79 kilo.

Postua. Aurrelaria.

Kirol ibilbidea. Delta Varsovia (2005), Legia de Varsovia B (2005-2006), Znicz Pruszkow (2006-2007), Lech Poznan (2008-2009), Borussia Dortmund (2010-2014) eta Bayern Munich (2014tik).

Garaipen zerrenda. Lech Poznanekin, Poloniako liga, Kopa eta Superkopa bat; Borussia Dortmundekin, Alemaniako bi Liga, Kopa bat eta Superkopa bat; eta Bayernekin, Alemaniako Liga bat.

Sasoi honetako estatistikak. 11 partidat, eta hamasei gol.

dowski fitxatzeko. Cezary Kucharski haren ordezkariak, Gijonoko taldeko jokalaririk ohiak, taldeari eskaini zion, baina ezezkoa jaso zuen. Orduan hartu behar zen erabakia, eta orain erraza da ezezko horren arduradunari huts egite larria leporatzea, baina Lewandowskiren hasiera hartan izan zen golegile senari etorkizun handirik ikusi ez zionik. Damutu-ta egongo da.

«Museoetan, emakumeok sotoan jarraitzen dugu»

Judy Chicago • Artista

Arte feministaren aitzindaria da, baita irakaslea eta idazlea ere. 50 urteko ibilbidean, emakumezkoen adierazpen askatasunaren alde borrokatu da. Bilbon duen erakusketa aurkezten ari da egunotan.

Pello A. Zuazo Bilbo

Judy Chicago (Chicago, AEB, 1939) borrokalari geldiezina da. Bere garaian, gizonen kontrolaturiko arte zirkuituetan, ezarritako molde guztiak hautsi zituen bere artelanekin. Desobedientzia feminista hori dela eta, ez du ibilbide samurra izan. Haren helburuetariko bat historian emakumeek izan ez duten lekua, indarra eta garrantzia berreskuratzea da. Horregatik, emakumeak irudikatzen eta gorensten ditu, eta emakumezkoen gaien inguruan dihardu etengabe. Bilbon dago egunotan, Azkuna zentroan ikusgai dagoen *Zergatik ez Judy Chicago?* erakusketa aurkezten, egilearen obrak eta dokumentuz osatua da. Etzi zabalduko dute, urriaren 8an, eta 2016ko urtarrilaren 10era arte izango da hura ikusteko aukera. Tarte horretan, tailerrak eta hitzaldiak ere izango dira, gaitzat «ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorian» harturik.

Egonezina sorraraztea da artearen berezko funtzioa? Arteak desobedientea izan behar du?

Egonezina? Egonezina hitz txiki-gia da. Desobedienteak izan diren artistez beterik dago historia. Desobediente izateak giza espiritua ulertzeko modua zabalitzen digu. Denok jasotzen dugu kultura eta historia jakin bat. Gizonak euren aurretiko gizon garrantzitsuek egindakoa ikasiz hazten dira. Baina emakumeek ez dute inoiz emakumezko erreferenterik izan. Beraz, emakumeak historiari sistematikoki ezabatutak izan direla jabetu nintzenean, gezur horren aurrean nola ez dut ba desobedituko?

Zure artelanek badaukate pornografiatik?

Bai, baldin eta zutik dauden munduko eraikin altu guztiak pornografiko kontsideratzen badira.

Arteak aldaketa soziala sortu dezake? Zenbat botere dauka zure arteak?

Beti sinistu izan dut arteak daukan boterean. *The Dinner Party*, nire obra famatuena, egin nuenean, konturatu nintzen arteak izan dezakeen botere itzelaz. Obra hau lehen aldiz jendaurrean erakutsi zenean arrakasta ikaragarria izan zuen eta diru mordoa egin zuen museoak. Erakusketa beste leku batzuetara eramatea zen asmoa baina museo askok ez zuten onartu. Hori dela eta, jendea haserretu egin zen eta dirua biltzen hasi zen artelan hau munduko beste toki batzuetara eramateko. Horri esker, milioi bat pertsonak baino gehiagok ikusi zuten. Horrek erakutsi zidan arteak botere

«Emakumezko erreferente guztiak historiari ezabatutak izan dira. Gezur horren aurrean nola ez dut ba desobedituko?»

«Egilea emakumezkoa delako artelan bat modu ezberdinean ikustea eta interpretatzea... ez litzateke horrela izan behar»

handia daukala. Oraindik ere, jendeak gutunak idazten dizkit *The Dinner Party* ikusi dutela eta zenbat hunkitu diren esanez. Hori lortu dezake arteak, beti ere, desobedientea denean!

The Dinner Party obran historiari ukatu eta ezabatu dituen emakumei egiten diezu gorazarre, oso modu berezi batean. Historia berridatzi daitekeela uste duzu?

Bai. Eta historia hutsunez beterik dagoela erakutsi nahi dut, gaizki idatzita dagoela. Ez soilik emakumeontzat, beste jende asko ere historiari kanpo gelditu da.

Zure erakusketek zer-nolako harrera izaten dute leku batzuetan eta besteetan?

Urteotan asko aldatu da kontua.


Hasi nintzenean ez ninduten oso ondo ikusten, entzute eskasa neukan. 50 urteko ibilbidean beste edozein artistak baino kritika gogorragoak eta txarragoak jaso izan ditut. Baina asko ikasi dut horretatik: kontrobersia sortu gabe ez dago aldaketa sortzerik. Asko kostatu zait besteek nire lana aitortzea eta daukan balioa ematea, 50 urte zehazki. Iaz 75 urte bete nituen, eta AEB osoan zehar nire artelanak ikusgai egon ziren; harrera paregabea izan zuten. Ospatzeko su artifizialekin ikuskizun bat egin nuen Brooklynen, eta 12.000 pertsona etorri ziren.

Eta orain hemen.

Museotan ez ezik, Azkuna Zentroa bezalako lekuetan nire obrak erakusten hasi dira, eta hori pozgarria da. Horregatik darara *Zergatik ez Judy Chicago?* izenburua erakusketak. Baina zergatik ez dira horrelako erakusketak egiten Guggenheim edo Reina Sofia bezalako museoetan? Horietan gizonen artelanak bakarrik aurkituko ditugu: Richard Serra, Basquiat... Emakumezkoen artelanak noizko?

Artearen munduan, emakumei emakume izateagatik batzuetan tratu desberdina ematen zaizue. Hori kaltegarria izan daiteke?

Emakumeak garelako beti aipatzen ibili behar hori askotan deserosoa bihur daiteke. Egilea emakumezkoa delako artelan bat modu desberdinean ikustea edo interpretatzea... ez litzateke horrela izan behar, baina ematen du askotan ezin daitekeela saihestu. «Hemen dituzue, The Rolling Stones! Mutilez osaturiko rock talde bat!»; hori ez litzateke inoiz esango. Emakumezkoak balira, ordea, emakumeak direla azpimarratuko litzateke. Berdintasun harreman bat lortu behar dugu, hori da



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

erronka. Dena den, ez da erraza. Horren alde lan egiten dut nire artearen bidez.

Emakumeek lortu ahal dute me-rezitako lekua artearen munduan?

Hemen, mendebaldean, munduko beste leku batzuetan baino zorte hobea daukagu alde horretatik. Aukera gehiago daude eta emakumei errazago zaie euren pentsaerak, ideiak, artelanak... azalera eta erakustea. Hala ere, oraindik desadostasun handiak daude. Goiko solairuan gizonen jarraitzen dute, eta emakumeek sotoan jarraitzen dugu,

gora igo nahian. Guggenheim, Reina Sofia, Tate... bezalako museoetan gizonak dira izarrak. Emakume artistak beti beheko solairuan, beti bigarren, beti atzetik.

Feminismoa gizonen kontua ere bada?

Erabat. Beti esan izan dut matxismoa gizonen arazoa dela. Gainera, oso garrantzitsua da feminismoaren inguruko eztabaidetan gizonak ere egotea. Gizonen asko lagun handiak dira, oso konprometituta daude eta ekarpen interesgarriak egiten dituzte.

Hiru musikagilek haurren esanetara sortuko dute 'Sormena iratzarri' -n

Donostiako bi ikastetxetako 150 ikaslerekin elkartuko dira Otaolea, Chamizo eta Astiazaran

Juan Luis Zabala Donostia

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzako *Soinua iratzarri* proiektuari esker, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako 150 ikaslek -10 eta 11 urtekoak gehienak- hiru musikagileekin elkartu eta musika sortzeko prozesuan parte hartuko dute hurrengo hilabeteetan, beren ideia, proposamen eta iradokizunak emanez musikagileei, eta 2016ko maiatzean haurren eta

musikagileen elkarlanak emandako sormen fruituak entzuteko aukera izango da Donostian egingo den emanaldi batean. Donostiako Zurriola eta Zuhaizti ikastetxeetakoak dira proiektuan parte hartuko duten ikasleak; musikagileak Xabier Otaolea, Mikel Chamizo eta Jagoba Astiazaran izango dira; eta konponketetan David Cantalejok, Enrique Vazquezek eta Hilario Etxemaianak ere parte hartuko dute. Musikagileak elkartarekin

elkarlanean jarri du abian proiektu hau Donostia 2016k.

Musikarekin harremanetan jartzeko eta musika sortzeko prozesuaren berri emateko, Jose Mari Usandizagaren (Donostia, 1887-1915) eta Lili Boulanger (Paris, 1893-Mezy-sur-Seine, Frantzia, 1918) musikagileen lanak ezagutaraziko dizkiete musikagileek ikasleei, oso gazterik hildako sortzaileak biak. Usandizaga hil zenetik ehun bete ziren hain zuzen ere atzo, eta haren oinordekoen ordezkaritza bat izan zen *Sormena iratzarri* proiektuaren aurkezpenean. Aurkezpenaren hasieran, Usandizagaren *Rapsodia vascongada* (1909) eman zuten Musikagileak elkarteko sei musikaririk.

Lehen saioetan, ikasleei musika sortzeko prozesuaren oinarrien berri emango diete, eta ondorengo saioetan musikagileak ikasleen esanetara musika sortzen ahaleginduko dira, haiengandik era guztietako proposamenak jasoz.


«Kontzeptuak alde batera utzita, saiatuko gara haurren sentimenduetara eta irudimenera jotzen, barruan dituzten sormen aukerak agerian jartzeko», adierazi zuen, aurkezpen horretan, Itziar Zubizarretak. Proiektua «esperimental» dela ohartarazi zuen Zubizarretak, eta amaitu arte ezin izango dela ondorioz atara. «Hala ere, denon profesionaltasunetik zerbait nahiko ona irteera espero dut», adierazi zuen. Il-do beretik, proiektua Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzak utziko duen oinordetzaren parte izatea espero duela adierazi zuen Xabier Paya Donostia 2016ren kultur programaren zuzendariak.

Proiektua abian jarrita dago, blog baten bitartez. Oraindik blog hori ez dago jende askorentzat zabalik, baina aurrerago joango da zabaltzen, Zubizarretak azaldutakoaren arabera. Horrez gain, esperientzia osoaren berri emango duen bideo-lan baterako lehen irudiak hartuta daude jada.



Itziar Zubizarreta, Xabier Paya eta Txaber Fernandez, aurkezpenean. J. URBE / ARP

HILBERRIA



Henning Mankell. Kurt Wallander inspektorearen sortzailea

J.L.Z.

lazio urtarrean minbizi larri bat diagnostikatu ziotenetik, literatura izan du aringarri eta salbaidide bakanetako bat Henning Mankellek, eta halaxe kontatu eta erakutsi du bere azken liburuan, *Kvicksand* (Linga faltuak). Atzo goizaldean hil zen, 67 urte zituela, minbizi haren ondorioz, Kurt Wallander inspektorea protagonista duten nobelekin 30 milioi aletik gora saldu dituen idazlea. Stockholmen 1948an sortua, Suediako nobela beltzak azken hamarkadetan izan duen goraldiaren protagonista nagusietako bat izan da Mankell, berak sortutako pertsonaiekin batera. Antzerkigintzan egin zuen lan Wallander sortu aurreko urteetan.

Mankellen bost liburu ditu euskaratuak Juan Mari Mendizabal Sarasua itzultzaileak, denak Erein argitaletxeak plazaratuak: *Izarretara bidean* zihoan txakurra, *Itzalak luzatu egiten dira* ilunabarrean, *Ohe elurtuan* lo egin zuen mutikoa, *Bidaia munduaren amaierara* eta *Aurpegiak gabeko hiltzaileak*.



«Bakarrik eta bere kasa arituta, gutariko inork ez zuen lortuko lortu duguna. Ez dago gu adina denbora elkartuta daraman talderik»

Marcos Mundstock
Les Luthiers taldeko kidea

BOS Bilbao Orkestra Sinfonikoa

PROGRAMA
01
egitaraua

urriak 8-9



Achúcarro eta gauak

I. Stravinsky
Scherzo fantastique

M. de Falla
Noches en los jardines de España

P. I. Tchaikovsky
Sinfonía nº 5

Joaquín Achúcarro
pianoa

Erik Nielsen
zuzendaria

PROGRAMA
02
egitaraua

azaroak 5-6



Maien gaua

A. Márquez
Danzón nº 2

S. Barber
Concierto para violín

S. Révueltas
La noche de los Mayas

Paul Huang
biolina

Carlos Miguel Prieto
zuzendaria

210

NOBEL SARIA IRABAZTEKO HAUTAGAI DIREN IDAZLEAK

Etzi, urriak 8 dituela, 13:00etan jakinaraziko du Suediako Akademiak nor den aurtengo Literatura Nobel sariaren irabazlea. Aurreko urteetan bezala, Philip Roth, Umberto Eco, Ngugi Wa Thiong'o, Haruki Murakami, Adonis, Milan Kundera eta Peter Handke aipatzen dira hautagai nagusien artean. Iaz Patrick Modiano idazle frantsesari eman zioten saria.

Zituen emanaldiak bertan behera utzi ditu Lurra taldeak

MUSIKA • Iñigo Muguruza taldekideari udaberriaren esklerosi anizkoitza diagnostikatu ziotela eta haren egoera «egonkortu arte» ez dutela beste emanaldirik egingo iragarri dute Lurra taldeko kideek, Facebook sare sozialean. *Akatsa sisteman* (5Gora) argitaratu du aurtun Lurrak, taldearen bigarren diskoa. Lehena, *Lurra*, 2012an kaleratu zuen, autokoizpenaren bidetik.

Palacio Euskalduna Jauregia

19:30 h.

Normala: desde 14,60 €tik aurrera
Gaztea (<27): desde 4,90 €tik aurrera

k

taquilla Euskaldunako leihatila
www.bilbaoorkestra.eus
Tfn. 94 40 35 205

BEGIZ
Haizea Barcenilla



Bizilagun urrunak

Sari berria jarri du abian Etxepare Institutuak: euskaratik beste hizkuntza batera egindako itzulpeni eskainitakoa. Lehenengo emanaldian Isaac

Xubin galiziarrek jaso du saria, Sarrionandiaren *Tempo de exilio* liburuarengatik. Hala ere, hori ez da Xubinek euskaratik galiziera itzultzen duen lehen liburua. Hizkuntza gutxituekin eta bere-

ziki euskararekin maitemindutako itzultzaile eta poeta honi esker, *Bilbao–New York–Bilbao* eta *Pasaia Blues* iritsi dira galiziarren eskuetara.

Bereziki pozten nau Xubinek jasotako sari honek: bere euskara ikasteko egindako ahalegina zoriontzekoa iruditzen zait, hala nola orduz geroztik egindako lana, askotan kafe bat bera ere ordainduko ez ziona. Baina batez ere pozten naiz itzul zitezkeen hizkuntzen artean, hurbil eta aldi berean nahiko ezezagun dugun batek izan duelako ikusgarritasuna. Izan ere, katalanak eta galizierak euskararen patu bera

sufritzen dute; hots, Madriletik pasa behar izatearena beste hizkuntzetara iritsi ahal izateko. Nahiz eta hirurak literatura aberats eta emankorrak izan, eta pertsona gutxi batzuek haien arteko harremana estutzeko esfortzu handia egiten duten arren, ez dira asko geurera iristen diren tituluak, hala nola geuretik haienera bidaia egiten dutenak.

Egia da hizkuntza gutxituen itzulpenak zailak eta garestiak direla, urriak baitira itzulpen zuzena egiteko gai diren profesionalak; urriak bokazio hori bultzatu duten instituzioak ere. Izan ere, orain dela bi urte

EHUko Letren Fakultateko katalaneko irakasle-irakurleak bere kontratua amaitu eta ordaintzen zion Lull institutuak postua ezabatzen zuela ikusi zuen. Galizierakoak jarraitzen du, baina betiere irakurle modura, aldakor eta prekario. Ez dago EHUren hizkuntza horietarako berezko irakaslerik, ezta hizkuntza horien arteko itzulpen bereziak sustatzeko bekarik ere, ezta gobernuen arteko argitalpeneko proiektu berezirik ere. Ez al da garaia lotura zehatz hori indartzeko? Opa dezagun Xubini emandako saria horren aurrerikari izatea.

Ez muga, ez ur, ez herri

Urtzi Ibarguen

Berez, *utopia* hitza Thomas More idazleak idatzi zuen izenburu bereko liburutik datorrigu. Izen horrekin aurkezten ziren kontakizuna garatzen zen irla eta bertan bizi zen komunitatea, zeinak antolakuntza ekonomiko, kultural nahiz politiko ideal bat aurkezten zuen, eta, haren bitartez, garaiko antolakuntza politiko errealearen kritika bat garatu. Horrela, gaur egun, *utopia* hitza garatu ezin den horrekin lotzen da, normalean politikari ala teoriari loturik.

Eduardo Gruber Kantabriako (Espainia) artistak modu berean izendatu du Rekalde aretoan aurkeztu duen erakusketa, *utopia* hitza artearekin lotuz. Marrazkian oinarriturik, 1949an Santanderren jaiotako artistak azken 30 urteetan landutako lanak aurkezten dizkigu; gehienak, formatu handikoak. Artistak marrazkia eta horren lanketa eta prozesua adierazpen pertsonal moduan aldarrikatzen ditu, «utopikoa» deritzon horren bilaketaren prozesuan.


Adierazpen pertsonal horren ideia oso interesgarria da hitzaren oinarri etimologikoa bilatzen badugu, horrek bi adierazpenen artean mugitzen den joko bat aurkezten baitigu. Alde batetik, inon aurkitzen ez den tokizat uler daiteke; beste aldetik, berriz, toki ona edo toki egokitza. Kasu horretan, Gruberrek, bere lanaren

KRITIKA
Artea
'Utopia'
Eduardo Gruber

Lekua: Bilboko Rekalde galeria.
Noiz arte: Urriaren 12ra arte.

bitartez, unibertso pertsonal batera garraiatzen gaitu, berak bakarrik ezagutzen duen leku batera, bidaiaren bueltan egoera edo leku honen inguruko aztarnak erakusten dizkigula.

Antolatzaileek nahiz artistak berak aipatu duten bezala, ez da atzera begirako bat. Erakusketan aurkezten zaizkigun lanak ez dira kronologikoki antolatzen, eta ibilbidea nolabaiteko ordenatutako kaos bat da. Bertan lan ezberdinen ezaugarri propioak besteekin nahasten dira, eta ibilbidea osatzen duten areto ezberdinetako artelan ezberdinen arteko harreman bat sortzen da. Grafitoa, collagea eta olio pa-pere gainean nahasten dituen 300x300 cm-ko *Ya (Reloj)* artelanak ematen dio hasiera erakusketari, bertan jada erakusketan zehar zabalitzen den ironia puntu hori begi bistakoa dela. Halere, sarrerako ordulari horren hiperrrealismoa alde batera gelditzen da erakusketa aurrera doan heinean, 1990ean paper gainean sortutako formatu txikiko *Actividad de Ciudad Portuaria I,*



Erakusketaren bisitari bat, Gruberren lan baten aurrean. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

A.C.P. Paseante I, A.C.P. Paseante V edo alboan aurkezten den *El Temerario* (2014) artelanen trazu aske eta gogorak erakusten dituzten bitartean, 1994ko *Gris, Escala Cromática*-k abstrakzioarako joera ireki bat aurkezten du, honen aurrean *Pez Muerto, Acuario II*-k 3. dimentsiora jotzen duten elementuen bitartez errealismo magiko batera garraiatzen baikaite.

Elementu tridimentsionalak artelan ezberdinetan errepikatuz doaz. Akuarioen serieko *Tiburón Blanco, Acuario I* (2014), *Bichopluma Nunca Ganó El Derby de Kentucky* (2006) eta 1997ko *Gran Bañista de Ingres* artelanean, besteak beste. Elementu horiek era ezberdinetara funtzionatzen dute artelanetan, eta, nahiz eta sotilak diren neurrian onargarriak izan, iruditzen zait marrazkiaren indarrean oinarritzen diren lanak hobeak direla. Hobeak baino gehiago, zoragarriak ai-

patutako *A.C.P. Paseante* edo *El Temerario*-z gain, erakusketan ikus ditzakegun *La Tormenta de Saturno* (1991), *La Punta del Dichoso* (2014) eta 2006ko *Rasca-ciélos de Santillana*. Grafitoaren eta collagearen artean badira euskarriaren berezitasunak aurkezten dituzten lanak ere. Aipagarria, alde batetik, *Pioneros* (2010), non egurrezko bastidore baten gainean eraikitako azulejuzko pareta bat oinarri hartuta gizon multzo baten pintura aurkezten zaigun, guztia instalakuntza elektriko propio batekin argizatuta. Bestalde, eta erakusketako ibilbidea itxiz, beste pertsona multzo bat aurkezten zaigu, *Héroes* (2010). Grafito, ikatz-ziri eta pigmentuz egindako multzo difuminatu eta ilun bat ikus dezakegu, horietako bakoitzaren buruen parean argi txiki batek pertsona horietako bakoitza aipatzen duela. Ezbairik gabe memoriaren atalean klasifikatzen den lan interesgarria. Na-

hasketa horretan oinarritzen da erakusketako joera orokorra, eta, printzipioz antolakuntza arriskutsua dirudien arren, kasu honetan ondo funtzionatzen du, erakusketari nolabaiteko freskotatua ematen baitio.

Utopiaren funtzioak lau omen dira: orientatzailea (ezinezkoa den hori jarraituz hobetzen laguntzen duena), baloratiboa (gizartearen momentuko beharrak erakusten dituen), itxaropenarena (mundu hobeak irudikatze-ko beharrean oinarritzen dena) eta kritikoa (egoera irreal bat errealearen konparatuz, azken horren gabeziak erakusten dituen). Eduardo Gruberren artelanen aurrean funtzio hauen arrastoak antzeman ditzakegu, betiere bakoitzak egiten duen irakurketaren arabera. Argi dagoena zera da: utopia guztien gainetik Santanderko artistak beste errealtate bat plazaratzen duela, bere errealtatea.

Eguraldia




GAUR ↓

JOERA

- ☁️ = ↙
Osteguna 8
- ☁️ = ↗
Ostirala 9
- ☁️ = ↘
Larunbata 10

Aldaketa arratsaldean

Goizean, hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, zakar samar. Isurialde atlantikoan ostarteak irekiko dira, eta zaparrada gehiago botako ditu hegoaldean, bereziki Nafarroan. Arratsaldean, haizeak mendebaldera eta ipar-mendebaldera egingo du; orduan, hegoaldean egoera lasaitu egingo da, eta isurialde atlantikoan lainotu eta euritara joko du. Baliteke trumoi ekaitzak izatea. Arratsaldean freskatzera egingo du.



BIHAR ↓

Giro egonkorra, baina freskoagoa

Freskatu, eta haizea baretu egingo da. Baliteke isurialde atlantikoan euri pixka bat egitea, baina eguna amaitzerako atertzera egingo du. Hegoaldean, hodeitza saretuta egongo da; ateri egongo da, eta tarteka eguzkia ikusteko modua izango da. Iparaldeko haizea ibiliko da, oro har, suabe. Tenperatura jaitsi egingo da, bai gauz eta bai egunez, eta altuenak 20 gradura iritsiko dira doi-doi.


ITSASOA

Haizea hego-mendebaldetik ipar-mendebaldera aldatuko da arratsaldean, eta 5eko indarra izango du. Itsaskirria izango da, eta eguerditik aurrera, itsaski handia. Olatuak, gero eta handiagoak: metro ingurukoak izango dira hasieran, baina, azken orduetan, 2-3 metro ingurukoak.

ITSASALDIA ORDUA METROAK

Itsasgora	00:17	3,17
Itsasbehera	06:03	1,90
Itsasgora	12:52	3,36
Itsasbehera	19:14	1,70

ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	08:14	19:45

ILARGIA	EGUNA
Ilberria	Urriaren 13a, asteartea
Ilgora	Urriaren 20a, asteartea
Ilbetea	Urriaren 27a, asteartea
Ilbehera	Azaroaren 3a, asteartea



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Hitzaldia

Gogoeta hizkuntz politikaz

Bagera elkarteak antolatuta, euskarari buruz arituko dira Donostiako San Telmo museoan. Gaur abiatuko dituzte jardunaldiak, eta lehen gaia instituzioen hizkuntza politika izango da; horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari ohi Zigor Etxeburua gonbidatu dute. Solasaldi soziolinguistikoak Joxe Manuel Odriozolak gidatuko ditu, eta euskarari buruzko kezka duten guztientzako modukoak izango dira.

Zigor Etxeburuaren hitzaldia
Gaur, 19:00etan, Donostiako San Telmo museoan.

Emaguzu zure inguruko ekitaldien berri
<http://berria.eus/zerbitzuak/agenda/bidali/>



Musika

Disko berriko rock doinuak

Esperientzia handiko musikariek osatzen dute Ermuko PAM taldea (Puntoamoa matematiketan). *Hurrengoan bai* diskoa aurkezten ari dira, eta gaur kontzertua emango dute Gasteizko Parral tabernan.

PAM
Gaur, 20:30ean, Gasteizko Parral tabernan.

Solasaldia

Txikiteroak eta bilbainadak

Txikiteroen festa egingo dute igandean Bilbon. Kanean elkartzearen garrantzia eta kantuan aritzeko beharra aldarrikatzen dute txikiteroek. Hori aitzakia hartuta, bilbainadei buruz hitz egingo dute gaur Bilbon egiten diren solasaldi poetikoetan. XIX. mendean hasi ziren Bilboko inauterietako konpartsak Habanera erritmoko koplak txikiak sortzen eta kantatzen. Hiriko berriak hartzen zituzten gaitzat. Geroztik, oso ezagunak egin dira Bilbon. 19:30ean elkartuko dira gaur.

Solasaldi poetikoak: bilbainadak
Gaur, 19:30ean, La Bolsa eraikinean.

SAN TELMO MUSEOA
Euskal gizarteari buruzko museoa
Zuloaga Plaza, 1
943 481 580
Asteartetik igandera
Orduetgia: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.com



Gaur, asteartea, museoko sarrera dohainik
Solasaldia: "Instituzioen hizkuntza politika", Zigor Etxeburua, Joxe Manuel Odriozola
Ekitaldi Aretoa / 19:00 / Sarrera libre jarleku guztiak bete arte / Euskaraz
Antol.: Bagera Euskal Elkarte
Lag.: STM



EKITALDIK

ANOETA Bide berriak dokumentalaren emanaldia, elikadura burujabetzari buruz.

● *Gaur, 19:00etan, Mikelasagasti auditoriumean.*

BILBO Zinematika: Koldo Almandozek zuzendutako piezen programa.

● *Bihar, 18:00etan, eta etzi, 20:30ean, Azkuna zentroan.*

BILBO Canteca de Macao taldearen kontzertua.

● *Bihar, 19:00etan, Fnacen.*

BILBO Egin salto! zikloaren barruan, Lander Camareroen *A Political Story, A Serious Comedy* eta *A Revenge Story* film laburrak.

● *Bihar, 19:15ean, Azkuna zentroko Golem zineman.*

BILBO Lole Kontzertuan, Alba Molinarekin.

● *Bihar, 20:00etan, Campos Eliseos antzokian.*

DONOSTIA Euskal Kartografoen Eskola, XVI-XVII. mendeak, Miren Egañarekin.

● *Bihar, 19:00etan, San Telmo museoko ekitaldi aretoan.*

ERRETERIA Gaixotasun psikikoari buruzko jardunaldiak Oiarzualdean.

● *Gaur, 19:00etan, Merkatuzar - Jose Luis Caso aretoan.*

IRUÑA Joxemiel Bidador eta Mendigatxaren sindromea izenburuko hitzaldia, Patxi Larrionekin.

● *Bihar, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.*

TOLOSA Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* nobelaz ariko dira.

● *Bihar, 19:00etan, kultur etxean.*

URRETU Parketarrak, Zabu Zibu eta Txirrintxon.

● *Bihar, 17:00etan, ikastolako atarian.*

VILLABONA Kapulana bat zintzilik emanaldia, Miren Amuriza bertso-lariarekin.

● *Gaur, 18:00etan, Subijana etxean, Mintzolan.*

ZALDIBIA Jaiak. Bertsolariak: Ne-rea Elustondo eta Aitor Sariegi.

● *Gaur, 11:45ean, kalcen.*

Agenda osoa ikusteko, hemen duzu www.berria.eus-eko lotura



Zinema

Araba Gasteiz

FLORIDA , ikuslearen eguna: asteazkena.			
Atico sin ascensor	19:00		
El apóstata	17:00	21:00	
El corredor del laberinto: Las pruebas			17:15
Everest	17:00	21:00	22:45
Francisco (El padre Jorge)	17:00		
Hitman: Agente 47	17:00	19:00	22:00
Irrational man	18:45	20:45	
Lejos de los hombres	18:45	20:45	
Loreak 19:00			
Marko Makako eta ... (Euskaraz)			
Regresión	17:30	20:00	
YEMO BOULEVARD , ikuslearen eguna: osteguna.			
Atrapa la bandera	18:00		
El desconocido	17:45	19:45	21:45
Everest	17:30	20:00	22:30
Everest 3D	19:30	22:00	
Hitman: Agente 47	18:25	20:30	22:35
Irrational man	20:00	22:00	
La visita	18:40	20:40	22:40
Regresión	17:30	18:00	18:45
Un día perfecto	20:15	21:00	22:00
	21:15	22:00	22:30

Bizkaia

Bilbo			
COLISEO CINESA ZUBIARTE , ikuslearen eguna: astelehena.			
Anacleto: Agente secreto	16:00	18:00	22:30
El corredor del laberinto: Las pruebas	17:00	19:40	22:20
El desconocido	16:00	18:00	20:10
Everest	16:30	19:15	22:00
Irrational man	16:00	18:10	20:20
La visita	16:00	18:10	20:20
Misión Imposible: Nación secreta	20:00		
Regresión	16:00	17:00	18:15
	19:15	20:30	22:00
	22:00	22:45	

GOLEM ALHONDIGA			
El corredor del laberinto: Las pruebas	17:00		
El desconocido	16:30	18:30	20:30
El precio de la fama	17:15	20:00	22:15
Everest	17:15	20:00	22:15
Irrational man	16:30	18:30	
Irrational man (JBA)	20:30		
ma ma	22:15		
Mi casa en París	17:30	20:00	
Regresión	17:30	20:00	22:15
Un día perfecto	20:00	22:15	

MULTICINES , ikuslearen eguna: astelehena.			
Atico sin ascensor	20:00		
El apóstata	17:30	20:00	
Francisco (El padre Jorge)	17:30		
Heimat - La Otra Tierra (JBA)	19:00		
Irrational man	17:30	20:00	
Jack (JBA)	19:45		
Lejos de los hombres	17:30	19:45	
Loreak (JBA) 17:30			
Los hongos	17:30		
Marko Makako eta ... (Euskaraz) 17:30			
Oda a mi padre	19:45		

Barakaldo

COLISEO CINESA MAX OCIO , ikuslearen eguna: astelehena.			
American Ultra	20:30	22:45	
Anacleto: Agente secreto	22:00		
Atrapa la bandera	16:00	18:00	20:00
Cristiano Ronaldo	20:00		
D Train	16:30		
Del revés (Inside Out)	16:00	18:15	20:30
El corredor del laberinto: Las pruebas	17:00	19:40	22:20
El desconocido	16:00	18:15	20:30
Everest	17:00	19:30	22:00
Extinction	16:30	19:00	22:00
Hitman: Agente 47	16:00	18:15	20:30
Irrational man	16:00	22:45	
La visita	16:00	18:15	20:30
Loreak 22:00			
Loreak (JBA) 19:00			
Misión Imposible: Nación secreta	22:00		
Operación Uncle	19:00	22:00	
Regresión	17:00	19:15	22:00
Ricki	17:00		
Transporter Legacy	16:00	18:15	
U2 3D	20:00		
YEMO MEGAPARK			
Anacleto	18:10		
Atrapa la bandera	18:15		
Cuatro Fantásticos	17:30		
El corredor del laberinto: Las pruebas	18:00	19:20	20:40
El desconocido	18:10	20:20	22:30
Everest	17:30	20:00	22:30
Everest 3D	19:35	22:05	

Hitman: Agente 47	18:00	20:00	22:15
Irrational man	20:10	22:10	
La visita	20:20	22:20	
Regresión	17:30	18:15	19:00
	20:30	21:15	22:00
	22:45		

Basauri

SOCIAL ANTZOKIA			
Anacleto: Agente secreto	17:30	20:00	
Durango , Zugaza, Hitman: Agente 47, 20:00, Regresión, 20:00.			

Getxo

LAUREN GETXO , ikuslearen eguna: asteazkena.			
Atico sin ascensor	17:00		
El corredor del laberinto	17:00		
El desconocido	19:15	21:20	
El precio de la fama	17:00	19:10	21:20
Everest	20:00		
Hitman: Agente 47	17:00	19:10	21:20
Irrational man	17:00	19:10	21:20
Regresión	17:00	19:10	21:20

Leioa

CINESA ARTEA , ikuslearen eguna: asteazkena.			
El corredor del laberinto: Las pruebas	16:30	19:30	22:00
El desconocido	16:15	18:15	20:15
Everest	16:30	19:30	22:00
Hitman: Agente 47	16:15	18:15	20:15
Irrational man	18:00	20:15	
La visita	16:00	18:00	20:15
Regresión	16:00	17:00	18:15
	19:15	22:30	22:45
Un día perfecto	16:00	18:00	22:15
Vacaciones	16:00		

KULTUR LEIOA			
La fiesta de despedida	20:00		

Portugalete

DOCK BALLONTI			
Atrapa la bandera	16:25	18:20	22:30
De chica en chica	16:15	18:15	
El corredor del laberinto: Las pruebas	18:05	20:00	
El desconocido	20:15	22:15	
Everest	19:45	22:10	
Hitman: Agente 47	16:30	18:30	20:25
Irrational man	20:30	22:25	
La vanité	16:20		
Marco Macaco y los ...	18:10		
Marko Makako eta ... (Euskaraz) 16:30 18:10			
Regresión	16:05	18:05	20:10

Santurtzi

SERANTES , ikuslearen eguna: asteazkena.			
El desconocido	18:00	20:30	
Hitman: Agente 47	18:00	20:30	
Regresión	18:00	20:30	
Zornotza , Zornotza aretoa, ikuslearen eguna: astelehena, Retratos de familia (JBA), 20:00.			

Gipuzkoa

Donostia

ANTIGUO BERRI , ikuslearen eguna: astelehena.			
Anacleto: Agente secreto	20:00	22:30	
El corredor del laberinto	16:45	19:30	22:15
El desconocido	17:00	19:45	22:15
Everest	17:00	19:30	22:00
Hitman: Agente 47	17:15	19:45	22:00
La visita	17:30	20:00	22:30
Marko Makako eta ... (Euskaraz) 17:30			
Regresión	17:15	19:45	22:00
Un día perfecto	17:30	20:00	22:30
PRINCIPE , ikuslearen eguna: asteazkena.			
Atico sin ascensor	17:00		
El apóstata	16:45	18:30	20:30
El caso Heineken	17:00	22:00	
El desconocido	17:30	20:00	22:30
El precio de la fama	17:00	19:30	22:00
Everest	17:15	19:45	22:15
Francisco (El padre Jorge)	17:30		
Irrational man	17:00	19:30	22:15
La gata sobre el tejado de zinc	20:00		
Lejos de los hombres	17:30	20:00	22:30
Loreak 19:00			
ma ma	19:00	22:00	
Regresión	17:15	19:45	22:15
Una segunda oportunidad	22:15		
TABAKALERA			
El complejo del dinero	22:00		
TRUEBA , ikuslearen eguna: asteartea.			
Irrational man (JBA)	17:30	19:45	22:00
Jack (JBA)	17:30	19:45	22:00
Arasate , Amaia antzokia, Amy, 20:30.			

Eibar

COLISEO , Ez dago emanaldirik.			
Erretereria			
NIESSEN ZINEMAK			
Anacleto: Agente secreto	22:30		



SINOPSIK

'Jack'

Zuzendaria: Ivo Pietzcker.
Aktoreak: Ivo Pietzcker, Georg Arms, Luise Heyer, Vincent Redetzki, Jacob Matschenz, Nele Mueller-Stofen. **Iraupena:** 103 minutu. **Generoa:** Drama. **Herrialdea:** Alemania. **Urtea:** 2014.

Hamar urte baka-rik dituen arren, ama ezkongabeari lagundu behar dio Jackek, eta Manuel anaiaz arduratu behar du. Egun batean, Manuel erre egingo da, eta erri guztia Jacki egotziko diote. Barne-tegi batera eramanango dute Jack, baina hango egoera jasan ezinda, alde egingo du. Amaren bila abiatuko da, baina ez du aurkituko.

'Marko Makako eta Karibeko primatak'

Zuzendaria: Jan Rahbek.
Iraupena: 80 minutu. **Generoa:** Animazioa. **Herrialdea:** Danimarka. **Urtea:** 2012.

Polizia kasu bat argitzearekin amets egiten du Marko Makakok, baina birtartean irla bateko zaindaria da. Luluren arreta ere bereganatu nahi du. Baina egoera nahasi egingo da irlara Karlo iristean. Kasino handi bat eraiki nahi du, eta Lulu konkistatu nahi du. Karloren benetako asmoak deskubritzen saiatuko da Marko.

Atrapa la bandera	18:00		
El corredor del laberinto: Las pruebas	20:00	22:35	
El desconocido	18:15	20:30	22:40
Everest	17:50	20:15	22:40
Hitman: Agente 47	18:00	20:20	
Irrational man	20:15		
La visita	18:00		
Regresión	18:10	20:25	22:45
Irun			
CINEBOX MENDIBIL , ikuslearen eguna: osteguna.			
Bajo la misma estrella	20:00	22:20	
Como entrenar a tu dragón 2	17:45	20:10	22:20
El consejero	17:45	20:10	22:20
Everest	22:00		
Las aventuras de Peabody y Sherman	17:45		
Las pruebas	19:00		
No hay dos sin tres	20:10	20:20	
Perdida	19:20	22:00	
Regresión	17:45	20:10	22:20
Rio 2	18:00		
OCINE TXINGUDI , ikuslearen eguna: astelehena.			
American Ultra	22:30		

Gutxi gorabehera



+
EKOGRAFIK
Aritz Galarraga

Hara, zer edo zer esan beharko neronek ere ETB1eko apustu nagusia den *Aitaren etxea* telesailaren gainean. Hasteko, bat natorrela Palaciosekin: gustura ikusi nuen estreinako atala. Gustura ikusi nuen Echege fikziozkoa, gure Hondarribia, alegia, hain polita dena bandera espainolez beteta. Gustura, No-
doak esan baitzigun: «*Tributa a*

Franco un recibimiento lleno de afecto y entusiasmo». Orain egingo lukeen bezalatsu, segur aski; abuztu partean bereziki. Gustura ikusi nituen aktoreak, adibidez Abel Barriolaren dobla den protagonista –edo Iban Garteren dobla da?–. Felix Arkarazo ere bai, bestela betirako berearekin eramango lukeen ertzainaren papera gainetik kentzeko lanean. Eta Miren Gaztañagaren

oso fan, Francorentzat den kopan listua botatzen duenean. Gustura ikusi nuen korapiloa azkenik, ezinezko maitasun bat –«alkatearen alaba duk; etsaiak dituk, Francoren morroiak»–, gerraondoaz abertzaletasunak egin duen errelato hegemonikoaren barruan dena. Edozein euskaldun zintzori oilo ipurdia jarri beharko liokeen mezuarekin: «Mantendu familia bat eginda. Eta defendatu

aitaren etxea. Gora Euskadi!». Gora! Behera! Gutxi gora behera! Orain, ondo dagoela esan ondoren; edo, kapitulu bakarra ikusita, ondo egongo dela ematen duela esan ondoren, kontxo, hausnarketarako: bakezko berrogei urte haien paisaia ez zaizue iruditzen behin baino gehiagotan kontatu digutela? *Making off*-ean esan ziguten: «Iruditu zitzai-
gun istorio hori hainbatetan kontatuta zegoela». Eta telesailaz ere ari naiz, *Amar en tiempos revueltos*, *Amar es para siempre*, hasieretako *Cuéntame*, burua gehiegi estutu gabe. Ados, *Aitaren etxea*-k euskal berariazkotasuna izango du. Baina gauza ber-

tsuez ari gara, ematen du kopiatzen, eta berandu beti bezala. Zergatik ez bilatu, ez xehetasuna, baizik eta benetako bide propioa? Zergatik ez saiatu kontaktzen inork kontatu ez duena? Ez da izango etxean bertan ez dauka-
gulako lehengairik. Santi Leonek esan zuen, Intxaurrendoko kuartel ahaztezina gogoan noski, joan den osteguneko *Ekografia* irakurri eta gero –ze meritua daukan gizonak, gauza horiek irakurtzegtatik–: *Olmos y Robles* ondotik, *Nueces y Nieve*? Bada, zergatik ez, halako zerbait ETB1en, zergatik ez gara ausartzen. Berdin eta berandu ibiltzea baino, puskaz arrazoizkoagoa ez ote den.

Xabier Lapitzek 'El jaque' saioa gidatuko du eguerdian ETB2n

Mahai batean solasean ariko dira hiruzpalau lagun, gehienbat kazetariak • Astelehenetik ostiralera emango dute, 12:00etatik 14:00etara

Urtzi Urkizu Donostia

Radio Euskadin ia zortzi urte egin ostean, PSE-EE Jaurlearitzara eta Alberto Surio EITBko zuzendari nagusiaren kargura iritsi zirenean, 2009ko ekainaren 26an *Boulevard* saioa entzuleak agurtu zituen Xabier Lapitzek. Urte hartan, irailean, Onda Vascako goizak gidatzen hasi zen. Eszedentzia hartu du orain Lapitzek Onda Vascan, eta EITBra itzuliko da. Hilaren 19tik aurrera, *El jaque* saioa zuzendu eta aurkeztuko du Hondarribian jaiotako kazetariak, ETB2n. Astelehenetik ostiralera emango dute saio berria, 12:00etatik 14:00etara.

Lapitzek iragarri duenez, ma-

hai baten bueltan hiruzpalau pertsona ariko dira solasean egunero. «Solaskide gehienak kazetariak izango dira, baina tartean politikariak ere etorriko dira». Horrez gain, zuzeneko konexioak egingo dituzte Eusko Legebiltzarrekin. Gaur-gaurko gaiet lotutako bideoak egingo dituzte. Platoon zein platotik kanpo, elkarriketak ere tartekatuko dituzte.

Prime Time ekoizpen etxeak egingo du *El Jaque* saioa. Hain zuzen ere, etxe horrek egin zuen udaberrian eta udan ordutegi berean *Como en casa en ningún sitio*, Patricia Gaztañagarekin. Aurreko denboraldian, ETB1erako *Euskal Herria Zuzenean* saioa egin zuen Prime Timek. Eta programa horretako zuzendaria izan zena, Agustín Ezenarro, Lapitzen saioan ariko da orain.

Lapitzek adierazi du «ilusio handia» duela ETBko programa berriarekin: «Telebistaz ez dakit ezer, baina asko ari naiz ikasten. Pozik eta hasteko gogoarekin nago. Jende berriarekin lanean, gainera».

EITBren Bilboko egoitzan egingo dute saioa.



Xabier Lapitz EITBra itzuliko da, sei urteren ostean. EITB

'Safari Wazungu' saioa kendu dute, 2016an emateko

+ Irailaren 13an estreinatu zuen ETB2k *Safari Wazungu*, zortzi pertsona ospetsuekin Afrikan grabatutako *reality*-a. Irailaren 20an emah zuten bigarren atala, eta, bi igande horietan, ikusle datu eskasak izan zituen programak: %4,1eko ikusle kuota Araban,

Bizkaian eta Gipuzkoan. Hurrengo bi igandetan, Kataluniako hauteskundeetan inguruko saio berezia eta Txiki eta Otaégiren fusilamenduen inguruko dokumentala izan dira. Baina datorren igandean, Hostoil etxearen (*El conquistador del fin del mundo*) *reality*-a ez da ETB2ko programaziora itzuliko. ETBko iturrien arabera, «ziurrenik» 2016. urtean jarriko dute berri saioa, *El conquistador del fin del mundo* amaitzean.

Eguzki irratiak lizentzia eskatu dio Nafarroako «aldaketaren gobernuari»

U.U.

Abenduan, Iruñeko Eguzki irrati libreak 33 urte beteko ditu «modu alegalean» emititzen. Hainbat alditan saiatu da egoera erregulartzatzen. Azkena 2012an izan zen, Nafarroako Gobernuak 44 lizentzia emateko lehiaketa antolatu zuenean. Eguzki irratiak lizentzia eskatu dio «berriro ere» Nafarroako Gobernuari, irrati komunitario gisa. Alegazioak aurkeztu zituzten irrati libreak foru dekretuaren proiektuari, eta helegitea ere jarri zuten foru aginduaren aurka. Izan ere, 2010eko Ikus-entzuzko Komunikazio Legearen 4.1 artikulua araberak, «pertsona guztiek ikus-entzuzkoen komunikazio aniztasunaren eskubidea dute, bai komunikabide publikoen, komertzialen eta komunitarioen bidez».

Nafarroako Gobernuak aurreko legealdian Eguzki irratiari esan zion Espainiako estatuari zego-
kiola irrati-uhinak egokitzea. «Aldaketaren gobernuari» mintzatu zaio orain Eguzki: «Eskatzen diogu irabazi asmorik gabeko komunikazio zerbitzuak eman ahal izateko beharrezkoak diren espazio publikoak erreklamatzeko Espainiako Gobernuari». Irrati librearen iritzi, eskaera hori ez bada aintzat hartzen, legea urratzen jarraitzeaz gain, «demokrazia defizita» ekarriko luke. Oztupoak «lehenbailehen» amaitzea espero du irratiak.



Telebistaz ez dakit ezer, baina asko ari naiz ikasten. Pozik eta hasteko gogoarekin nago, jende berriarekin»

Xabier Lapitz
«El jaque»-ko zuzendaria eta aurkezlea

Hamaika

08:00: Marrazki bizidunak. 08:30: Telebista 2.1. 10:00: Ertzak. 10:30: Harrobia. 11:30: Kanaldude. 12:30: Hamaikakoa. 13:30: Zaindu zaitetz. 14:00: Lurrean bizi. 14:30: Hurbilean. 15:00: Artekale. 16:00: Bizi musika. 17:30: Hamaikakoa. 18:30: Kanaldude. 19:30: Derbia. 20:30: Hurbilean. 21:00: Gurean gaur elkarriketa. 21:30: Ertzak. 22:00: Gurean gaur elkarriketa. 22:30: Ertzak. 23:00: Artekale. 00:00: Gurean gaur elkarriketa. 00:30: Ertzak.

ETB1

07:00: Sorgintxulo. 09:00: Egun on Euskadi. 11:05: Euskal Herritik. 12:10: Ozeanoak. 13:05: Burubero. 14:00: Gaur Egun. 14:50: Eguraldia. 15:10: Txoriene Zigor Iturrietarekin. 16:10: Azpimarra. 18:30: Zu Kirolari. 19:00: Burubero. 20:00: Gaur egun. 20:50: Eguraldia. 21:05: Gu ta gutarrak. 22:30: Zuek hor! 23:40: Azpimarra+. 00:55: Zu Kirolari.

ETB2

07:30: Del país de los vascos. 08:00: Tu vista de Euskal Herria. 08:55: Robin Food. 09:55: Daniel Deronda. 11:45: Transición y democracia en Euskadi. 12:20: DSS 1813-2013. 14:00: Atrápame si puedes. 14:58: Teleberri. 16:15: Eguraldia. 16:25: Sin ir más lejos. 19:20: Zinema. 'La ley del Oeste'. 1953. 21:00: Teleberri. 22:10: Eguraldia. 22:30: La noche de... 'Dos a la carta'. 2014. 00:40: El zapping de La Noche de... 01:35: Musika Gaua Jazz.

ETB3

07:00: Kamera ezkutua. 09:00: Raa Raa lehoi orrolaria. 09:20: Hello Kitty. 10:05: Hartz Txiki. 10:50: Doremiren magia. 11:40: Fitz eta Pitz. 12:00: Sorgintxulo. 12:30: Galactik futbol. 13:15: Zig eta Sharko. 13:30: Aita-amabixi magikoak. 14:10: Gumballen Mundu Harrigarria. 14:45: 3,2,1, pinguinoak. 15:30: Pippi Kaltzaluze. 15:55: Blackie and company. 16:20: Golazen. 17:20: Doraemon. 18:05: Martin Mystery. 18:50: Sorgintxulo. 19:30: Aita-amabixi magikoak. 20:15: Gumballen mundu harrigarria. 20:40: Berebiziko espioiak. 21:20: Turbo Fast. 21:40: Kodea Lyoko. 22:50: Kamera ezkutua. 01:05: One Piece.

ETB4

08:25: Mi querido Klukowsky. 10:15: Robin Food. 11:50: Monk. 13:55: Rex. 15:30: Zinema. 'Rio Apache'. 1953. 16:55: Esto no es serio, o ¿sí? 18:55: Date el bote. 19:50: No es País para sosos. 21:05: Equipo D. 22:00: Grupetto. 22:50: Voluntad de hierro.

NafarTB

08:00: Ene kantak. 08:30: Marrazki bizidunak. 12:00: NTB Hoy. 13:30: NTB Kirolak. 14:15: Albistegia. 15:00: NTB Musika. 15:15: NTB Hoy. 17:00: Marrazki bizidunak. 20:20: Ene kantak. 21:00: NTB Musika. 21:10: Pilota onena. 22:20: NTB Hoy.

La1

08:30: Los desayunos de TVE. 10:05: La mañana. 13:20: Torres en la cocina. 14:00: Informativo territorial. 14:30: Corazón. 15:00: Telediario 1. 16:00: Informativo territorial resumen. 16:15: Eguraldia. 16:25: Acacias, 38. 17:20: Seis hermanas. 18:20: Zinema. 'Dream hotel Mexico'. 2005. 19:50: España Directo. 20:30: Aquí la Tierra. 21:00: Telediario2. 22:00: Olmos y robles. 23:45: Zinema. 'Braveheart'. 1995. 02:30: La noche en 24 horas.

La2

08:00: TVE English. 08:30: Arkeomania. 09:00: La fábrica de ideas. 09:30: Aquí hay trabajo. 10:00: La aventura del saber. 11:00: Paraisos cercanos. 12:00: Zinema. 'Mi general'. 1986. 13:45: Viaje al centro de la tele. 14:40: El hombre y la Tierra. 15:45: Saber y ganar. 16:25: Dokumentalak. 19:00: Zinema. 'La bestia'. 2003. 20:25: Como hemos cambiado. 20:55: Dokumentala. 21:55: Zinema. 'Campanadas a medianoche'. 1965. 23:50: La2 Noticias. 00:20: Dantza jaialdia.

Antena3

06:15: Noticias de la mañana. 09:00: Espejo público. 12:20: Karlos Argiñano en tu cocina. 12:45: La ruleta de la suerte. 14:00: Los Simpsons. 15:00: Antena 3 Noticias. 15:45: Kirolak. 16:00: Eguraldia. 16:30: Amar es para siempre. 17:30: El secreto de Puente Viejo. 18:45: Ahora caigo. 20:00: Boom!. 21:00: Albistegia. 21:45: El hormiguero 3.0. 22:40: Mar de plástico. 00:00: Al rincón. 01:30: Zinema. 'La torre del reloj'. 02:45: Europako poker txapelketa.

Hollywood

09:35: 'Spy kids 2'. 11:30: 'Mensaje en una botella'. 13:50: 'Limite vertical'. 16:00: 'Un canguro superduro'. 17:45: 'El Santo'. 19:55: 'Dos policías rebeldes'. 22:10: 'Lawrence de Arabia'.

AMC

09:10: 'Cerca del paraíso'. 10:45: 'Indomable'. 12:20: 'Youngblood'. 14:10: 'Hechizo del corazón'. 16:05: 'Fear the walking dead'. 17:00: 'La gran evasión'. 19:55: 'Million dollar baby'. 22:10: 'Mal ejemplo'. 23:50: 'Dos colgaos muy fumaos'.



Tele5

07:00: Informativos Telecinco. 08:55: El programa de Ana Rosa. 12:45: Mujeres y hombres y viceversa. 14:15: Cámbiame. 15:00: Informativos Telecinco. 15:35: Kirolak. 15:45: Eguraldia. 16:00: Sálvame limón. 17:00: Sálvame naranja. 20:10: Pasapalabra. 21:05: Informativos Telecinco. 21:50: Gran Hermano 16.

LaSexta

07:15: ¿Quién vive ahí?. 09:05: Crímenes imperfectos. 10:30: Historias criminales. 11:30: Informe criminal. 12:20: Al rojo vivo. 14:00: La Sexta noticias. 14:55: Jugones. 15:30: Eguraldia. 15:45: Zapeando. 17:15: Más vale tarde. 20:00: La Sexta noticias. 21:00: Kirolak. 21:30: El intermedio. 22:30: El jefe infiltrado.

Cuatro

07:00: El zapping de surfers. 08:30: Billy el exterminador. 09:30: El último poli duro. 10:30: Alerta cobra. 12:20: Las mañanas de Cuatro. 14:10: Noticias Cuatro. 14:50: Eguraldia. 14:55: Deportes Cuatro. 16:00: Hawai 5.0. 18:30: Las reglas del juego. 20:05: Albisteak. 21:30: Gym Tony. 22:35: CSI Las Vegas. 23:30: CSI: Cyber. 00:25: CSI: Las Vegas.

TF1

06:30: TFou. 08:30: Téléshopping. 09:25: Mon histoire vraie. 09:45: Petits secrets entre voisins. 10:45: Une histoire, une urgence. 12:00: Le 12 coups de midi. 13:00: Journal. 13:55: Les feux de l'amour. 15:10: Téléfilma. 'Brisée par mon mari'. 2011. 17:00: Quatre mariages pour une lune de miel. 18:00: Bienvenue au camping. 19:00: Money drop. 20:00: Journal. 20:40: Nos chers voisins. 20:55: Mentalist. 00:30: Les Experts: Miami.

France 2

06:25: Télématin. 09:10: Des jours et des vies. 09:35: Amour, gloire et beauté. 10:00: C'est au programme. 10:55: Motus. 11:25: Les z'amours. 12:00: Tout le monde veut prendre sa place. 13:00: Journal. 13:55: Expression directe. 14:00: Toute une histoire. 15:05: L'histoire continue. 15:35: Comment ça va bien!. 17:20: Dans la peau d'un chef. 18:15: Joker. 18:50: N'oubliez pas les paroles!. 20:00: Journal. 20:40: Parents, mode d'emploi. 20:55: Cash investigation. 23:00: Infrarouge.

France 3

06:30: Ludo. 08:50: Dans votre région. 10:50: Midi en France. 12:00: Le 12/13. 12:55: Météo à la carte. 13:50: Un cas pour deux. 14:55: Assemblée nationale. 16:10: Des chiffres et des lettres. 16:50: Harry. 17:30: Slam. 18:10: Questions pour un champion. 19:00: Le 19/20. 20:20: Plus belle la vie. 20:50: Téléfilma. 'Meurtres à l'abbaye de Rouen'. 2013. 22:35: Grand Soir 3. 23:15: Zinema. 'Le fils de l'autre'. 2012.

Arte

08:30: X-enius. 08:55: Les Héros irradiés. 09:50: Le Casse-tête afghan. 10:45: Les Aventures culinaires de Sarah Weiner. 11:40: Amour, le fleuve interdit. 12:25: 360°-GÉO. 13:20: Arte Journal. 13:35: Zinema. 'Une femme de ménage'. 15:15: Humanima. 15:40: Au gré des vents. 16:25: U-455, le sous-marin disparu. 17:20: X-enius. 17:45: Enquête d'ailleurs. 18:15: Au gré des saisons: Automne. 19:00: La France sauvage. 19:45: Arte journal. 20:05: 28 minutes. 20:55: Soirée spéciale Europe et réfugiés. 22:25: L'Europe de l'Est et la crise des réfugiés. 23:30: Ce qui nous attend. 01:50: Arte reportage.

Denbora pasak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin. 1. Zaplada, masaileko. 2. ... izan, gogoratu, oroit. Gibelerako onak omen dira Zestoakoak. 3. Akabatu, erail. Gaueko otordua. 4. Otarrainxkaren antzeko eskoldun txikia, jateko ona. Alderantziz, begirada. 5. Zigor. Bokalik mehe da ezbaierik gabe. 6. Errepikatuz, txori mota. Afrikako hegoaldeko estatua. 7. Hizki baten izena. Huescako herria, izen bereko ibarrean. 8. Kontsonantea. Balio txikiko diru zahar. Dezimetroa, labor-labor adierazita. 9. Arku. Da, haiei. 10. Hortzak ditu nekazari lanabes honek. Zegamako auzoa.

Goitik behera. 1. Laiaz edo goldeaz ateratzen den lur zati, mokor. Kez betea, keztatua. 2. Baztango herria. Zirkonia balio du. 3. Poloniar jatorriko dantza, konpas bitarra duena, erritmo bizikoa. Euskal mitologiako jainua. 4. Litoaren ikur kimikoa. Isla. 5. Añari, ate inguru. Esaten du. 6. Kontsonantea. Hegazti mota. 7. Txistua. Ateak irekitzean eta hestean itzultzen den atala. 8. Hauts. Argonaren ikurra. 9. Itsas hegazti. Tutua. 10. Parada, egokiera. ... egin, agindutakoa bete.

		1		6					
			8				2		
6		4			9	5	1		
		2		4		7		1	
	4	3				2	8		
7		5		8		3			
	5	9	1			8		2	
	3				4				
				5		4			

AURREKO ERANTZUNAK

4	2	1	9	8	5	7	6	3
3	5	6	2	7	1	9	4	8
9	7	8	4	6	3	1	5	2
1	8	5	7	9	4	3	2	6
7	9	3	5	2	6	4	8	1
2	6	4	3	1	8	5	9	7
8	4	2	1	3	9	6	7	5
6	3	9	8	5	7	2	1	4
5	1	7	6	4	2	8	3	9

Goitik behera: 1. Sarritan. 2. Tiranar. 3. Arrain. 4. Arina. 5. Aria. 6. Argia. 7. Garbia. 8. Gabirai. 9. Gabiriarr.

SUDOKUA. 9x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

GOITIBEHERRA. Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak. 1. Bastartak, sasikumeak. 2. Garaiak, aldiak. 3. Basamortuko gune hezeak. 4. Emakume izena. 5. Kontinente bat. 6. Denbora. 7. Korsikako hiria. 8. Lapurtua, ostua. 9. Kantak.



Kirol egokituak dabilzanekin lan egin dute ikasleek, eta, igandean, saskibaloian gurpil aulkian jokatzeari erakutsi zuten. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Berezia izan da aurtengo Kilometroak jaia. Eguna denentzat gozagarria egiteko, eta ahalik eta aztarna txikiena uzteko, hilabete luzez hiru ideien inguruan lan egin dute antolatzaileek, Usurbilgo Udalak eta hainbat gizarte taldek: iraunkortasuna, inklusibotasuna eta parekidetasuna.

Hiru urrats kilometro askoko jai bidean



Jaiaren indarkeria sexistari aurre egiteko protokolo bat eratu dute. Irudian, txartelak, jai gunea zabaldu aurretik. KMK2015

da, antolatzaile, agintari eta alor bakoitzean lan egiten duten gizarte taldeen artekoa.

IRAUNKORTASUNA

Iturriko ura, hondakinak gaika biltzea eta komun lehorrekin egintako proba bat Euskal Herria Zuzenean jaialdikoaren laguntzaz. Lan ildo horiekin aritu dira Kilometroak 2015 Ingurumen eta Garbitasun Batzordean. «Hasieratik genuen argi Kilometroak bezalako ekitaldi batek, tamaina hutsarengatik, talka batzuk sortzen dituela iraunkortasunarekin», esan du batzordeko kide Joxe Mari Irazustak. Proposamena aurkeztu zioten antolakuntzari joan zen azaroan, kalte horiek murrizte aldera.

Kontsumoa izan dute kezketako bat, eta irizpide batzuk ezarri dituzte. Besteak beste, erositako produktuak ahalik eta gertuenekoak izatea erabaki zuten, eta horiek ahalik eta hondakin gutxien sortzea. Neurrien artean daude aluminiozko latarik ez saltzea, esaterako, eta, ahal dela, botilak berreskuratzea –sagardoaren kasuan bezala–. Iturriko ura doan eskainita, botilako urak eman zezakeen diruari uko egin diote: «Kontsumoan oinarritzen bada jaia eta dirua bada helburu bakarra, orduan badakigu. Baina badiugu beste balio batzuk; baztertu egin behar ditugu beharrezkoak ez diren gauzak, eta, gure ustez, botilako ura ez da beharrezkoa». Halere, erroka ez dela lortu onartu du Irazustak, botilako ura saldu egin zelako eta edari asko sartu zelako kanpotik: «Baina, behintzat, badakigu iturriko gehiago kontsumitu zela».

Edu Lartzanguren

Iturri bereziak deigarriak gertatu ziren igandean ikastolen aldeko Kilometroak jaian. Ur botilek sortzen duten kutsadura saihesteko, iturriko ura eskaini zuten antolatzaileek, lehen aldiz. Izan ere, iraunkortasunaren aldeko apustua egin dute Usurbilgo (Gipuzkoa) Udarregi ikastolak eta udalak. Baina landu dituzten hiru balioetatik bat baino ez da izan iraunkortasuna. Horrez gain, inklusibotasuna eta parekidetasuna jorratu dituzte. Azken alorrean, etorkizuneko ikastolen aldeko jaietan erabili ahaliko den protokolo bat sortu dute, eraso sexistei aurre egiteko.

Igandean, lan horren azken emaitzak ikusi ziren Usurbilen, baina hilabete luzeko ariketa izan

Gai organikoak bertan konpostatzea zen beste helburuetako bat, eta hainbat gunetan lortu egin dutela esan du batzordekideak. Bilketan ahalegin handia egin dute, eta atzo ere horretan jarraitzen zuten lanean. «Lana luzatzen da, baina emaitza askoz hobea da». Zaborraren %90 bat gaika berezita jaso dute. «Kanpotik etorritako jendeak ez du usurbildarrok hondakinen gain dugun kontzientzia, eta horrek lan erantsia ekarri digu».

Dokumentatu egin dute guztia. Ikus-entzunezko bat ere editatu eta argitaratu dute, «egindako lana indartuko duelakoan». Zazpi lagun aritu dira langintza horretan. Beste 120 lagun aritu ziren atzo, goiz eta arratsaldean.

Zaborrik gabeko Kilometroak ez dela egongo uste du Irazustak, halako jai handiak «berez» dakarrelako. «Hausnartu beharrekogo gaia dugu kontsumo eta ingu-

rumen alorretik: halako neurri handiekin, hainbat arlo kontrola-gaitz bihurtzen dira, batez ere, kontsumoan oinarrituriko ekitaldia delako».

INKLUSIBOTASUNA

Gurpil aulkian saskibaloian jolas-ten aritu ziren goizean Kalezarren. Arratsaldean, begiak estalirik zein aulkian ibili ziren lehia jolasgarrian. «Zergatik ez egokitu halako jai bat denontzat izan dadin?», esan du Jurgi Olasagasti Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko teknikariak. Olasagasti ibili da lanean inklusibotasuna jaietan txertatzeko, eta Guztioak Gattunk egitasmoaren batzordean aritu da azken hilabeteotan. Inklusibotasuna ikastolak landu behar zuela erabaki zuten, eta sentsibilizazio ekintzak egin zituzten. Kirol egokituan dabilzan Aritz Bikuña, Oskar Sanchez eta Karlos Novorekin elkartu zituzten haurrak. Haurrak, ondoren, haiek bezala kirola egiten saiatu ziren. Azkenean, solasaldi bat izan zuten, jarduera horien inguruan galdetzeko. «Haurrak harrituta eta guztiz interesatuta zeuden».

Bigarren urratsa gaia herrira zabaltzea izan zen, ezagutarazteko. Kirol egokitua nola antolatzen den azaltzeko, hitzaldi bat eman zuten. Horrez gain, antzezlan bat prestatu zuten. Urritasuna duten pertsonen edo menpekotasun egoeran daudenek kirolean izan dezaketen eginkizuna lantzen zuen lanak. Alex Telok zuzendu zuen, eta, besteak beste, Ana Elorduik eta Anabel Arraizak parte hartu zuten.

Komun unibertsal bat diseinatu eta garatu zuten, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean. Komunak hiru helburu bete behar zituen: inklusioa izatea –elbarritasuna dutenek berdinean erabili ahal izateko–, parekidea izatea –emakume zein gizonentzat baliagarria izateko– eta iraunkorra izatea –material biodegradagarriekin, berrerabilgarriekin edo birziklagarriekin erakia izatea, ez kutsatzeko–.

Kilometroak jaietan izandako aukerarekin pozik dago Olasagasti. «Milaka lagunek ikusi ahal izan zuten nola egiten den egokituriko kirola, eta asko txunditu egin ziren». Halere, harrituta dago teknikaria, gurpil aulkian esertzen ausartu ez zirenekin. «Pena da halako aukera galtzea».

PAREKIDETASUNA

Jende asko biltzen dituzten jaietan gertatzen ohi diren sexu erasoak izan dituzte gogoan pareki-

detasuna lantzeko orduan. «Ikuspegi feminista halako ekitaldi batean sartzeak lan handia eskatzen du», esan du Nerea Altxu Usurbilgo Udaleko parekidesun teknikariak. Lehenbizi, antolatzaileek beraiek egoeraren diagnostikoa egin behar dute, eta hausnarketa sakona. Izan ere, orain arte ez da parekidesun gaia landu Kilometroak jaiaren antolakuntzan. «Halakorik egiteko aukerarik ez zegoenez, guk gauza batzuk planteatu genituen».

Horietako bat formakuntza izan dela azaldu du Altxuk. Kilometroak-eko lantaldetan parte hartuko zuten herritarrei jai parekideen inguruko bi saioko ikastaro bat eman zieten. Horren bidez, antolakuntza prozesuan eta egitarauan oinarri bat jartzea lortu zutela dio teknikariak.

Eraso sexisten aurkako protokolo bat eratzea erabaki zuten gero, udalarekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean. Azken urteotan herrietan mugimendu feministak eraturiko protokolo eredu bat badagoela esan du Altxuk, baina Kilometroak jaietan orain arte ez dela halakorik egon. «Jaietan, eduki sinboliko handia egoten da, rolak erreproduzitu egiten dira, eta indarkeria sexista izaten da». Landu duten protokoloa hurrengo jaietan ere erabiltzeko prest egongo dela adierazi du teknikariak.

Protokoloa berezia da Kilometroak jairako. Izan ere, biltzen den jendetza dela-eta, telefono zerbitzua bertan behera geratu ohi da. Erantzuna emateko orduan ezberdin egiten du horrek. «Eraso larri bat gertatuz gero zer baliabide ditugun aztertu behar genuen». Koordinazio gunean Ertzaintza egoten da, baina bestelako laguntza ere ziurtatu nahi zuten antolatzaileek: foru aldundiko Gizarte Larrialditarako Laguntza. Erasoa larria jasanez gero, emakume batek gune bakoitzeko sorospen postura jo behar zuen, eta han bideratuko zuten Ertzaintzara edo aldundiko zerbitzura, emakumeak erabakitakoaren arabera.

Laguntza iritsi bitartean, antolakuntzakoak ziren biktimari laguntza ematekoak. Bi emakumeko bi txanda egin zituzten Altxuk eta lankideek igandean. «Guk dakigunez, ez zen salaketarik egon». Hurrengo Kilometroak-en antolatzaileekin partekatu nahi dute orain egindako lana. Halere, parekidesuna lantzeko prozesu luze bat landu beharko da. «Urrats batzuk baino ez ditugu egin».



Iturriko ura eskaintzeko sistema bat eratu zuten, hondakinak gutxitzeko asmoz. KMK2015USURBIL

Eskerrik asko Usurbilen bihotzetik!

g!ttunk
KILOMETROAK 2015 USURBIL

Ikastolenkartea
Udaregi
IKASTOLA

Kutxa ES 56 2095 5001 0091 1435 4829
Laboral Kutxa ES 22 3035 0235 2223 5003 5198
Gure Zozketa: 1go saria 51855 // ordezkoa: 2689

www.kilometroak.eus





«Txirrindularira egokitu behar du bizikletak, ez alderantziz»

Garikoitz Etxebeste • Fisioterapeuta

Bizikletan dabiltzaneren errendimendua eta osasuna hobetzeko, azterketa biomekanikoak egiten hasi dira Poliklinikan. Bizikletan nola jarri behar duten esaten die probak txirrindulariei.

Ainara Arratibel Gascon

Garikoitz Etxebeste Donostiako Poliklinikako Errehabilitazio Zerbitzuko fisioterapeutaren arabera (Donostia, 1979), bizikletan ibiltze-arekin batera, bada txirrindulari batek jakitea beharrezkoa den gauza bat: bizikleta gainean nola jarri behar duen. Hori argitzea du helburu egiten hasi diren probak. «Legezko dopin modu bat da gurea», esan du irribarrez.

Txirrindularien osasuna eta errendimendua hobetzeko azterketa biomekanikoak hasi zarete eskaintzen. Legezko dopina al da zuena?

Halako zerbait [irribarrez]. Dena den, gure helburua ez da bakarrik txirrindularien errendimendua hobetzea, baizik eta, batez ere, osasuna hobetzea.

Ez al dute nahikorik egun egiten zaizkienekin?

Gure kasuan, abiatzeko, txirrindulariari elkarrizketa bat egiten diogu, jakiteko zenbat urte daramatzen bizikletan ibiltzen, zenbat ibiltzen den, lesiorik izan ote duen... Behin hori

jakinda, azterketa fisioterapeutiko bat egiten diogu, haren ezaugarri fisikoak ezagutzeko: malgutasuna, jarrerak... Gero, haren datu antropomorfoak ordenagailuan sartu, eta bizikleta robotiko batean jarriko da, 20 bat minutuz pedalei ematen. Pedalei eragiten ari dela, presioa egiten duten plantila batzuk eramango ditu. Horrela, ikusiko dugu zein presio egiten duen plantiletan, baita aulkian ere. Gainera, haren jarduna grabatuko dugu, eta ordenagailu bidez haren itzala erakusten duen irudi baten bidez jarduera gutzia ikusiko da. Hala jakingo dugu zenbateraino tolestean dituen orkatilak, belaunak eta sorbaldak, nola eragiten dien pedalei... Horrekin guztiarekin, bizikletan zer jarreratan ibili behar duten zehaztuko diogu. Erosoago joango da horrela, eta lesioak saihestuko ditu, eta errendimendua hobetu ere.

Baina jarrera hori ez al da modu naturalean hartzen?

Modu naturalean hartzen dugun jarrera erosoan zaiguna izaten da. Baina erosoena ez da beti egokiena. Garrantzitsua da eroso joatea, baina

kontuan hartu behar da beste parametro batzuk daudela. Kasu horretan, agian, erosoan zaigun jarrera ez da egokiena, eta lesio bat izateko eta gure errendimendua txikiagoa izateko arriskua daukagu.


Beraz, bizikletan ibiltzen ikastearekin batera ikasi beharko genuke jarrera egoki hori hartzen?

Arazo asko saihestuko lirateke. Adibidez, gaztetatik bizikletan ibiltzen hasten direnentzat oso inportantea izango litzateke hori ikastea. Horregatik, garrantzitsua litzateke proba hau egitea. Izan ere, hazten ari dira, beren egitura fisikoa garatzen ari dira, eta jarrera txar batek are kalte handiagoa eragin diezaike helduei baino. Txirrindulariak ez du bizikletara egokitu behar, baizik eta bizikletak txirrindularira.

Errendimendua hobetuko dela esan duzu. Mendate bat igotzeko zailtasunak dituen txirrindulari batek aise igoko du honi esker?

Txirrindulariak zenbat eta arazo gehiago izan, orduan eta hobekuntza handiagoa. Zenbatekoa den neurtzea zaila da. Hobetzeko epeei dagokienez, bakoitzaren arabera

★ ATZEKOZ AURRERA



JON URBE / ARGAZKI PRESS

LOTSABAKO

Zer gosaltzen duzu? Arroz egosia frutarekin.

Zeri diozu beldurra? Itsaso sakoneko iluntasunari.

Zer ikusten duzu telebistan? Kirol emankizunak.

Txirrindulari bat? Sylvain Chavanel.

Lasterketa bat? Euskal Herriko Itzulia.

dago. Batzuei, gainera, postura hobe izan arren, kosta egingo zaie ohitzea, eta baliteke deseroso egotea. Hori dela eta, lau-sei asteren buruan beste azterketa bat egingo zaio, beharrezkoa dena fintzeko.

Teknikazioagatik txirrindularitzak ez al du xarma galdu?

Nik uste dut teknifikatua dagoela, eta horrek errendimendua hobetzen lagundu duela. Ez nuke esango, dena den, xarma galdu duenik. Teknikazio horri eta horren bidez lortzen diren datuei duten balioa eman behar zaie, baina obsesionatu gabe. Ni lehen horietako bat nintzen, baina orain gehiago begiratzan diot gozatzeari.

Ez al dira afizionatuak, gainera, obsesionatuen daudenak?

Egia da gero eta serioago hartzen dutela. Gaur egun, badirudi zenbat eta erronka handiagoak jarri orduan eta balio handiagoa dutela. Astakeriak egiten dira. Baina guri, dena den, zorionez, orain arte gehiago etorri zaizkigu osasunarekin kezkatutakoak, eta ez horrenbeste errendimenduarekin kezkatutakoak.